

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA ESKUALDEETAKO LEHIAKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOA 2025



Orkestrari buruz:

20 urte baino gehiagoko esperientziari eta jakintzari esker, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua (Deustu Fundazioa) eskualdeko lehiakortasunaren esparruan Europako erreferentziazko ikerketa zentroetako bat da. Orkestraren misioa Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate inklusiboa eta jasangarria helburu duen lehiakortasuna bultzatzea da. Horretarako, Institutuak ikerketa eraldatzaileko proiektuak lantzen ditu tokiko eta nazioarteko eragileekin, eta analisi zorrotzak egiten ditu, erabakiak hartzen laguntzeko.

→ Eskura itzazu gure argitalpen guztiak Orkestraren webgunean: www.orquestra.deusto.es

Bizkaiko Lurralde Historikoko Lehiakortasunaren Diagnostikoa

ISSN: 3020-7983



<https://doi.org/10.18543/SLAC5376>

Bizkaiko Lurralde Historikoko eta Eskualdeetako Lehiakortasunaren diagnostikoa 2025

ISBN: 978-84-1325-295-7



<https://doi.org/10.18543/OJMF3329>

© Carla Peletier, Edurne Magro, Mikel Navarro, Rakel Vázquez

© Lehiakortasunerako Euskal institutua - Deusto Fundazioa



Mundaiz 50, E-20012, Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 297 327. Fax: 943 279 323
comunicacion@orquestra.deusto.es
www.orquestra.deusto.es

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak

1 posta-kutxa - 48080 Bilbao

Helbide elektronikoa: publicaciones@deusto.es

Bizkaiko lurralde historikoko eta eskualdeetako lehiakortasunaren diagnostikoa 2025

Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia

Ikertaldea:

Carla Peletier, Edurne Magro, Mikel Navarro y Rakel Vázquez
(Orkestra)

2026

Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutua
Deustu Fundazioa

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Aurkibidea

Taulen, irudien eta grafikoaren zerrenda	v
Esker ona	vii
Laburpen exekutiboa	ix
1 Sarrera	1
2 Bizkaiko lehiakortasunaren emaitzak	3
2.1 Bizkaiko egiturazko ingurunea	3
2.2 Pertsonen ongizatea Bizkaian	8
2.3 Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzak	13
2.4 Bizkaiko lehiakortasunaren palanka dinamikoak	19
2.5 Bizkaiko lehiakortasunaren emaitzen ondorioak	24
3 Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren bilakaera	26
3.1 Bizkaiko eskualdeen egiturazko ingurunea	27
3.2 Bizkaiko eskualdeetako pertsonen ongizatea	36
3.3 Bizkaiko eskualdeetako ekonomia eta enpresa emaitzak	42
3.4 Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren palanka dinamikoak	46
3.5 Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren bilakaeraren ondorioak	60
4 Ondorioak	62
I. eranskina. Aldakuntza koefizientek	64
II. eranskina. Eskualdeetako fitxak	66

Taulen, irudien eta grafikoaren zerrenda

Taulen zerrenda

1. taula	Bizkaiko egiturazko ingurunearen adierazleak	7
2. taula	Bizkaiko pertsonen ongizatearen adierazleak	12
3. taula	Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzen adierazleak.	18
4. taula	Bizkaiko lehiakortasun palanken adierazleak.	23

Irudien zerrenda

1. irudia	Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua	2
-----------	---	---

Grafikoaren zerrenda

1. grafikoa	Biztanleria (pertsonak)	27
2. grafikoa	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	28
3. grafikoa	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleria (%)	28
4. grafikoa	Zahartze tasa	30
5. grafikoa	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	30
6. grafikoa	Establezimenduen batez besteko tamaina.	31
7. grafikoa	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	32
8. grafikoa	50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua (%)	32
9. grafikoa	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	33
10. grafikoa	Industria enplegua (%)	34
11. grafikoa	Merkataritza zerbitzu aurreratuak enplegua (%)	35
12. grafikoa	Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	36
13. grafikoa	Batez besteko errenta pertsonala (€)	37
14. grafikoa	Langabezia tasa	37
15. grafikoa	Iraupen luzeko langabezia tasa	38
16. grafikoa	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	39
17. grafikoa	Delituen indizea (1.000 biztanleko)	40
18. grafikoa	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanleria (%)	41
19. grafikoa	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak).	41
20. grafikoa	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	42

21. grafikoa Biztanleko BPGa (€).	43
22. grafikoa Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (mila €).	44
23. grafikoa ROA (%)	44
24. grafikoa ROE (%)	45
25. grafikoa Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	46
26. grafikoa Instalaturako energia berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	47
27. grafikoa Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%) . . .	48
28. grafikoa Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%) . . .	48
29. grafikoa Kontsumo ondasun iraunkorren edo ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	49
30. grafikoa Enpresen ondare garbia (mediana; pasiboaren %).	50
31. grafikoa Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€).	51
32. grafikoa Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	51
33. grafikoa Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	52
34. grafikoa Finantza sektoreko enplegua (%)	53
35. grafikoa I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (kopurua)	54
36. grafikoa I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (1.000 biztanleko)	54
37. grafikoa I+Gko gastua (BPGaren %)	55
38. grafikoa DBO <i>n</i> I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (guztizko enpleguaren %)	55
39. grafikoa Goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufakturetako enplegua (%)	56
40. grafikoa Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako (KIS) enplegua (%)	57
41. grafikoa Enplegu tasa	58
42. grafikoa Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (%)	58
43. grafikoa Udal hauteskundeetako parte hartze tasa	59
44. grafikoa Alkate emakumeak (%)	60

Esker ona

Txosten hau Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketari eta laguntzari esker egin ahal izan dugu.

Egileok, gainera, Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari eskerrak eman nahi dizkiogu, txostena prestatzeko eta beste analisi batzuetarako erabili ditugun adierazle gehienak kalkulatzeko ezinbestekoak izan baitira Eustatek emandako datuak. Hain zuzen ere, Eustatek berariaz eta eskuzabaltasunez ustiatu ditu bere datu baseak, Orkestrak eskatutakoari erantzuteko. Azkenik, Sabi-Informaren laguntza ere eskertu nahi dugu, txosteneko zenbait adierazle kalkulatzeko datuak eman dizkigulako.

Egileek bere gain hartzen dute txosten honen edukian egon litezkeen akatsen edo hutsegiteen erantzukizuna.

Laburpen exekutiboa

Analisi esparrua eta lurraldearen testuingurua

Bizkaiko ongizatea helburu duen lehiakortasunaren hirugarren diagnostikoa dugu hau. Diagnostikoa bi urtean behin egiten da, Orkestrak garatutako esparru analitikoan oinarrituta, eta **Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia** jasota dauden datuez baliatuta. Oraingo honetan, analisiak bi alderdiri begiratu die nagusiki. Alde batetik, azken txostenaz geroztik Bizkaiko Lurralde Historikoak izan duen bilakaerari erreparatu dio, eta bilakaera hori EAEkoarekin, Espainiakoarekin, EB-27koarekin eta Alemaniakoarekin alderatu du. Beste alde batetik, **Bizkaia Orekan Sakonduz** egitasmoak lurraldearen garapen orekatua sustatzeko eginkizuna duenez, analisiak Bizkaiko eskualdeek azken hamar urteetan izan duten bilakaera agerian utzi nahi izan du, lehiakortasunari eta ongizateari dagokienez.

Azterketaren emaitzak interpretatzeko orduan, oso kontuan hartu behar dira Bizkaiko testuinguruaren berezitasunak:

- **Sozio-demografia:** Bizkaiak EAEko biztanleriaren % 52 hartzen du, eta dentsitate demografiko handia du; horrek konektagarritasuna eta berrikuntza errazten ditu. Baina zahartze tasa handia du (% 24,8), eta, gainera, gora egiten jarraitzen du, nahiz eta atzeritar jatorriko biztanleria ere hazi egin den.
- **Ekoizpen egitura:** Bizkaiak egitura sendoa du, Merkataritza Zerbitzu Aurreratuetan espezializatuta dagoelako (enpleguaren % 13,8 sortzen du jarduera horrek). Jarduera horretako enpleguak eta Balio Erantsi Gordinak bilakaera positiboa izan dute, beste lurralde batzuetan baino gehiago hazi baitira. Baina, beste lurralde batzuetan bezala, industria sektorea pisua galtzen ari da. Ondorioz, industriaren eta zerbitzu aurreratuen pisu konbinatua (enpleguaren % 29,6 eta BEGaren % 38) EB-27ko batezbestekoaren antzekoa da. Horrek adierazten du zerbitzuetako espezializazioa industriaren dezelerazioa konpentsatzen ari dela. Ekoizpenaren espezializazio horrek enpresen tamaina baldintzatzen du, merkataritza zerbitzu aurreratuak tamaina txikiagoko unitateak dituztelako ezaugarri. Gainera, industria sektoreko enpresen batez besteko tamaina beste lurralde batzuetakoa baino txikiagoa da, nahiz eta joera gorakorra den.

2020ko krisiaren ondoren, Bizkaiak bere erresilientzia ekonomikoa sendotu al du? Nola islatu da hori ongizatean?

Diagnostikoak berresten digu pandemiaren ondoren **Bizkaiak bere erresilientzia ekonomikoa sendotu** duela, eta, ildo horretatik, susperraldi sendoa erakutsi du,

bai errendimendu ekonomikoan eta bai enpresen errentagarritasunean. BPGak hazten jarraitu du eta produktibitatea bereziki handia da, batez ere zerbitzu aurreratuen sektoreak egiten duen ekarpenagatik. Horrek enpresa errentagarritasun handia eta orain arteko bilakaera positiboa ekarri ditu. Bizkaian, halaber, nabarmena da enpresa txiki eta ertain berritzaileen proportzioa (% 47,2), eta azken aldiak gora egin du produktu berrikuntzak. Bestalde, hazkunde handiko enpresen sorrera beste lurralde batzuetan baino gehiago hazi da azken bi urteetan. Hori guztia oso lagungarria da lurraldearen etorkizuneko erresilientziarako.

Erresilientzia ekonomikoak **pertsonen ongizate handiagoa** ekarri du: errentaren adierazleek bilakaera positiboa izan dute eta ez dute desberdintasunik sortu, bizi itzaropenaren datua bikaina da, eta langabezia tasak behera egin jarraitzen du.

Zein da lehiakortasunerako eta ongizaterako palanka nagusien bilakaera Bizkaian?

Bizkaiak indargune nabarmenak ditu lehiakortasun esparruko hainbat palankatan, eta horietan oinarritzen da lurraldearen lehiakortasuna:

- **Giza kapitala:** Bizkaia liderra da pertsonen gaitasunetan: 25-64 urteko biztanleen % 79,8k goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza du, eta etengabeko ikaskuntza mailak (% 20,3) beste lurralde batzuetakoak baino nabarmen handiagoak dira.
- **Finantzaketa eta inbertsioa:** Finantza egoera gero eta onbideratuagoa da, eta hori sektore pribatuaren ondare garbian eta tokiko administrazio publikoaren zorpetze txikian ikus daiteke. Egoera horrek etorkizuneko inbertsioa errazten du.
- **Gizarte konfiantza:** Pertsonenganako konfiantza beste lurralde batzuetan baino handiagoa da, besteak beste, EB-27n edo Alemanian baino handiagoa. Ezaugarri horrek negozioak eta berrikuntza errazten ditu.
- **Jakintza:** I+Gko inbertsioan, aldea murriztu egin da, azken bi urteetan BPGaren gaineko gastuaren ehunekoa EB-27ko batezbestekoa baino azkarrago hazi baita, nahiz eta Alemaniaren eta erreferentziatzko beste lurralde batzuen azpitik jarraitzen duen (% 1,9 eta % 3,1, hurrenez hurren).

Nola dago Bizkaia lurralde orekari dagokionez, eskualdeen aniztasuna kontuan hartuta?

Bizkaia lurralde **orekatu samarra da ongizatearen ikuspegitik**, eskualdeak heterogeneoak badira ere, bai ikuspegi geo-demografikotik eta bai ekonomikotik. Azken hamarkadan, eskualde guztiek hobetu dute beren ongizate maila, eta eskualdeen arteko aldeak murriztu egin dira, batez besteko errenta pertsonalari begiratuta. **Ekonomia eta enpresa emaitzetan ere aldeak murrizten ari dira**, bereziki enpresa errentagarritasunean.

Lehiakortasun palankei dagokienez, nabarmentzekoak dira **giza kapitalean** lurralde orekan izan diren aurrerapenak, enplegu tasan eta gazteen gaikuntzan, esate baterako, kokapena ona baita eta eskualdeen arteko aldeak murrizten ari baitira. Azken adierazle horretan zerbitzu aurreratuen pisu handiena duten eskualdeak nabarmentzen dira bereziki. **Jakintzaren** eremuan ere desberdintasunak murriztu egin dira, eskualde gehienetan I+Gko gastua eta jakintzan intentsiboak diren zerbitzue-

tako enplegua handitu direlako. Azkenik, enpresen **finantza egoera** ia eskualde guztietan hobetu da, ekoizpen egitura edozein dela ere.

Nola egin da aurrera lurraldearen erronka nagusietan?

Aurrerapenak aurrerapen, aurreko txostenetan identifikatutako erronka garrantzitsuak ez dira desagertu. Kontuan hartu behar da erronka horiek Bizkaiko egiturazko inguruneari lotuta daudela:

- **Gizarte eta demografia trantsizioa:** Zahartzea egiturazko erronka da oraindik ere, eta gero eta handiagoa, Bizkaiko eskualde guztietan.
- **Energia eta klima trantsizioa:** Azken bi urteetan aurrerapausoak eman dira berotegi efektuko gas isurien murrizteko, baina isuri horien balioak Europako batzbestekoaren gainetik daude oraindik ere, Bizkaian handiagoa baita industria sektorearen pisua. Aurrerapen hori modu orekatuan gertatzen ari da eskualdeen artean.
- **Nazioartekotzea:** Nazioartekotzeari dagokionez, arriskutsuak dira ikusten ari garen gero eta ziurgabetasun geopolitiko handiagoa eta lurralde historikoak sektore helduetan (energia eta metalurgia) esportatzaile handi gutxi batzuekiko duen mendekotasuna. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresa txiki eta ertain esportatzaile erregularrei laguntzea. Enpresa horiek bilakaera positiboa izan dute azken urteetan. Gainera, nabarmendu behar da nazioartekotze adierazleetan eragina dutela Bizkaia zerbitzu aurreratuetan duen espezializazio handiagoak eta enpresen tamaina txikiagoak.

Lehiakortasun jasangarrirako gomendioak

Bizkaia **lurralde erresilientea da, ongizate eta gizarte kohesio handikoa, eta, gainera, lurraldea orekatuta dago**, baina bere ahultasunak lantzen jarraitu behar du eta lurralde aniztasuna kontuan hartu, etorkizuneko lehiakortasuna ziurtatzeko.

Horregatik, txostenak gomendio hauek proposatzen ditu (txostenean bertan zehaztasun handiagoz lantzen dira):

- **Enpresak sendotzea:** Enpresa txiki eta ertainek eskala handiagoa lortzea bultzatzea, enpresen arteko lankidetzaren eta bat egite prozesuen bidez, ekoizpen sareko enpresen tamaina txikiagoaren desabantaila gainditzeko.
- **Berrikuntza eredua: DUI** ereduan (eginez eta elkarri eraginez ikastea) oinarritutako politikak sustatzen jarraitzea, besteak beste teknologiaren zabalkundea bultzatzeko, enpresen kudeaketa hobetzea, giza kapital aplikatua garatzea, ekoizpen sareak eta hurbileko bitarteko eragileak laguntzea, I+Gko politika horizontalak baino gehiagoak baitira lurraldeko enpresa txiki eta ertainen ezaugarriak kontuan hartuta.
- **Lurralde ikuspegia:** Denboran iraunkorrak izango diren eta tokiko testuinguru bakoitzaren berezitasunetara egokituko diren eskualde garapeneko estrategiak bultzatzen jarraitzea. Bizkaia lurralde anitza da, eta eskualde batzuek beren indarguneak babesteko eta ongi funtzionatzen duena ez aldatzeko politikak behar dituzte, esate baterako, hazkunde handiko enpresentzako pizgarriak aurreikustea edo azpiegitura adimendunak sendotzea. Beste eskualde batzuetan, ordea, beha-

LABURPEN EXEKUTIBOA

rrezkoak dira egiturazko ahultasunak zuzentzeko politikak, biztanleria galtzeko eta zahartzerako joera gelditu nahi bada. Gainera, beharrezkoa da teknologia zabaltzeko eta enpresak sendotzeko eskualdeko nodoak bultzatzen jarraitzea, Lanbide Heziketa aurreratuko ikastetxeen eta garapen agentzien laguntzaz.

1

Sarrera

Txosten honek Bizkaian ongizatea helburu duen lehiakortasunaren hirugarren diagnostikoa jasotzen du, Orkestrak egina, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailarekin duen lankidetzaren hitzarmenaren babesean, eta, zehazki, Bizkaian lurralde lehiakortasun orekatua bultzatzea xede duen Bizkaia Orekan Sakonduz estrategiaren barruan.


2021ean egindako txostenaren helburua zen Bizkaiko Lurralde Historikoko ongizatea helburu duen lehiakortasunaren lehen analisi bat egitea; 2023an landutako txostenak COVID-19aren krisiaren eragina eta susperraldiaren lehen datuak jaso zituen. Hirugarren txosten honek bi helburu ditu. Lehenengo, Bizkaiko lehiakortasunaren eta pertsonen ongizatearen errealitatearen jarraipena egitea, arreta bi alderditan jarriz: alde batetik, Lurraldeak 2023an erakutsi zuen epe laburreko erresilientzia sendotu ote den ikustea, eta, beste alde batetik, urte horretako txostenean agerian gelditu ziren erronka nagusien bilakaera aztertzea, zehazki, demografia trantsizioarena, energia eta klima trantsizioarena, eta nazioartekotzearena. Hori guztia, gainera, mundu mailan ziurtasun eza nagusi den une honetan, merkataritza irekitzeari ezarri zaizkion murrizketek eta gatazka belikoez areagotua. Hain zuzen ere, alderdi horiek eragina izaten ari dira lurralde guztietako kanpo merkataritzan. Txosten honen bigarren helburua Bizkaiko eskualdeen bilakaera aztertzea da, ongizatea helburu duen lehiakortasunari dagokionez, testuinguru heterogeneoak dituztela kontuan hartuta. Azterketa hori egiteko une aproposa da, 2026an Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Orekan Sakonduz estrategiaren hamargarren urteurrena baita. Hala, arreta berezia jarriko zaio eskualdeen bilakaera modu orekatuan gertatzen ari den behatzeari.

Hori guztia egiteko, Orkestrak landutako Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparru kontzeptualaren bloke bakoitzean definitutako adierazleak aztertuko dira (1. irudia), aurreko txostenetan bezala. Adierazle horiek eta denboran zehar izan dituzten balioak eskuragarri daude *Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokian*, Bizkaia Orekan Sakonduz eskualde garapenerako strategiaren barruan. Hala, analisiak ongizatearen eta ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioetan, eta lehiakortasunaren palanketan sakontzen du, aztertutako lurraldeen egiturazko ingurunea kontuan hartuta.

Txostenak Bizkaiko bilakaeraren eta egoeraren azterketa egiten du, lehiakortasunari eta ongizateari dagokienez

Txostenak Bizkaiko eskualdeek azken hamar urteetan izan duten bilakaera aztertzen du, bereziki lurraldeen arteko orekari erreparatuta

1. IRUDIA Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua



Iturria: Orkestra.

2

Bizkaiko lehiakortasunaren emaitzak

2.1 Bizkaiko egiturazko ingurunea

Inguruneak lurraldearen berezko ezaugarriak islatzen ditu. Ezaugarri horiek egiturazkoak direnez, adierazleek ez dute aldaketa handirik izaten epe laburrean. Hala ere, inguruneke ezaugarri horiek lurralde estrategiak baldintzatzen dituzte, eta, horregatik, garrantzitsua da ingurunea aztertzea, Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruaren gainerako blokeetan sakondu aurretik. Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruan, egiturazko ingurunean hiru dimentsio zehazten dira: geo-demografia, ekonomia eta enpresa egitura, eta erakunde egitura eta balioak.

Geo-demografia

Dimentsio honetan, lurraldearen biztanleria egiturari buruzko adierazleak aztertzen dira. Egungo egoera eta bilakaera bereziki garrantzitsuak dira, lotura estua baitute gizarte eta demografia erronkekin, hala nola ongizate estatuari eustea, ingurumenaren jasangarritasuna edo gizarte inklusioa.

Biztanleriak lurralde baten tamaina erlatiboa neurtzeko aukera ematen du. Bizkaiak 1.155.733 biztanle zituen 2025eko urtarrilaren 1ean, EAEko biztanleria osoaren % 52. Ehuneko hori dela eta, lurraldeak garrantzi handia du autonomia erkidegoan, eta eskala ekonomia batzuk ustiatzeko adinako tamaina duela esan dezakegu. Biztanleriaren hazkundera % 1ekoa izan da azken bi urteetan, EAEkoa baino zertxobait handiagoa. Hazkunde horretan eragina dute bai bizi itxaropen handiagoak eta bai immigrazioak.

Bizkaia da **dentsitate demografiko** handiena duen lurraldea (520,2 biztanle km² bakoitzeko), eta adierazle horren hazkundera azken bi urteetan handiagoa izan da Bizkaian, batez ere EB-27rekin alderatuta. Dentsitate demografiko handiak konektagarritasuna eta berrikuntza errazten ditu, baina, aldi berean, ingurumenaren kudeaketa jasangarrian zailtzen du.

Bizkaiko **zahartze tasa** ia % 2 handitu da 2023tik 2025era, eta horrek ondorioak ditu ongizate estatuari eusteko garaian. Bizkaiko hazkundera EAE osokoa baino pixka bat handiagoa izan da; hala ere, biak Europako batez besteko hazkundera baino handiagoak dira. Bizkaiko zahartze tasa (% 24,8) EAEkoa (% 24,3) baino pixka bat handiagoa da, eta alderatzeko erabiltzen ari garen lurraldeetakoa baino handiagoa ere bada.

Bizkaiko biztanleria hazi egin da azken urteotan

Zahartze tasak gora egiten jarraitu du, beste lurralde batzuetan baino gehiago

Etorkinak
funtsezkoak dira
demografiaren
erronkei aurre
egiteko

Azkenik, **atzerrian jaiotako biztanleriaren** adierazleak azken bi urteetan beste lurralde batzuetan baino hazkunde handiagoa izan du, batez ere EB-27rekin alderatuta. Hala ere, Bizkaiak EAEk eta EB-27k baino immigrazio tasa zertxobait txikiagoa du (% 13,6, eta % 14,0 eta % 14,4, hurrenez hurren). Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera biztanleriaren eta zahartze demografikoaren adierazleekin lotuta aztertu behar da, atzerrian jaiotako biztanleria funtsezko baliabidea baita biztanleriaren egituran izandako aldaketek dakartzaten erronkei aurre egiteko. Hala, eskura dauden azken datuen arabera, atzerrian jaiotako biztanleen % 87,5 lan egiteko adinean dago, eta soilik % 5,7 dira 64 urtetik gorakoak; Bizkaian bizi diren eta herrialdean jaio diren herritarren % 27,7k du, ordea, 64 urte baino gehiago. Komeniko litzateke biztanleria horren osaera sakontasun handiagoz aztertzea, besteak beste, prestakuntzari eta jatorriari dagokionez. Nolanahi ere, etorkinen hazkundeak, aldi berean, beste erronka bat planteatzen du: etorkinen erabateko gizarte eta kultura inklusioa bermatzea.

Ekonomia eta enpresa egitura

Lurralde baten ekonomia egituraren adierazle ohikoenetako bat **enpleguaren kontzentrazio indizea** da; adierazle horrek enplegu bolumen handiena duten bost sektoreen garrantzi erlatiboa jasotzen du. Printzipioz, zenbat eta handiagoa izan kontzentrazioa, orduan eta espezializazio ekonomia handiagoak; baina, era berean, arrisku handiagoak aldaketen edo kontrako egoera ekonomikoen aurrean. Bizkaian, bost sektore nagusi horiek honako hauek dira: merkataritza eta ibilgailuen konponketa, hezkuntza, zerbitzu osagarriak, etxeetako jarduerak, eta eraikuntza. Sektore horiek enplegu osoaren % 42,3 hartzen dute, eta proportzio hori EAEkoa baino handiagoa da. Hain zuzen ere, EAEko kontzentrazioak pixka bat behera egin du azken bi urteetan. Konparazioak egiteko erabiltzen ari garen beste lurraldeetako baino handiagoa bada ere (Espainiakoa izan ezik), ez da sektore kontzentrazio handia, batez ere azpieskualde bat izanik.

Industria enpresen
batez besteko
tamaina handitu
egin da

Industria enpresen batez besteko tamainak nabarmen baldintzatzen ditu enpresen lehiatzeko estrategiak: berrikuntza mota, nazioartekotze maila eta mota, etab. Azken bi urteetako jarduera bolumen handiagoari esker, industria enpresen batez besteko tamaina ia proportzio berean hazi da Bizkaian eta EAE osoan. Batez beste, 17 pertsona ari dira lurralde historikoko industria enpresetan lanean, eta tamaina hori Espainiako eta Europako industria enpresena baino handiagoa da, baina EAE osokoa baino zertxobait txikiagoa eta, batez beste, Alemaniako enpresek duten tamainaren ia erdia (32).

Bestalde, **50 langile edo gehiago dituzten enpresetako enplegu adierazleari** esker, enplegua enpresa ertain eta handietan zein neurritan kontzentratzen den ikus daiteke. Adierazle horrek azken bi urteetan Bizkaian izan duen bilakaera positiboa izan da, baina hazkundea EAE osoan izandakoa baino pixka bat txikiagoa izan da. Bizkaian, enpresa horiek enplegu osoaren % 44,6 hartzen dute; EAEn, berriz, % 52,7. Beste lurraldeetan ere handiagoa da ehunekoa. Bizkaiko industria espezializazio txikiagoak azaltzen du, neurri handi batean, emaitza hori.

2023ko txostenak agerian utzi zuen industriaren eta zerbitzuen arteko erlazioa gero eta handiagoa zela. Hain zuzen ere, Bizkaiko industria sektorearen enplegua eta balio erantsi gordina (BEG) aztertu ziren, eta lurraldea merkataritza zerbitzu aurreratuetan (balio erantsi handiko zerbitzuetan) espezializatuta zegoenez, sektore horretarako ere analisi berdina egin zen, baita bien konbinaziorako ere.

Industria sektoreak ekonomian duen pisuak atzera egin du azken bi urteetan, oro har. Bizkaian, jaitsiera EAEn eta EB-27n baino txikiagoa izan da enpleguari dagokionez, baina nabarmenagoa BEGaren kasuan. Zehazki, industria enplegua enplegu osoaren % 15,7 da Bizkaian, EAEn (% 19,8) eta Alemanian (% 17,5) baino txikiagoa, nahiz eta azken herrialde horrekiko aldea murriztu egin den. Bestalde, industria enpleguaren pisua EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago (% 15,3). Balio erantsi gordinari dagokionez (BEG), industriak Bizkaian duen pisua (% 18,4) EAeko (% 23) eta aztertzen ari garen gainerako lurraldeetako baino txikiagoa da, baina Espainiako baino handiagoa.

Industria sektoreak pisua galdu du, bai enpleguan eta bai BEGean

Merkataritza zerbitzu aurreratuen sektoreak bilakaera positiboa izan du, eta Bizkaian izandako hazkundera EB-27koa eta EAeko baino handiagoa izan da, enpleguari begiratu gero. Nabarmentzekoa da, gainera, EAeko merkataritza zerbitzu aurreratuen % 56,8 Bizkaian kontzentratzen dela. Ondorioz, lurraldeko enpleguaren % 13,8 hartzen du sektore horrek, EB-27ren eta Alemaniaren antzera (% 14,0) eta EAEn baino gehiago (% 12,2). BEGari dagokionez, Bizkaia aztertutako lurraldeen buru da (% 19,6), EAEn (% 17,1) eta EB-27ren (% 18,5) aurretik.

Merkataritza zerbitzu aurreratuak enpleguaren hazkundera konpentsatu du industria enpleguak ekonomian duen pisuaren galera; bi jarduerak batera hartuta, hazkundera beste lurralde batzuetako baino handiagoa izan da

Bi sektoreak batera aztertuz gero, Bizkaiko bilakaera hobea izan da enpleguan, hazkunde handiagoak izan baititu; balio erantsi gordinak, berriz, behera egin du, baina ez EAEn bezainbeste. Industria eta merkataritza zerbitzu aurreratuak batera hartuta, bi sektoreen enplegua guztizko enpleguaren % 29,6 da Bizkaian, EB-27tik oso hurbil (% 29,3), baina EAEn azpitik (% 32,1). BEGari dagokionez, antzeko banaketa ikusten da: Bizkaian % 38,0 da; EAEn, % 40,1; eta EB-27n, % 37,8.

Erakunde egitura eta balioak

Dimentsio honetan, presio fiskalari lotutako bi adierazle aztertuko ditugu: alde bate-tik, enpresen gaineko presio fiskala eta, bestetik, herritarren gaineko presio fiskala.

Sozietateen gaineko zergaren diru bilketa, BPGaren ehuneko gisa, hazi egin da azken bi urteetan Bizkaian, aldeko egoera ekonomikoaren eta enpresen emaitza onen ondorioz. EAEn eta EB-27n hazkunde handiagoak izan ditu. Diru bilketa hori zertxobait handiagoa da Bizkaian EAEn baino (% 1,9 eta % 1,8, hurrenez hurren); nolahi ere, balio horiek beste lurraldeetakoak baino txikiagoak dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren diru bilketaren adierazleak izan duen bilakaerari dagokionez, BPGaren ehunekoan neurtuta, 2022tik 2024ra bitartean behera egin du, neurri handiagan Bizkaian EAEn eta EB-27n baino. Ratio horren jaitsierak ez du esan nahi diru bilketa, termino absolutuetan, murriztu denik, baizik eta diru bilketaren hazkundera BPGaren hazkundera baino txikiagoa izan dela. Adierazle horretan, lurraldeen arteko konparazioan sozietateen gaineko zergaren diru bilketaren kasuan ikusi dugun egoera errepikatzen da: Bizkaian (% 7,2) EAeko batezbestekoan (% 7,1) baino pixka bat handiagoa da, baina gainerako lurraldeetan baino txikiagoa.

Laburbilduz, honako hauek dira Bizkaiko egiturazko ingurunearen ezaugarriak eta horien bilakaera, EAerekin eta EB-27rekin alderatuta:

- **Demografiari dagokionez**, biztanleriaren dentsitatea eta zahartze maila handiak ditu. Konparatzeko erabiltzen ari garen beste lurralde batzuk kontuan hartuta, Biz-

kaian atzerrian jaiotako pertsonen proportzioa txikiagoa bada ere, azken bi urteetan proportzio horrek gora egin du, EAEn eta EB-27n baino gehiago.

- **Ekonomia eta enpresa egiturari** begiratuz gero, enpleguak bost sektore nagusietan duen kontzentrazioa handiagoa da (eta, gainera, EAEn baino gehiago hazi da), eta 50 langile edo gehiagoko enpresetako enpleguaren kontzentrazioa, berriz, txikiagoa (EB-27n baino gutxiago hazi da). Industria enpresen batez besteko tamainari dagokionez, EB-27koa baino handiagoa da, baina EAEn baino txikiagoa. Nolanahi ere, tamaina hori handitzen ari da. Industria sektorearen pisuak atzera egin du oro har, eta BEGaren beherakada handiagoa izan da Bizkaian gainerako lurraldeetan baino, nahiz eta enplegua EAEn eta EB-27n baino gutxiago jaitsi den. Aitzitik, merkataritza zerbitzu aurreratuek EB-27n eta EAEn baino hazkunde handiagoa izan dute, eta Bizkaiaren espezializazioa enpleguan eta BEGan duen pisu nabarmenean islatzen da.
- Egoera alderantzizkoa da **erakunde egiturari eta balioei** erreparatuz gero: egitura horrek zergen diru bilketa aztertzen du, BPGaren ehunekoan, eta EAEn baino maila handiagoa ikusten da Bizkaian, baina EB-27n baino txikiagoa. Bizkaian azken bi urteetan izandako hazkundera beste lurraldeetako baino txikiagoa izan da.

1. taulan egiturazko ingurunearen blokeko adierazleen emaitzak jaso dira.

1. TAULA Bizkaiko egiturazko ingurunearen adierazleak¹

Adierazlea	Bizkaiko eta EAEko datuen urtea		Bizkaia	EAE	Espainia	EB-27	Alemania	Bizkaiko bilakaera (azken 2 urteak)	EAErekiko aldea		EB-27rekiko aldea	
	2025	2024							Maila	Aldaketa	Maila	Aldaketa
EGITURAZKO INGURUNEA												
Geo-demografia												
Biztanleria	2025	1.155.733	2.218.210	49.128.297	450.646.971	83.577.140		+	e.e.	=	e.e.	=
Dentsitate demografikoa (biztanleak/km ² bakoitzeko)	2024	520,2	305,4	97,2	109,7	236,4		+	++	=	++	+
Zahartze tasa (%)	2025	24,8	24,3	20,7	22,0	22,7		+	+	=	++	=
Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	13,6	14,0	19,3	14,4	20,5		++	-	+	=	++
Ekonomia eta enpresa egitura												
Enpleguaren sektore egituraren kontzentrazio indizea (A38) (%)	2023	42,3	40,3	46,1	40,1	39,9		=	++	+	++	=
Industria enpresen batez besteko tamaina	2025	17,2	18,1	13,1	13,7	32,1		++	--	=	++	++
50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua (%)	2025	44,6	52,7	46,9	51,2	60,1		=	--	-	--	-
Industria enplegua (%)	2024	15,7	19,8	11,4	15,3	17,5		=	--	=	+	+
Merkataritza zerbitzu aurreratuak enplegua (%)	2023	13,8	12,2	12,9	14,1	14,0		+	++	+	-	=
Industriako eta merkataritza zerbitzu aurreratuak enplegua (%)	2023	29,6	32,1	24,3	29,3	31,6		+	--	+	=	+
Industriaren BEGa (%)	2024	18,4	23,0	15,6	19,3	23,4		--	--	--	-	--
Merkataritza zerbitzu aurreratuaren BEGa (%)	2024	19,6	17,1	16,4	18,5	17,0		++	++	=	--	++
Industriaren eta merkataritza zerbitzu aurreratuaren BEGa (%)	2024	38,0	40,1	32,1	37,8	40,3		=	--	-	=	=
Erakunde egitura eta balioak												
Sozietateen gaineko zergarekin bidutako dirua (BPGaren %)	2024	1,9	1,8	2,7	3,0	2,4		++	++	--	--	--
Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarekin bidutako dirua (BPGaren %)	2024	7,2	7,1	9,1	9,0	10,7		--	+	-	--	--

Iturria: Orkestra.

¹ Koloretako zutabeetan, berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta larriak, emaitza negatiboa. Koloretako lehen zutabea, adierazleak Bizkaian azken bi urteetan izan duen bilakaera aztertzen da, esku darduratuak erabiltzen. Ikuur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berri, aldea % 5etik gorakoa dela. Koloretako bigarren eta laugarren zutabeetan, adierazleak Bizkaian izan duen balioa azaltzen da, EAEko eta EB-27ko balioekin alderatuta, hurrenez hurren, datuak eskuragarri dauden azken urterako. Kasu honetan ere, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berri, aldea % 5etik gorakoa dela. Azkenik, koloretako hirugarren eta bosgarren zutabeetan, Bizkaian adierazleak izan duen bilakaera aztertzen da (azken bi urteetan). EAEko eta EB-27ko bilakaerarekin alderatuta, hurrenez hurren. Kolore berdeak aldakuntza erlatibo positiboa adierazten du eta kolore larriak, aldakuntza negatiboa (gutxienez, ehuneko puntu 1eko aldea).

2.2 Pertsonen ongizatea Bizkaian

Pertsonen ongizateari dagozkion adierazleek, azken batean, lurralde lehiakortasunaren azken helburu izan beharko luketen dimentsioak hartzen dituzte kontuan: bizitzarekiko gogobetetasuna, bizitza materiala, enplegua, gizarte bizitza, ikaskuntza, osasuna, eta ingurumena.

Bizitzarekiko gogobetetasuna

Ongizatearen dimentsio orokor honetan, **bizitzarekiko gogobetetasun indizea** aztertzen da. Otik 10era bitarteko eskalan 7,4ko balioa izanik, Bizkaia EAEn pareko dago pertsonen ongizatearen adierazle subjektibo horretan, eta gainerako lurraldeak gainditzen ditu. Hala ere, Bizkaia eta EAEn azken bi urteetan izan duten bilakaera negatiboa izan da (zertxobait handiagoa Bizkaia kasuan), Europa ikusitakoa ez bezala, gainerako lurraldeetan hobera egin baitu. Datuen arabera, indize hori handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, gazteen artean, eta goi mailako prestakuntza duten pertsonen artean.

Bizitza materiala

Bizitza materialaren adierazleek, lurralde bateko pertsonen maila ekonomikoari buruz ez ezik, aberastasunaren banaketari eta dagoen berdintasun edo desberdintasun mailari buruz ere ematen dute informazioa.

Errentaren mediana % 13 hazi da azken bi urteetan

Lehenik eta behin, kontsumo unitate bakoitzeko **errentaren medianak** bilakaera positiboa izan du azken bi urteetan, % 13ko hazkundea, hain zuzen ere. Bizkaiko balioa (24.150 €) EAEn antzekoa da, eta Europako eta Espainiako batezbestekoa gainetik dago.

Errentaren banaketaren 80/20 ratioa desberdintasunaren adierazle bat da, eta errenta handieneko biztanleriaren % 20k errenta txikieneko biztanleriaren % 20ekin alderatuta jasotzen duen errentaren arteko erlazioa neurtzen du. Hala, zenbait eta txikiagoa izan ratio hori, orduan eta txikiagoa izango da desberdintasuna. Ikuspegi horretatik, Bizkaian behera egin du ratio horrek azken bi urteetan, eta Espainiako batezbestekoa baino balio hobea du, baina EAEn batezbestekoa baino pixka bat okerragoa.

Bizkaian zuzentzen ari dira errentaren banaketan dauden desberdintasunak

Desberdintasunaren beste adierazle garrantzitsu bat **Giniren indizea** da, biztanlerian diru sarreren edo aberastasunaren desberdintasuna kuantifikatzen duena (0 berdintasun maximoa izanik eta 100, desberdintasun maximoa). Bizkaian, indize horren bilakaera Europako batezbestekoa baino hobea izan da azken bi urteetan. Indize hori EB-27ren antzeko mailetan dago orain, eta EAEn batezbestekoa baino zertxobait gorago.

Enplegua

Langabezia tasak behera egin du; joera hori orokorra izan da lurralde guztietan, nahiz eta Bizkaian apalagoa izan den. Bizkaiko langabezia tasa (% 7,8) EAEn (% 7,3) baino pixka bat handiagoa da. Biak Espainiako tasa baino txikiagoak dira, baina EB-27koa eta Alemaniakoa baino handiagoak.

Soldata arrakalaren adierazleari dagokionez, daturik berrienak 2023an 2022ari buruz eskaintzen zirenak ziren, Bizkaiari dagokionez. Hala ere, Espainiako Estatistika Institutuak (INEk) EAerako argitaratutako datuen arabera, arrakala hori murriztea espero da, erkidego osoa hartuta, ehuneko bost puntu murriztu baita urte batean.

Gizarte bizitza

Gizarte bizitzaren dimentsioan, **pertsonenganako konfiantza** neurtzen da, modu subjektiboan, 0tik 10era bitarteko eskalan. Konfiantza maila orokor horrek oso eragin positiboak ditu, ongizate pertsonalean ez ezik, baita lehiakortasunean ere: negozioak egitea errazten du, jakintza eta berrikuntza zabaltzea, etab. Bizkaian, adierazleak hobera egin du azken bi urteetan, eta emaitza EAEkoaren antzekoa da (6,5), eta gainerako lurraldeekin alderatuta, oso ona.

Pertsonenganako konfiantza, lehiakortasunean eta ongizatean ondorio positiboak dituena, hobetu egin da Bizkaian

Ikaskuntza

Giza kapitala garrantzitsua da, bai ongizatearen output gisa (prestakuntza handiena duten pertsonak zoriontsuagoak dira, batez beste, bizitzarekiko gogobetetasunaren adierazlean ere islatzen den bezala), bai lehiakortasunerako input gisa (produktiboagoak dira) eta ongizatearen beste dimentsio batzuetan (batez beste, osasun hobea dute, enplegu hobekak dituzte, demokraziaren aldekoagoak dira...). Zehazki, dimentsio horretan bi adierazle aztertu dira: lehena, goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duten pertsonen ehunekoak (stock aldagaia, gaur egungo lehiakortasunari eta ongizateari eragiten diena), eta, bigarrena, azken lau asteetan etengabeko prestakuntzako eta ikaskuntzako jardueretan parte hartu duten pertsonen ehunekoak (fluxu aldagaia, nagusiki etorkizuneko lehiakortasunari eragingo diona). Azken diagnostikoan, bi adierazle horietan Bizkaiak oso emaitza onak ditu.

Goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren hazkundea EB-27rekiko arrakala murriztea ahalbidetu du

Azken bi urteetan, **goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duten 25-64 urteko biztanleen** ehunekoak hazkunde handiagoa izan du Bizkaian, konparatzeko erabiltzen ari garen lurraldeetan baino. Goi mailako hezkuntza duen biztanleria % 79,8 da Bizkaian, EAEn (% 79,7) baino zertxobait handiagoa. Bi lurraldeak Espainiako tasaren gainetik daude, baina Alemaniakoaren azpitik. Bizkaian izandako aldakuntza positiboari esker, Europarekiko tarte murriztu egin da eta antzeko balioetan kokatu da.

Bestalde, **etengabeko ikaskuntzan aritzen diren 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen** adierazleak oso egoera ona du Bizkaian eta EAEn (% 20,3 eta % 19,8, hurrenez hurren). Ehuneko horiek beste lurraldeetakoak baino askoz ere handiagoak dira. Hala ere, azken bi urteetako hazkundera txikiagoa izan da Bizkaian, EAEn eta EB-27n baino.

Osasuna

Azken bi urteetan, **bizi itxaropenak** gora egin du lurralde guztietan. Adierazle horrek modu objektiboan neurtzen du pertsonen osasuna, eta Bizkaian (eta EAEn), aztertutako lurraldeetatik altuena da (84,6 urte).

Ingurumena

Ingurumenaren dimentsioa funtsezkoa da pertsonen ongizaterako, egungo bizi kalitatean ez ezik, etorkizuneko belaunaldien bizi kalitatean ere eragiten duelako. Eremu horretan, lurraldeen arteko konparazioa eta haien bilakaera aztertzeaz gainera, komeni da kontuan hartzea nazioartean (COP bileretan) eta European (Europako Itun Berdea edo Klimari buruzko Europako Legea) adostu diren neurriak, eta horien aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Dimentsio hori erronka gisa aurkeztu zen Bizkaiko lehiakortasunaren azken txostenean. Zehazki, adierazle hauek hartzen dira kontuan: berotegi efektuko gas isuriak, airearen kutsadura, hondakinen sorrera eta birziklatze tasa.

Aurrerapausoak izan dira ingurumeneko hainbat adierazletan, zehazki, berotegi efektuko gas isurietan, airearen kalitatean, eta hiri hondakinen birziklatze tasan

Ingurumeneko lehen adierazleak **berotegi efektuko gas isuriak** neurtzen ditu, eta horien balioa, Bizkaian, 7,2 tona CO₂ baliokide da biztanleko (7,4 EAEn). Alderdi positibo gisa, azken bi urteetan isuriaren maila murriztea lortu da, baina balioak Europakoa baino handiagoa izaten jarraitzen du oraindik. Gainera, zifra hori urrun geratzen da Parisko Akordioaren helburuekin bateragarriak diren klima aldaketaren agertokiekin lotzen diren orientazio balioetatik (adibidez, 2,3 tCO₂ inguru 2030erako).

Airearen kutsadurari buruzko adierazleak, airearen kalitatea neurtzen duenak, hobera egin du, eta Bizkaia EAerekiko duen positiboa hobetzea lortu du. Izan ere, adierazle horrek azken bi urteetan beherakada nabarmena izan du, erkidego osokoa baino handiagoa. Murrizketa hori adierazleak iraganean zituen maila kezkarriak zuzentzeko joera luzean txertatzen da, baina oraindik ez da iritsi nazioarteko erakundeek gomendatutako mailetara (adibidez, Osasunaren Mundu Erakundeak 2021ean ezarritako 5µg/m³-ko erreferentziako mugara). Zehazki, Bizkaiko urteko batezbestekoa 7,6µg/m³ izan da (EAekoa, 7,7µg/m³), Espainiakoa eta Alemaniakoa baino txikiagoa.

Hiri hondakinen sorreraren adierazleari dagokionez, azken bi urteetako emaitzak negatiboak izan dira, adierazleak gora egin baitu Bizkaian, eta, gainera, EAEn baino gehiago. Aitzitik, konparatzeko erabiltzen ari garen lurraldeetan, joera alderantzizkoa izan da, eta sortutako hiri hondakinen mailak murriztea lortu da. Bizkaian biztanle bakoitzeko 563 kg-ko balioa du adierazle horrek, beste lurraldeetan baino handiagoa (Alemanian izan ezik). Arestian aipatu dugun dentsitate demografiko handiagoak, hiri izaera nabarmenagoaren seinale denak, azal lezake, neurri batean, Bizkaian hiri hondakin gehiago sortzea.

Azkenik, Bizkaiko **hiri hondakinen birziklatze tasa** gainerako lurraldeetakoa baino txikiagoa da (% 39,2), baina azken bi urteetan izan duen bilakaera positiboari esker, aldea murriztu egin da; birziklatzen diren hiri hondakinen proportzioaren igoera handiagoa izan da Bizkaian EAEn baino, eta proportzio hori murriztu egin da erreferentziako gainerako lurraldeetan.

Laburbilduz, pertsonen ongizateari dagokionez:

- Bizkaian bilakaera positiboa izan da azken bi urteetan, dimentsio eta adierazle guztietan, **bizitzarekiko gogobetetasunean eta hiri hondakinen sorreran izan ezik.**
- **Etengabeko ikaskuntzari** dagokionez, EAerekiko eta EB-27rekiko kokapen hobea du, nahiz eta azken bi urteetako hazkundea beste lurraldeek izan dutena baino txi-

kiagoa izan den. EB-27koa baino egoera hobea ikusten da (EAEkoaren parekoa) **bizitzarekiko gogobetetasun mailan, pertsonenganako konfiantzan eta bizi itxaropenean.**

- Enpleguari erreparatuz gero, emaitzak ez dira hain positiboak, **langabezia tasa** EAEkoa eta EB-27koa baino handiagoa delako eta, gainera, gutxiago murriztu delako. Bestalde, Bizkaian **goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duten biztanleen** ehunekoa EAEkoa eta EB-27ko batezbestekoa baino handiagoa da.
- Ingurumenari dagokionez, adierazle guztiek hobera egin dute, hiri hondakinen sorrerari dagokionak izan ezik, testuinguru demografikoak baldintzatuta. Bizkaiak EAEk baino emaitza hobekak ditu **berotegi efektuko gas isuriei** begiratzuz gero, baina EB-27ko emaitzak baino kaskarragoak dira. **Airearen kutsadurari** begiratzuta, aurrerapauso nabarmenak eman dira, eta, gaur egun, Alemania edo Espainia baino hobeto dago. Era berean, nabarmentzekoa da **hiri hondakinen birziklatze tasaren** hobekuntza.

2. taulak ongizateari dagozkion adierazleak aurkezten ditu.

2. TAULA Bizkaiko pertsonen ongizatearen adierazleak?

Adierazlea	Bizkaiko eta EAEko datuen urtea		Bizkaia	EAE	Espainia	EB-27	Alemania	Bizkaiko bilakaera (azken 2 urteak)	EAEreko aldea		EB-27reko aldea
	Bizkaiko	EAEko							Maila	Aldaketa	
ONGIZATEAREN EMAITZAK											
Bizitzarekiko gogobetetasuna											
Bizitzarekiko gogobetetasuna (0-10)	2024	7,4	7,4	7,4	7,2	7,2	7,0	-	=	=	+
Bizitza materiala											
Errentaren mediana kontsumo unitate bakoitzeko (€)	2023	24.150	24.850	19.250				++	-	---	
Errenta pertsonalaren 80/20 ratioa	2023	2,5	2,4	2,8				---	+	---	
Gini indizea (%)	2023	29,6	28,8	32,1	29,4	29,5		---	+	=	---
Enplegua											
Langabezia tasa (15-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2025	7,8	7,3	10,5	5,9	3,4		-	++	+	+
Generoaren araberako soldata arrakala (%)	2022	16,8	15,5	11,4		18,2		---	=	=	
Gizarte bizitza											
Pertsonenganako konfiantza (0-10)	2024	6,5	6,5	6,2	5,8	5,5		++	=	=	++
Ikaskuntza											
Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanleria (%)	2025	79,8	79,7	65,4	80,5	84,1		+	=	+	+
Etengabeko ikaskuntza (%)	2025	20,3	19,8	15,8	13,5	9,4		++	+	---	++
Osasuna											
Bizi itxaropena jaiotzean (urteak)	2024	84,6	84,6	84,0	81,7	81,5		+	=	=	+
Ingurumena											
Berotegi efektuko gas isuriak (biztanleko CO2 tona balioak)	2023	7,2	7,4	5,5	6,8	7,8		---	-	-	+
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	7,6	7,7	8,7		8,4		---	=	---	
Hiri hondakinen birziklatze tasa (%)	2022	39,2	47,4	41,4	47,7	68,7		+	---	+	++
Hiri hondakinen sorrera (biztanleko kg)	2022	563,0	505,9	465,0	511,0	613,0		+	++	+	++

Iturria: Orkestra.

2 Koloretako zutabeetan, berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta laranja, emaitza negatiboa. Koloretako lehen zutabean, adierazleak Bizkaian azken bi urteetan izan duen bilakaera aztertzen da, eskura dauden datuak erabilita. Ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berri, aldea % 5etik gorakoa dela. Koloretako bigarren eta laugarren zutabeetan, adierazleak Bizkaian duen balioa aztertzen da, EAEko eta EB-27ko balioekin alderatuta, hurrenez hurren, datuak eskuragarri dauden azken urterako. Kasu honetan ere, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berri, aldea % 5etik gorakoa dela. Azkenik, koloretako hirugarren eta bosgarren zutabeetan, Bizkaian adierazleak izan duen bilakaera aztertzen da (azken bi urtean), EAEko eta EB-27ko bilakaerarekin alderatuta, hurrenez hurren. Kolore berdeak aldakuntza erlatibo positiboagoa adierazten du eta kolore laranja, aldakuntza negatiboagoa (gutxienez, ehuneko puntu 1eko aldeak).

2.3 Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzak

Atal honetan, Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzak aztertu ditugu, lau dimentsio-tan antolatuta: errendimendu ekonomikoa, enpresen errentagarritasuna, berrikuntza eta ekintzailtza, eta nazioartekotzea.

Errendimendu ekonomikoa

Errendimendu ekonomikoaren neurri gisa, biztanleko BPGa (barne produktu gordina) eta lanaren itxurazko produktibitatea (orokorra eta manufakturako industriarena) aurkeztu ditugu.

Biztanleko BPGak lurralde baten errendimendu ekonomikoa eta lehiakorra neurtzen du, eta bilakaera positiboa eta antzekoa izan du azken bi urteetan Bizkaian (44.814,2 €-EAP) eta EAEn (46.014,2 €-EAP). Bi balio horiek Espainiako eta Europako batezbestekoen gainetik daude, baina Alemaniakoaren azpitik (46.387,1 €-EAP), nahiz eta azken horrekiko aldea murrizten ari den³.

Errendimendu ekonomikoaren beste neurri bat **produktibitatea** da (lan egindako ordu bakoitzeko, egokiagoa baita horrela egitea efizientzia teknikoa neurtzeko), bai ekonomia orokorrarena eta bai manufakturako industriarena. Ekonomia osoari dagokionez, azken bi urteetako bilakaera positiboa izan da Bizkaian, enpleguaren hazkundearekin batera doalako. Gainera, EAeko ekonomiaren produktibitatearen hazkundea baino handiagoa izan da. 2023an, Bizkaiko balioa gainerako lurraldeetako baino handiagoa izan da (49,2 € orduko), Alemania kenduta (62,7 € orduko).

Manufakturako industriaren produktibitatea aztertuz gero, ekonomia osoaren produktibitatea baino handiagoa dela ikusiko dugu, lurralde guztietan. Azken bi urteetan, manufakturako industriaren produktibitatea gehiago handitu da Bizkaian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta, batez ere, Europako batezbestekoan baino. Hala ere, Bizkaiaren kasuan, manufakturaren produktibitatea (50,8 € orduko) Alemaniakoa (77,8 € orduko) baino txikiagoa da, baita EAeko (52,1 € orduko) baino txikiagoa ere, eta Europako batezbestekoaren antzeko mailetan dago. Agerikoa da Bizkaiak ekonomia osoaren produktibitatean bi lurralde horiekin alderatuta lortu duen emaitza hobea zerbitzuen portaera hobeari zor zaiola, sektore horrek konpentsatzen baitu Bizkaiko manufakturaren produktibitate txikiagoa. Interesgarria da azpimarratzea lehiakortasunarekin lotura zuzenena duen produktibitatea industria sektorekoa dela, industria (manufakturak) baitago kanpoko lehiaren mende, neurri handiagoan. Zerbitzuen produktibitatea ere garrantzitsua da, herritarrek kontsumitzen dituzten produktu askoren efizientziari (eta prezioari) eragiten baitio. Era berean, zerbitzuen sektorearen efizientziak eragina du, zeharka bada ere, industria sektorearen lehiakortasunean, zerbitzuetako batzuk beharrezkoak izan daitezkeelako industria ekoizpenerako.

Ekonomiaren produktibitatearen bilakaera positiboarekin batera, enplegua ere hazi dela nabarmendu behar da

³ Kontuan izan behar da Bizkaiko eta EAeko datuek, neurri batean, benetakoek baino itxura hobea dutela, bi lurraldeetan Espainiako erosteko ahalmenaren parekotasunak aplikatzen direlako, nahiz eta EAeko prezioen maila orokorra (eta, ziur aski, baita Bizkaikoa ere) Espainiako batezbestekoa baino % 7 handiagoa izan. Hala, Bizkaiko biztanleko BPGa, prezio korranteetan, 43.293 eurokoa izan zen 2024rako, eta EAeko, 44.449 eurokoa.

Enpresa errentagarritasuna

Enpresa errentagarritasunaren dimentsioan, errentagarritasun ekonomikoa (ROA), finantza errentagarritasuna (ROE) eta unitateko lan kostua aztertu ditugu (bai ekonomia osoan eta bai industrian).

Enpresa arloko literaturan, enpresen lehiakortasuna neurtzeko gehien erabiltzen den adierazlea **errentagarritasun ekonomikoa** da (ROA, *Return on Assets*, aktiboen gaineko errentagarritasuna). Adierazle hori neurtzeko ustiapeneko emaitza garbia zati enpresaren aktibo guztiak egin behar dugu. Bestalde, **finantza errentagarritasuna** (ROE, *Returns on Equity*, baliabide propioen gaineko errentagarritasuna) ekitaldiaren emaitza zergak ondoren zati enpresaren ondare garbia edo baliabide propioak eginda lortuko dugu⁴. Alegia, akziodunak enpresan inbertituta dituen funtsengatik lortzen duen errentagarritasuna neurtzen du.

Enpresen errentagarritasunak bilakaera positiboa izan du, eta palanka efektu finantzario positiboa ikusten da

Enpresen ROAren medianak⁵ altua izaten jarraitzen du Bizkaian (% 6,4), Euskal Autonomia Erkidegoan (% 6,5) eta Espainian (% 7,2). Gainera, Bizkaian errentagarritasunak azken bi urteetan izan duen bilakaera positiboa esanguratsua izan da, eta euskal ekonomia osoaren errentagarritasunaren bilakaera baino zertxobait handiagoa, gainera.

ROEren medianaren kasuan, Bizkaian EAEn baino handiagoa da (% 11,4 eta % 11,1, hurrenez hurren), eta Espainiako balioaren antzekoa (% 11,6). Bizkaian adierazle horrek bilakaera positiboa izan du azken bi urteetan, baina Euskal Autonomia Erkidego bilakaera are hobea izan da.

ROEek ROA nabarmen gainditzea enpresek bizi duten palanka efektu finantzario positiboaren seinale da: enpresen inbertsioen etekinak besteren baliabideen kostua baino handiagoak dira, eta, horrela, zorpetzeak baliabide propioen errentagarritasuna handitzea ahalbidetzen die.

Unitateko lan kostuen adierazleak (ULK), bai ekonomia osorako eta bai manufakturarako sektorerako, enpresen errentagarritasunaren neurri osagarria dira. ULKak lanaren ordainketaren (enpresaren emaitzen kontuan eragina duena, baina baita langileen ongizate materialean ere) eta produktibitatearen (efizientzia eta berrikuntza neurri bat dena) artean dagoen harremana atzematen du. Bizkaian, ULKak (ehuneko gisa) txikiagoak dira konparatzeko erabiltzen ari garen gainerako lurraldeetan baino. Indargune horren arrazoia efizientzia da; izan ere, lurraldearen orduko produktibitate handia, lehen ere ikusi duguna, lan egindako orduko lan kostuen kudeaketa orekatuarekin uztartzea lortu da, azken horiek EAEko batezbestekoaren antzekoak izanik. Horrela, Alemaniak (produktibitate handiagoa duenak) Bizkaiak baino ULK handiagoa du, langile bakoitzeko eta, are gehiago, lan egindako ordu bakoitzeko lan kostu handiak dituelako.

⁴ Adierazle horietarako Sabi-Infoma datu basea hartu dugu oinarri, eta hiru datu multzo baztertu ditugu: 10 langile baino gutxiagoko enpresenak; EJSN-Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako 7010, 64, 65, 66, 84, 97 eta 99 kodeenak; eta datu atipikoak. Enpresa aktiboak aukeratu dira, eta forma juridiko hau dutenak: Kooperatiba, Sozietate Anonimoa, Sozietate Komandataria, Sozietate Mugatua edo Sozietate Erregular Kolektiboa.

⁵ Medianak kalkulatu ditugu lurraldean kokatutako enpresa handienek eragin dezaketen alborapena saihesteko.

Manufakturetan, Bizkaiko ULKek behera egin dute, arestian aipatu dugun manufaktura produktibitatearen hazkundeak lagunduta. Kasu horretan, Bizkaiko kostuen lehiakortasuna (% 59,4) desagertu egiten da Espainiaren (% 57,4) eta EB-27rekiko (% 57,7), EAEkoaren oso parekoa da (% 60,0), eta Alemaniakoa (% 68,0) baino txikiagoa da oraindik. Nolanahi ere, Bizkaiak manufakturen produktibitatean EAerekiko zuen desabantaila ikusita, manufakturen ULKetan ikusten den parekatzearen arrazoia Bizkaiko manufaktura orduko lan kostu txikiagoak direla esan daiteke (EAEko batezbestekoa baino % 3 txikiagoak). Horren atzean, Bizkaiko industriaren sektore espezializazioa egon daiteke, baita enpresa tamaina txikiagoa ere, egiturazko inguruenari buruzko atalean aipatu den bezala.

Berrikuntza eta ekintzaitza

Berrikuntzaren atalak enpresa txiki eta ertainen jardura aztertzen du. Bizkaian, **enpresa txiki eta ertain berritzaileen** proportzioa % 47,2 da, EAEkoa (% 45,4) eta Espainiakoa (% 33,6) baino handiagoa. Bi lurraldeak EB-27ko eta Alemaniako batezbestekoaren azpitik dauden arren, azken bi urteetako bilakaerak joera positiboa erakusten du (biziagoa Bizkaian), konparatzeko erabiltzen ari garen gainerako lurraldeetan izandako atzerakadaren aldean.

Produktuaren berrikuntzari dagokionez, Bizkaiak gainerako lurraldeek baino hazkunde handiagoa izan du. Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen % 29,2k egiten ditu produktu berrikuntzak, EAEn (% 27,4) eta aztertutako gainerako lurraldeen gainetik. **Produktu berrien edo hobetuen salmentak** pixka bat igo dira Bizkaian azken bi urteetan, eta lurralde historikoko enpresa txiki eta ertainen fakturazioaren % 11,4 dira orain. Ehuneko hori EAEkoaren antzekoa da eta EB-27koa eta Alemaniakoa baino handiagoa, baina oraindik Espainiakoa baino txikiagoa (% 13,2).

Bizkaian, **prozesuko berrikuntza** duten enpresa txiki eta ertainen proportzioa ere hazi egin da, baina EAEn baino modu apalagoan, eta Alemanian eta EB-27n, aldiz, alderantziz gertatu da, proportzio horrek behera egin baitu. Adierazle horrek % 35,1eko balioa du Bizkaian eta EAEn, eta Espainiakoa gainditzen du, baina EB-27ko (% 41,7) eta Alemaniako (% 49,8) mailen azpitik geratzen da. Berrikuntza mota hori oso garrantzitsua da, Bizkaia bezala, merkataritza zerbitzu aurreratuetan espezializaturik dauden lurraldeetan.

Bizkaian, **hazkunde handiko enpresen** ehunekoak (0,39 mila biztanleko) EB-27koa eta Alemaniakoa baino handiagoa da. Bai Bizkaian eta bai EAEn, hazkunde handiko enpresen ehunekoak gora egin du azken bi urteetan (Bizkaian EAEn baino gehiago), eta hori bat dator jardura eta enplegua berreskuratzearekin.

Nazioartekotzea

Nazioartekotzearen atalean, kanpo merkataritzaren emaitza adierazleak landuko ditugu, garrantzitsuak baitira lehiakortasunerako. Horixe zen, hain zuzen ere, 2023ko txostenean identifikatutako erronka nagusietako bat.

Ondasunen nazioarteko merkataritzaren saldoaren adierazleak (ondasunen esportazioen eta inportazioen arteko aldea, BPGaren ehunekoan) Bizkaian merkataritza defizita dagoela erakusten du, Euskal Autonomia Erkidegoan, EB-27an eta Alemanian ez bezala. Defizit hori Bizkaiak zerbitzuen sektorean duen espezializazioagatik

Bizkaiak egoera eta bilakaera hobea du produktuaren berrikuntzan

Bizkaian gora egin du hazkunde handiko enpresen ehunekoak

Bizkaiko sektore
espezializazioak
lurraldeak
nazioartekotzean
duen egoera
eta bilakaera
baldintzatzen ditu

(zerbitzuen esportazioak ez dira ondasunen merkataritza saldoan sartzen) eta industria sektoreak, sektorerik esportatzaileenak, duen pisu txikiagatik sortzen da. Hain zuzen ere, Input-Output Tauletara joz gero (eskualde mailan bakarrik daude esku-ragarri), EAEk atzerriarekiko superabit handia du zerbitzuen merkataritzan, eta hori, neurri handi batean, Bizkaiak sortzen du. Gainera, Bizkaiko energia sektorearen in-portazioek pisu handia dute merkataritza saldoan. Zehazki, 2024an Bizkaiko ener-giaren merkataritza defizita BPGaren % 10,4 izan zen (EAEkoa, ordea, % 5,3 izan zen). Bilakaeraren ikuspegitik, azken bi urteetan, Bizkaiak ondasunen nazioarteko merka-taritzako defizita murriztu du, eta EAEk superabita handitu du. Hala ere, azken urteko bilakaerari erreparatuz gero, mezua bestelakoa da; izan ere, EAEn 2024an superabita murriztu egin zen 2023arekin alderatuta, eta Bizkaian, urte horretan, merkataritza defizita handitu zen. Europako ekonomiaren moteltzea, automobilgintzaren sekto-rearen krisia eta energia kostuak daude, besteak beste, bilakaera horren atzean.

Bestalde, **ondasunen esportatzeko joerak** (nekazaritzako eta industriako BEGa-ren ehunekoan) okerrera egin du azken bi urteetan (EB-27n ere antzera gertatu da, baina EAEn baino neurri txikiagoan), ziur aski nazioarteko ekonomiaren koiuntura txarragatik. Bizkaian EAEn baino pixka bat txikiagoa da, eta Europako batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa, berriro ere, lurraldea zerbitzuetan espezializatuta dagoe-lako.

Lehen 10 enpresen esportazioei dagokienez, adierazle horrek lurralde bateko es-portazioen kontzentrazio maila neurtzen du, eta nazioarteko irekitzearekin eta lehia-kortasunarekin lotuta dago. Zenbat eta handiagoa izan kontzentrazioa, arrisku han-diagoa izango du lurraldeak. Zehazki, Bizkaian kontzentrazio mailak handia izaten jarraitzen du, nahiz eta azken bi urteetan behera egin duen eta 2015az geroztik, beheranzko joera duen (EAEn gertatzen den bezala). Interesgarria da adierazle hori esportazioen portaerarekin eta Bizkaiko enpresa esportatzaileen profilarekin batera aztertzea. Hala, esportazioen bolumenak (BPGaren gaineko ehunekoan neurtuta) behera egin du Bizkaian azken bi urteetan, eta 2022an % 27,5 izatetik 2024an % 21,3 izatera igaro da, EAEn gertatu den bezala (2022an % 34,3 izatetik 2024an % 28,3 izatera igaro da). ICEXeko datuen arabera, esportazioen jaitsierarik handiena espor-tatzaile handietan gertatu da (250 milioi euro edo gehiagoko esportazioak egiten dituztenetan), enpresa horiek 2022tik 2024ra esportazio bolumena % 37 murriztu baitute. Jaitsiara hori bereziki nabaritu da erregai, lubrifikatzaile eta osagaietan, eta sektore metalurgikoetan, galdaketan, kasu. Alderdi positibo gisa, azpimarratzekoa da 2022tik 2024ra bitartean esportatzaile erregularren zifra % 4,7 handitu dela eta esportatzaileena (10 handienak kenduta), zertxobait igo dela. Beraz, Bizkaiko es-portazioen portaera okerragoa esportazio bolumen handia duten enpresa gutxi ba-tzuen bilakaerari oso lotuta dago. Enpresa horiek kontuan hartzen ez baditugu, ar-gazkia positiboagoa da.

Esportazioen
beherakada
erregaien eta
metalurgiaren
sektoreetako
esportatzaile
handietan gertatu
da

Laburbilduz, Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzek:

- Orokorrean, bilakaera positiboa izan dute. **Biztanleko BPGa** Europako batezbes-tekoaren ginetik dago, baina EAEkoa baino txikiagoa da. **Produktibitate** oroko-raren adierazlean, Bizkaia beste lurraldeen ginetik dago, baina **manufakturako produktibitatean**, EB-27ren azpitik geratzen da. Nabarmenezkoa da produktibi-tatearen hazkundera enpleguaren hazkunderarekin batera gertatu dela.
- Bizkaiak EAEk baino maila hobea du **ROEn** eta okerragoa, berriz, **ROAn. ULKei** da-gokienez, Bizkaian beste lurraldeetan baino gehiago murriztu dira. Hala ere, eta

produktibitateari buruz esan dugunarekin lotuta, **manufakturetako** ULKak Europako batezbestekoa baino handiagoak dira.

- Bizkaiak kokapen sendoa du **berrikuntzan** eta **ekintzailertzan**, eta enpresa txiki eta ertain berritzaileen eta produktuko berrikuntzaren proportzioa EAEkoa eta Espainiakoa baino handiagoa da. Azken urteetako bilakaera, gainera, alderatzeko erabiltzen ari garen lurraldeetako baino hobea izan da, nahiz eta oraindik adierazle batzuetan EB-27ren eta Alemaniaren azpitik egon. Bestalde, Bizkaiak EAEk baino biztanleko hazkunde handiko enpresen proportzio txikiagoa du, baina ongi kokatuta dago konparatzeko erabiltzen ari garen herrialdeekiko, eta, gainera, azken bi urteetan hazkunde nabarmena izan du adierazle horrek.
- **Nazioartekotzean**, bi alderdi nabarmendu behar dira. Alde batetik, ondasunen nazioarteko merkataritza saldoak eta esportazioen kontzentrazioak EAEn baino bilakaera hobea izan dute. Beste alde batetik, beste lurralde batzuekin konparatuta, adierazleak ez dira onak, lurraldearen ekoizpen egituraren eraginez, nagusiki. Hain zuzen ere, egitura horrek (zerbitzuetan espezializatuta egoteak eta esportatzaile handiak izateak) ondasunen esportazioen azterketa baldintzatzen du. Hala ere, azterketa horretan sakonduz, esportatzaile erregularren kopuruak gora egin duela ikusten da; etorkizunari begira, alderdi hori sendotu behar da.

Positiboa da enpresa esportatzaile erregularren hazkundera

3. taulak bloke honetako adierazleen emaitza nagusiak laburbiltzen ditu.

3. TAULA Bizkaiko ekonomia eta enpresa emaitzen adierazleak⁶

Adierazlea	Bizkaiko eta EAEko datuen urtea		EAE	Espainia	EB-27	Alemania	Bizkaiko bilakaera (azken 2 urteak)	EAEreko aldea		EB-27reko aldea
	Maila	Aldaketa						Maila	Aldaketa	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK										
Errendimendu ekonomikoa										
Biztanleko BPGa (€ EAP)	2024	44.814,2	46.014,2	36.413,0	39.944,6	46.387,1	++	-	=	++
Lanaren itxurazko produktibitatea (euro orduko)	2023	49,2	48,8	40,2	45,9	62,7	++	=	+	++
Manufaktura lanaren itxurazko produktibitatea (euro orduko)	2023	50,8	52,1	47,3	51,3	77,8	++	-	+	++
Enpresa errentagarritasuna										
Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	6,4	6,5	7,2			++	-	-	
Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	11,4	11,1	11,6			++	+	-	
Unitateko lan kostua (%)	2023	57,6	58,6	62,5	61,9	66,5	--	-	-	--
Manufaktura unitateko lan kostua (%)	2023	59,4	60,0	57,4	57,7	68,0	--	-	-	+
Berrikuntza eta ekintzailtza										
Enpresa txiki eta ertain berritzaileak (%)	2023	47,2	45,4	33,6	50,3	62,1	++	+	=	--
Produktuan berrikuntzak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak (%)	2023	29,2	27,4	17,2	24,9	25,9	++	++	++	++
Produktu berrien edo hobetuen salmentak enpresa txiki eta ertainetan (%)	2023	11,4	11,4	13,2	8,8	5,3	=	=	++	++
Prozesuan berrikuntzak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak (%)	2023	35,1	35,1	26,2	41,7	49,8	++	=	-	++
Hazkunde handiko enpresak (mila biztanleko)	2025	0,39	0,42	0,30	0,30	0,33	++	--	++	++
Nazioartekotzea										
Ondasunen nazioarteko merkataritzaren saldoa (BPGaren %)	2024	-7,8	4,0	-2,9	1,4	5,6	++	--	++	--
Ondasunen esportazioak nekazaritza eta industriako BEGarekiko (%)	2024	135,7	146,8	146,0	194,4	162,1	--	--	-	--
Lehen 10 enpresen esportazioak (%)	2025	33,0	30,6	13,8			--	++	--	

Iturria: Orkestra.

6 Koloretako zutabeetan, berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta laranja, emaitza negatiboa. Koloretako lehen zutabea, adierazleak Bizkaian azken bi urteetan izan duen bilakaera aztertzen da, eskura dauden datuak erabilita. Ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela. Koloretako bigarren eta laugarren zutabeetan, adierazleak Bizkaian duen balioa aztertzen da, EAEko eta EB-27ko balioekin alderatuta, hurrenez hurren, datuak eskuragarri dauden azken urterako. Kasu honetan ere, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela. Azkenik, koloretako hirugarren eta bosgarren zutabeetan, Bizkaian adierazleak izan duen bilakaera aztertzen da (azken bi urtean), EAEko eta EB-27ko bilakaerarekin alderatuta, hurrenez hurren. Kolore berdeak aldakuntza erlatibo positiboagoa adierazten du eta kolore laranja, aldakuntza negatiboagoa (gutxienez, ehuneko puntu 1eko aldeak).

2.4 Bizkaiko lehiakortasunaren palanka dinamikoak

Lehiakortasunaren palanka dinamikoak politika publikoen bidez edo eragile pribatuen estrategien bidez aldarazi daitezkeen elementuak dira. Garrantzitsuak dira, gainera, ongizate emaitzak eta ekonomia eta enpresa emaitzak baldintzatzen dituztelako, gaur egun eta etorkizunean. Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruan honako palanka hauek bereizten dira: kapital naturala, kapital fisikoa, finantzaketa, jakintza, giza kapitala, eta gizarte eta erakunde kapitala.

Kapital naturala

Bizkaiak palanka horretan duen egoera nahiko positiboa da. Hala, **energia berriztagarriek energiaren kontsumo gordinean hartzen duten kuota**, Bizkaia (% 24,4) hobeto dago EAE (% 21,4) eta Alemania baino, nahiz eta kuota hori Espainiakoa eta EB-27ko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa den. Adierazle horrek, gainera, bilakaera positiboa izan du (EAEn eta EB-27an baino neurri handiagoan), azken bi urteetan ez ezik, baita 2015az geroztik ere. Urte horretan, kuota % 15,3 besterik ez zen lurralde historikoan. Hala ere, aipatu behar da kuota handiago horren arrazoia ez dela energia berriztagarrien sorkuntza handiagoa, baizik eta energia berriztagarrien inportazio handiagoa (batez ere, energia hidraulikoa).

Bizkaiko **ingurumeneko zerga bilketak** (BPGaren gaineko ehuneko gisa) behera egin du 2021 eta 2023 urteen artean, baina EAEn eta EB-27n baino neurri txikiagoan. Nolanahi ere, 2015etik aurrera, ehuneko hori % 3 hazi da Bizkaian, eta hori positiboa da ingurumenaren ikuspegitik. Ehuneko hori Bizkaian (% 1,7) EB-27ko batezbestekoa (% 2,0) baino txikiagoa da, baina EAEkoa (% 1,5) eta Espainiakoa (% 1,6) baino handiagoa. Bizkaiko zergapen berde handiagoak zerikusia izango du, ziurrenik, bere ekoizpen egituraren energia intentsitate handiagorekin.

Kapital fisikoa

Kapital fisikoari dagokionez, bi adierazle aztertu dira. Bata industria inbertsioekin lotuta dago eta bestea, administrazio publikoen (foru aldundiak eta tokiko administrazio publikoak) inbertsioekin.

Landun bakoitzeko **industria inbertsioei** dagokienez, Bizkaian bilakaera positiboa izan du adierazle horrek azken bi urteetan (EAEn baino proportzio handiagoan), eta krisiaren ostean, susperraldia erakusten du horrek. Gainera, Bizkaia bereziki nabarmentzen da adierazle horretan duen kokapenagatik. Hala, 2023an, Bizkaiko landun bakoitzeko inbertsioak (13,8 mila €) EAEkoak (11,8 mila €) eta Alemaniakoak (13,2 mila €) baino handiagoak izan ziren.

Inbertsio publikoaren adierazleak, BPGarekiko neurtuta, egoera ona du lurralde historikoan (EAEkoa baino pixka bat txikiagoa da), baina nabarmentzekoa da haren bilakaera positiboa, EAEn baino proportzio handiagoan hobetu baita.

Adierazle horien egoera eta bilakaera ona aktibo eta palanka interesgarriak dira etorkizuneko lehiakortasunerako.

Industria
inbertsioen
bilakaera positiboa
krisiaren osteko
susperraldiaren
isla da

Finantzaketa

Bizkaiko enpresen kaudimenak hazkunde estrategiak aurrera eramateko aukerak eskaintzen ditu

Enpresen ondare garbiari dagokionez (pasibo osoaren gaineko ehuneko gisa), Bizkaiko enpresek bilakaera positiboa izan dute, eta EAEko batezbestekoa baino handiagoa, gainera. Bizkaiko enpresen ondare garbiaren medianaren balioa altua da (% 49,8) (eta are handiagoa da EAEko enpresena —% 51,2—). Horrek arrisku handiagoko estrategiak (enpresak eskuratzea, nazioartekotzea...) aurrera eramateko kaudimena eta gaitasuna ematen ditu. Kontuan izan behar da, halaber, palanka efektu finantzario positiboko egoeretan, gaur egun bizi duguna bezala, zorpetzeak baliabide propioen errentagarritasuna handitzeko aukera ematen duela, inbertsionetik lortzen den errendimendua handiagoa baita besteren finantzaletaren kostua baino. Hala ere, antzeman daitezkeen ziurgabetasunen aurrean, Bizkaiko enpresek baliabide propioak indartzeko politikarekin jarraitzea lehenetsi dute.

Tokiko administrazio publikoen zorra, bestalde, murriztu egin da azken bi urteetan, eta 2023an Bizkaian BPGaren % 3,5 da, EAEko eta Espainiako batezbestekoa baino handiagoa (% 2,8 eta % 1,4, hurrenez hurren), baina EB-27koa (% 5,2) eta Alemaniakoa (% 4,5) baino txikiagoa. COVID-19aren ondoren zorra murrizteak tokiko administrazioen jasagarritasun ekonomikoa ziurtatzen du.

Bestalde, atzerriko zuzeneko inbertsioa (AIZ), bai sartzen dena eta bai ateratzen dena, lehiakortasun iturri izaten da, oro har. Sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioak inbertsioa, jarduera eta enplegua handitzen ditu, teknologietarako sarbidea errazten du, kudeaketa modu berriak eta nazioarteko merkataritza sareak ekartzen ditu, lehia handitzen du..., nahiz eta funtsezko enpresen kontrol galeraren eta «bulego nagusiak» ahultzearen arriskua ere baduen, batez ere zuzeneko inbertsioa, gaitasun berriak sortzen dituen inbertsioa izan beharrez, lehendik dauden enpresak eskuratzearen bidetik sartzen bada. Ateratzen den atzerriko zuzeneko inbertsioak, deslokalizazio edo esportazioen ordezkapen prozesuez gainera, merkatuak eta eskala handitzeko aukera ematen du, eta etxekoak baino merkatu zorrotzagoetan trebatzen ere laguntzen du. Ildo horretatik, alderdi horiek aztertzeke bi adierazle erabiliko ditugu: atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%) eta atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%).

Atzerriko akziodunak eta eskumendekoak dituzten enpresen datuak Sabitik atera ditugu, eta horien bidez, EAerako eta Espainiarako iturri osoagoek eta alderagarriagoek (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren inbertsioen erregistroetakoak, esate baterako) eskaintzen dituzten atzerriko zuzeneko inbertsioen mugimenduak Bizkaira hurbildu ahal izango ditugu⁷. Hala, Sabiren datuak erabiliz, nabarmendu behar da azken bi urteetan bilakaera negatiboa izan duela atzerrian eskumendekoak dituzten Bizkaiko enpresen ehunekoak (EAEn ez bezala), eta atzerriko akziodunak dituzten enpresen proportzioa, berriz, gehiago handitu da Bizkaian EAEn baino. Zehazki:

⁷ Iturri honetan, honako hau ikus daiteke: (i) sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioaren stocka, BPGaren ehunekoan, txikiagoa da EAEn Espainian baino (eta Espainiako balioa EB-27ko batezbestekoaren antzekoa da), (ii) ateratzen den atzerriko zuzeneko inbertsioan, kontrakoa gertatzen da eta (iii) azken urteetan, bai EAera sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa eta bai bertatik ateratzen dena handitu egin dira, eta, horrela, euskal ekonomiak atzerriko zuzeneko inbertsioa erakartzeko erakusten zuen gaitasun txikiagoa zuzendu egin da, neurri batean.

- Badirudi **atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen** ehunekoari buruz Sabitik ateratako datuek berresten dutela Bizkaiko enpresek (% 6,0) eta EAEkoek kanpoan ezartzeko joera handiagoa dutela (% 6,7 EAEn eta % 5,0 Espainian). Bizkaiko datua EAEkoa baino pixka bat txikiagoa izatearen arrazoia izan daiteke Bizkaiko ekonomiak industria espezializazio txikiagoa duela.
- **Atzerriko akziodunak dituzten enpresen** ehunekoari dagokionez, itxuraz Sabiren datuek baieztatzen dute EAEn iristen den atzerriko zuzeneko inbertsioak (% 6,0) pisu txikiagoa duela Espainiakoarekin alderatuta (% 6,7). Baina, ateratzen den atzerriko zuzeneko inbertsioan ez bezala, sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioan Bizkaiko balioa (% 6,4) EAEko baino handiagoa da.

Jakintza

Jakintzaren palankan, alde batetik, berrikuntza prozesuaren inputa edo inbertsio ahalegina azter daiteke (I+Gko gastua BPGaren ehunekoan) eta, bestetik, prozesu horren bitarteko emaitza (biztanleko EPO patenteak). Biak hala biak etorkizuneko lehiakortasunaren adierazletzat har daitezke; izan ere, lehiakortasunean duten eragina ez da antzematen txosten honetan aztertu dugun urtean, ondorengo urteetan baizik. Aipatu behar da jakintzari lotutako beste adierazle batzuk, horien artean, enpresa txiki eta ertain berritzaileen ehunekoa (berrikuntza prozesuaren azken outputa) edo enpresa txiki eta ertainetan produktu berrien edo hobetuen salmentak (berrikuntza prozesuaren eragin ekonomikoa edo outcomea) 3. taulan jaso direla.

I+Gra bideratutako gastuak, BPGaren gaineko ehuneko gisa, bilakaera positiboa izan du Bizkaian azken bi urteetan eta, gainera, beste lurraldeetan baino hazkunde handiagoa izan du. Gastu hori % 1,9 izan zen Bizkaian, EAEko (% 2,2), EB-27ko (% 2,2) eta Alemaniako (% 3,1) batezbestekoaren azpitik.

Bizkaian beste lurraldeetan baino proportzio handiagoan igo da I+Gko gastua

Milioi biztanleko EPO patentei dagokienez, nabarmendu behar da, batez ere, industria enpresek egiten dituztela I+Gko jarduerak eta patentatzen dituztela berrikuntzak. Horrek azaltzen du, neurri batean, EAEk 2023an adierazle horretan duen balio handiagoa, Espainiarekin alderatuta (42,2 eta 18,3, hurrenez hurren), balio hori Alemania eta antzeko beste herrialde batzuetatik urrun geratzen den arren (126,9). Bizkaiak zerbitzuetan duen espezializazio handiagoak azalduko luke, neurri batean, lurraldeak adierazle horretan duen balioa (20,4) EAEkoa baino txikiagoa izatea. Gainera, bilakaera negatiboa izan du (baina EAEn baino neurri txikiagoan), bai azken bi urteetan, bai 2015az geroztik. Aipatu behar da patenteen datuak nolabaiteko atzerapenez argitaratzen direla, eta, horregatik, azken urterako jasotako datuak gutxietsita egon ohi direla.

Giza kapitala

INEn datuen arabera, Bizkaiko **enplegu tasa** jaitsi egin da 2023arekin alderatuta⁸, baina handitu egin da 2024arekin alderatuta. Tasa horrek 2023arekin alderatuta izan duen murrizketa jarduera tasaren murrizketak eragin du, hau da, biztanleria aktiboaren hazkundea biztanleria osoaren hazkundea baino handiagoa izan da. Hori guztia kontuan hartuta, Bizkaiko enplegu tasa (% 69,9) EAEkoa (% 69,1) baino handiagoa da, baina biak daude EB-27ko batezbestekoaren azpitik eta Alemaniako tasatik nahiko urrun.

⁸ Eustateko datuen arabera, okupazio tasa urtero handitu da 2021 eta 2025 urteen artean.

Bizkaiak gazteen prestakuntzan indargune nabarmena du, nahiz eta azken bi urteetan atzera egin

Hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urteko pertsonen proportzioari dagokionez, lurralde bateko pertsonak gaur egun eta etorkizunean izango dituzten gaitasunak aztertzeke funtsezko adierazlea dela jakinik, behera egin du Bizkaian, eta EAEn azpitik dago (% 66,6 Bizkaian eta % 68,6, EAEn). Aipatzekoa da tituludunen kopuru absolutuak behera egin badu ere, adierazlearen beherakada batez ere 25-34 urteko biztanleriaren hazkunde handiari zor zaiola, hazkunde erlatiboa handia izan baitu. Edonola, Alemaniarekiko edo EB-27rekiko tarteak handia izaten jarraitzen du.

Gizarte eta erakunde kapitala

Erakunde publikoekiko konfiantzaren adierazlearen balioa ona da Bizkaian (4,7), EAEn alderatuta (4,5). Aipatu behar da, balio hori 2017az geroztik handitu egin den arren, atzera egin duela azken bi urteetan (nahiz eta Bizkaian EAEn baino gutxiago okertu).

Bizkaian, **I+G+Bko jardueretan elkarlanean aritzen diren enpresa txiki eta ertainen proportzioa** % 29,3koa da (gizarte kapitalaren eta enpresen arteko elkarlenerako gaitasunaren erakusle da hori). Ehuneko hori EAEn baino handiagoa da (% 27,4), eta, modu nabarmenagoan, gainerako lurraldeetako baino handiagoa, EB-27koa, esate baterako, % 12,4koa baita.

Laburbilduz, Bizkaiko lehiakortasunaren palanka dinamikoek:

- Bilakaera positiboak eta emaitza hobeak izan dituzte finantzaketari lotutako adierazleetan, horien artean, **enpresen ondare garbia** edo **atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoan** (EAEn alderatuta), eta **inbertsio** adierazleetan edo **tokiko administrazio publikoaren zorrean** (EB-27rekin alderatuta). Gauza bera gertatu da **energia berriztagarrien kuotaren** hazkunde handiagoeekin edo **I+Gko gastuarekin** ere, BPGaren ehunekoan neurtuta (nahiz eta kasu horretan maila baxuagoetan jarraitzen duen).
- Behera egin dute, baina beste lurraldeetan baino gutxiago: **ingurumenaren gaineko zerga bilketaren ehunekoak** BPGaren gainean, **EPO patenteek** (Bizkaian kopurua txikiagoa da) edo **erakundeekiko konfiantzak** (EAEn gainetik dago oraindik).
- Lurraldearen bilakaera ez da hain positiboa giza kapitalaren dimentsioan, behera egin baitu **enplegu tasak** eta **hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urteko pertsonen ehunekoak**, nahiz eta azken adierazle horretan Bizkaiko maila nabarmen handiagoa izan. **Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen proportzioak** ere behera egin du.

4. taulak bloke honetako adierazleen emaitza nagusiak laburbiltzen ditu.

4. TAULA Bizkaiko lehiakortasun palanken adierazleak⁹

Adierazlea	Bizkaiko eta EAEko datuen urtea		Espainia	EAE	EB-27	Alemania	Bizkaiko bilakaera (azken 2 urteak)	EAErekiko aldea		EB-27rekiko aldea	
	Bizkaia	Bizkaia						Maila	Aldaketa	Maila	Aldaketa
PALANKAK											
Kapital naturala											
Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)	2024	24,4	21,4	25,4	25,2	22,5	++	++	++	-	++
Ingurumeneko zergekin bildutako dirua (BPGaren %)	2023	1,7	1,5	1,6	2,0	1,7	--	++	++	--	++
Kapital fisikoa											
Industriako inbertsioa landun bakoitzeko (mila €)	2023	13,8	11,8	14,4	15,2	13,2	++	++	++	--	++
Administrazio publikoaren inbertsioa (BPGaren %)	2023	1,1	1,1				++	-	++		
Finantzaketa											
Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	49,8	51,2	49,1			++	-	+		
Tokiko administrazio publikoaren zorra (BPGaren %)	2023	3,5	2,8	1,4	5,2	4,5	--	++	+	--	--
Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	6,0	6,7	5,0			-	--	--		
Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	6,4	6,0	6,7			++	++	+		
Jakintza											
I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	1,9	2,2	1,5	2,2	3,1	+	--	+	--	++
EPO patenteak (milioi biztanleko)	2023	20,4	42,2	18,3	56,1	125,9	--	--	++	--	++
Giza kapitala											
Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2025	69,9	69,1	67,0	70,8	77,5	-	+	=	--	--
Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2025	66,6	68,6	52,5	44,1	39,9	-	-	--	++	--
Gizarte eta erakunde kapitala											
Erakunde publikoekiko konfiantza (0-10)	2024	4,7	4,5				-	+	+		
I+G+Bn lankidetzan aritzen diren enpresa txiki eta ertainak (%)	2023	29,3	27,4	9,0	12,4	11,1	--	++	=	++	--

Iturria: Orkestra.

⁹ Koloretako zutabeetan, berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta larriak, emaitza negatiboa. Koloretako lehen zutabean, adierazleak Bizkaian azken bi urteetan izan duen bilakaera aztertzen da, eskura dauden datuak erabilita. Ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela. Koloretako bigarren eta laugarren zutabeetan, adierazleak Bizkaian duen balioa aztertzen da, EAEko eta EB-27ko balioekin alderatuta, hurrenez hurren, datuak eskuragarri dauden azken urterako. Kasu honetan ere, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela. Azkenik, koloretako hirugarren eta bosgarren zutabeetan, Bizkaian adierazleak izan duen bilakaera aztertzen da (azken bi urtean), EAEko eta EB-27ko bilakaerarekin alderatuta, hurrenez hurren. Kolore berdeak aldakuntza erlatibo positiboagoa adierazten du eta kolore larriak, aldakuntza negatiboagoa (gutxienez, ehuneko puntu 1eko aldeak).

2.5 Bizkaiko lehiakortasunaren emaitzen ondorioak

Bizkaiko Lurralde Historikoko ongizatea helburu duen lehiakortasunaren diagnostikoak, Bizkaia ongizatea helburu duen lehiakortasunaren hainbat dimentsiotan duen kokapena aztertzeaz gainera, azken bi urteetan izan duen bilakaera ere landu du, 2020ko krisitik ateratzeko erakutsitako erresilientzia sendotzeari buruzko ondorioak eskuratzeko. Emaitza horiek, gainera, nazioarteko ziurgabetasun handiko ingurune batean interpretatu behar dira, agerikoa baita ingurune horretan gertatzen ari diren aldaketek lehiakortasunari eragiten diotela. Ildo horretatik, Bizkaiko lurraldearen indarguneek balio handiagoa hartzen dute palanka gisa, aldaketa horien aurrean erresilientzia eta moldagarritasuna indartzen jarraitzeko.

Indargune horiei dagokienez, lehen-lehenik lurraldeak merkataritza zerbitzu aurreratuetan duen espezializazioa aipatu behar dugu, bereizgarrietako bat baita. Hain zuzen ere, alderdi hori dago Bizkaia beste adierazle batzuetan duen egoera onaren atzean, esate baterako, ekonomia osoaren produktibitatearen atzean.

Pertsonen ongizateari begiratuta, horixe izanik lehiakortasunaren azken xedea, Bizkaia egoera oso ona du. Lurraldearen aktibo garrantzitsuenetako bat da goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren ehunekoak, merkataritza zerbitzu aurreratuak espezializazioarekin lotuta. Gainera, etorkizunerako lehiakortasunaren palanka gisa, Bizkaia gazteen gaitasunetan lider da, eta alderdi hori lantzen jarraitzea garrantzitsua da. Bizkaia egoera eta bilakaera ona du bizitza materialaren adierazleetan, eta lan-gabezia tasak behera egin du.

Ekonomia eta enpresa emaitzek berresten digute Bizkaia erresilientea izaten jarraitzen duela 2020ko krisiaren ondoren, emaitza onak eta bilakaera positiboa baititu bai errendimendu ekonomikoan (biztanleko BPGa eta produktibitatea, batez ere merkataritza zerbitzu aurreratuen sektoreari lotuta) eta bai enpresa errentagarritasunean.

Lehiakortasunaren palankei dagokienez, Bizkaia egoera eta bilakaera ona du kapital naturalean, eta hori positiboa da ingurumen erronkak hobetzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko. Era berean, finantzaketa adierazleek erakusten dute krisiaren ondoren susperraldi ekonomikoa sendotu egin dela, bai enpresetan eta bai administrazio publikoetan. Eta hori oso positiboa da inbertsio beharrei aurre egiteko. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Bizkaiko enpresek eta administrazio publikoek egiten dituzten inbertsioen egoera eta bilakaera ona. Palanka horiek funtsezkoak dira, egungo lehiakortasunerako ez ezik, baita etorkizuneko belaunaldien lehiakortasuna eta ongizatea lantzen jarraitzeko ere.

Edozein lurralde diagnostikotan espero daitekeen bezala, egindako azterketak erronkak ere azaleratu ditu. Hala, aurreko analisietan identifikatutako erronkek hor jarraitzen dute, nahiz eta horietako batzuetan bilakaera positiboa ikusten den. Bide hori sendotzen ahalegindu behar da.

Hala, Bizkaiko Lehiakortasunari buruzko aurreko Txostenean adierazten zen, eta oraingoan ere berriro adierazi dugu, demografia trantsizioari heldu behar zaiola. Zahartze tasak gora egiten jarraitu du Bizkaian, nahiz eta biztanleria handitu, atzerrian jaiotako biztanleriaren hazkundeari esker. Bi adierazle horiek elkarri lotuta daude, atzeritar biztanleriak zaintzaren esparruan duen garrantziagatik.

Bizkaia oso argazki positiboa erakusten digu ongizateari begiratzuz gero

Ekonomia eta enpresa errendimenduaren adierazleen bilakaera positiboak lurraldearen erresilientzia berresten du

Era berean, ingurumen erronkak ere bere horretan jarraitzen du. Kontuan hartu behar da erronka global bat dela, baina lurraldean ere eragina duela. Bizkaiak aurrera egin du alderdi horretan, eta adierazle guztiek bilakaera positiboa izan dute (hiri hondakinen sorrerarenak izan ezik).

Bizkaiak aurrera egin du ingurumenaren erronkan

Aurretik identifikatu zen eta azken bi urteetan areagotu den beste erronketako bat enpresen nazioartekotzearena da, Europako ekonomiaren moteltzea, automobilgintza sektorearen krisia, energia kostuak eta gaur egungo ziurgabetasun geopolitikoak direla eta. Hain zuzen ere, Bizkaiko esportazioen beherakada esportatzaile handiei zor zaie, horien artean, erregaien eta lubrifikatzaileen sektoreetako enpresei eta metalurgiakoei. Hala ere, alderdi positibo gisa esportatzaile erregularren hazkundera nabarmentzen da. Beraz, garrantzitsua da enpresa esportatzaile erregularren esportazio bolumena handitzeko estrategiak bultzatzen jarraitzea, esportatzaile handiekiko mendekotasuna murrizteko. Aipatzekoa da, gainera, eskura dauden esportazioei buruzko datuek ez dituztela zerbitzuen esportazioak islatzen, baina Bizkaia arlo horretan espezializatuta dago, eta oinarri ona da hori aurrera egiteko.

Azkenik, lehiakortasun palanken inguruko erronkei begiratzuz gero, I+Gko gastuari lotutakoak bilakaera positiboa izan du azken bi urteetan, nahiz eta oraindik ez duen islarik patenteen adierazlean, jakintza berrikuntza bihurtzeko behar den denborarengatik.

Laburbilduz, Bizkaiko lehiakortasunaren diagnostikoa egitean, ekonomia eta finantza emaitza onak azpimarratu behar ditugu, jakinik emaitza horiek eragina dutela ongizatean. Gainera, lurraldeak giza kapitalean indargune nabarmena du, eta hori bultzatzen jarraitu behar da, merkataritza zerbitzu aurreratuetan espezializatuta dagoela kontuan hartuta. Azpimarratzeko da identifikatutako erronka gehienetan aurrera egin dela, baina ezin dugu ahaztu ahaleginak egiten jarraitu behar dela, bereziki gizarte eta demografia trantsizioan eta energia eta klima trantsizioan.

Bi trantsizioetan aurrera egiten jarraitu behar da

3

Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren bilakaera

Atal honetan xehetasunez aztertu dugu lurralde historikoa osatzen duten hamabi eskualdeen bilakaera (Bilbo izan ezik), lehiakortasunaren ikuspegitik. Aurreko atalean, Bizkaiko lehiakortasuna aztertzean, egin dugun bezala, oraingoan ere Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua hartu dugu erreferentziatzat. Esparruak bloke eta dimentsio berberak ditu, baina adierazleetan aldeak daude, hiru arrazoiengatik, funtsean: (i) kasu batzuetan, eskualde mailako daturik ez dagoelako, (ii) beste kasu batzuetan, azpieskualde mailan fenomeno hori hobeto neurtzen duten beste iturri batzuk daudelako, edo (iii) faktore batzuk garrantzitsuak direlako lurralde maila batean eta ez beste batzuetan. Aipatutako lehen kasuetan, bi aukeraren artean hautatu behar izan da: (i) adierazlearen ordez beste bat erabiltzea, aztertzen ari denaren zentzua galdu gabe (adibidez, zerga bilketaren adierazleek, eskualde mailan aztertuta, sektore publikoak lurraldean duen eragina neurtu nahi dute, baina eskualdeetan, biztanleko batez besteko udal gastua neurtu da, fenomeno hori neurtzeko beste bide bat delako eta datuak eskuragarri daudelako) edo (ii) adierazlea baliokide batekin ordezkatzea, eskualdeaz azpiko maila zehaztasun handiagoz neurtzen duen iturri bat erabilita (adibidez, enpleguari/langabeziari edo hezkuntza mailari lotutako adierazleetan, eskualdeko datuetarako Eustaten Jardueraren Udal Estatistikara jo da, INE-Espainiako Estatistika Institutuaren BAI-Biztanleria Aktiboaren Inkesta erabili ordez).

Eskualdeko diagnostikoak, ahal den guztietan, azken hamar urteak hartu ditu, datuak eskuragarri dauden heinean (2015-2024/2025 kasu batzuetan). Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila 2016tik bultzatzen ari den *Bizkaia Orekan Sakonduz* (BOS) eskualde garapenerako estrategiarekin bat, diagnostikoak estrategia horren barne egiten diren eskualde analisisietan lagundu nahi du, estrategia ezarri zenetik hamar urte betetzen direnean. Eskualdeen bilakaeraz gain, Bizkaiko Lurralde Historikoarekiko duten egoera ere hartzen da erreferentziatzat. Emaitzak interpretatzeko orduan, zehaztu behar da eskualdeko analisisian ez dela Bilbo sartzen, baina hiriburua Bizkaiko batezbestekoan sartuta dago, eta horrek konparazioa interpretatzean eragina du, batez ere Bilbok pisu esanguratsua duen adierazleetan.

BOS ekimenaren funtsezko elementuetako bat lehiakortasunaren garapen orekatua da. Horregatik, eskualdeen bilakaera konparatzean, ikuspegi hori aipatzen da, eta, hala badagokio, aztertutako aldiaren eskualdeen arteko aldeak murriztu diren egiaztatzen da, eskualde bakoitzak Bizkaiko batezbestekoarekiko duen egoeraren bilakaera aztertzeaz gainera. Horretarako, aldakuntza koefizienteak erabili dira; I. eranskinen jasotzen da horien xehetasuna. Bestalde, datuen interpretazio analisisian sa-

Eskualdeko diagnostikoa hamar urteko denbora ikuspegiarekin egin dugu, Bizkaia Orekan Sakonduz estrategiarekin bat

kontzeko, adierazle guztiak kontuan hartuta, korrelazio matrize bat prestatu da, eta ondorio nagusiak analisisan txertatu dira. Analisi horren helburua aldagaien arteko loturak identifikatzea da, emaitzetako batzuk azal ditzaketen faktoreak iradokitzeko. II. eranskinen, eskualde bakoitzeko fitxa bat dago, eta eskualdearen banakako analisi zehatzagoa erakusteko.

Diagnostikoan lurralde orekari buruzko analisia ere txertatu dugu

3.1 Bizkaiko eskualdeen egiturazko ingurunea

Lurraldearen egiturazko ingurunearen barruan, geo-demografiari, ekonomia eta enpresa egiturari eta erakunde egiturari eta balioei lotutako adierazleak aztertu dira.

Geo-demografia


Biztanleriari dagokionez, Ezkerraldea nabarmentzen da, tamaina absolutu handiagoa duelako (1. grafikoa). Ondoren datoz Eskuinaldea, Durangaldea eta Nerbioi-Ibaizabal. Guztiek hartzen duten Bizkaiko biztanleria osoaren % 5etik gora. Aztertu dugun aldiari Bizkaian biztanleriak gora egin duela ikusten bada ere, bereziki Uribe-Kosta, Txorierri, Mungialdea eta Busturialdea eskualdeetan, eskualde batzuek biztanleria galdu dute (Eskuinaldea, Meatzaldea eta Lea-Artibai).

Biztanleriari dagokionez, eskualdeen artean askotariko egoerak daude

Ezkerraldea eta Eskuinaldea dira biztanleriaren hiri kontzentrazio handiena duten eskualdeak, eta eskualde horietan, **dentsitate demografikoa** beste eskualdeen oso gaineratik dago (2. grafikoa). Beste muturrean, biztanle gutxiago dituzten eskualdeetan, hala nola Enkarterrin edo Lea-Artibain, **10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren biztanleen** ehunekoak handiagoak dira eta dentsitate demografikoa, txikiagoa (3. grafikoa).


Adierazle horiek biztanleria lurraldean modu desberdinean banatzen dela islatzen dute. Hala ere, aipatu behar da 2015etik 2025era alde horiek zertxobait murriztu direla eskualde guztietan.

1. GRAFIKOA Biztanleria (pertsonek)




Iturria: Eustat – Biztanleria. Geuk egina.

2. GRAFIKOA Dentsitate demografikoa (biztanleak km² bakoitzeko)



Iturria: Eustat – Biztanleria. Geuk egina.

3. GRAFIKOA 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleria (%)



Iturria: Eustat – Biztanleria. Geuk egina.

Beste ezaugarri demografiko batzuei dagokienez, hala nola **zahartze tasa** edo **atzerrian jaiotako biztanleriaren ehunekoa**, aipatutako lau eskualde horiek dituzte baliorik handienak: Eskuinaldea (biztanleriaren zahartze mailarik handiena), Ezkerraldea (atzerrian jaiotako biztanleriaren ehunekorik handiena), Lea-Artibai eta Busturialdea (4. eta 5. grafikoak). Hain zuzen ere, bi adierazleen artean korrelazioa dago, eta hori azal daiteke, neurri handi batean, atzerrian jaiotako biztanleriaren zati handi bat zaintza lanetan aritzen delako (Euskal Autonomia Erkidegoan, atzeritar jatorriko biztanleriaren bigarren lanbidea da —%10,1—, jabetxeen sektorearen ondoren —% 10,3—). Hala, biztanleriaren zahartze tasa handiena duten eskualdeek atzerrian jaiotako biztanle gehiago erakartzen dituzte.

Gainera, zahartzeak korrelazio positiboa eta nahiko altua du biztanleriarekin eta dentsitatearekin; horregatik, zahartze tasa handiagoa da hiriguneetan eta dentsitate handiko inguruetan. Badirudi horrek berretsi egiten duela adinekoak eta erretiratuak zerbitzu gehien dituzten hiriguneetara joaten direla (osasun zerbitzuak, aisialdikoak eta entretenimendukoak...). Ildo horretatik, zahartze tasaren eta merkataritza zerbitzu aurreratuen artean dagoen korrelazio positiboa hipotesi hori berresten duen ebidentzia bat izango litzateke.

Eskualde guztietan ari da biztanleria zahartzen, baina bilakaera ez da guztietan berdina: eskualde multzo zabal batean, tasa % 10 inguru handitu da; beste batzuetan, ordea, % 20 edo gehiago handitu da (adibidez, Eskuinaldean eta Meatzaldean; azken horrek, gainera, biztanleria galdu du). Era berean, atzerrian jaiotako biztanleriari dagokionez, oro har, bertakoa baino gazteagoa dela adierazi behar da. Horrela, etorkinen hazkunde hori geratu izan ez balitz, hiriguneetako biztanleriaren zahartze tasak are handiagoak izango lirateke. Berriz ere, badirudi horrek berresten duela adineko jendea eskualde jakin batzuk utzi eta hiriguneetara bizitzera joaten dela dioen hipotesia. Mugimendu horrekin, eskualde horien zahartze tasaren hazkundera moteldu egiten da eta hiriguneetakoa, berriz, bizkortu.

Atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoari dagokionez, Bizkaian nabarmen hazteaz gainera, aipatzekoa da aldakuntza oso desberdina dela eskualde batetik bestera. Korrelazio analisiak erakusten du atzerrian jaiotako biztanleen tasak handiagoak direla hiri eskualdeetan, biztanleriaren dentsitate handia dutenetan. Era berean, zerbitzu jardurekin duen korrelazio positiboak (nahiz eta askoz ere handiagoa izango litzatekeen kontuan hartuko liratekeen zerbitzuak hain aurreratuak izango ez balira: zaintza pertsonala, garraioa, ostalaritza...), eta zerbitzu horiek hiriguneetan duten pisu handiagoak azaltzen du zergatik den handiagoa atzerrian jaiotako biztanleen ehuneko handiagoa hiriguneetan.


Bestalde, atzerrian jaiotako biztanleriak korrelazio negatiboa du langabezia tasekin. Hau da, atzerrian jaiotako biztanleen ehuneko handiena duten eskualdeetan, langabezia tasak handiagoak dira. Horrek intuizioaren kontrakoa dirudi; izan ere, pentsa liteke biztanleria etorkina langabezia tasa txikieneko udalerrietara mugituko dela, horrek lana errazago aukeratzeko aukera emango liekeelako. Baina, egia esan, badirudi beste faktore batzuek pisu handiagoa dutela, bereziki atzerritar jatorriko pertsonentzat eskuragarriagoak diren sektoreen presentzia (zaintza pertsonala, ostalaritza, garraioa...) eta, aitzitik, industria enpleguak lortzeko zailtasun handiagoak. Zehazki, atzerritar jatorriko pertsonen % 12,5ek industria sektorean egiten du lan eta % 73,6k, zerbitzuen sektorean. Tamaina absolutuak eta hiriguneetan enplegu aukera handiagoak egoteak ere eragina izango luke horretan.

Adierazle horietan eskualdeen artean dauden aldeei dagokienez, azken hamar urteetan homogeneotasuna gero eta handiagoa dela nabarmendu behar da.

Eskualde guztietan handitu da zahartze tasa


Eskualde hiritarrenek eta zerbitzuetan espezializazio handiena dutenek hartzen dute atzerritar jatorriko biztanleriaren ehuneko handiena

4. GRAFIKOA Zahartze tasa



Iturria: Eustat – Biztanleria. Geuk egina.

5. GRAFIKOA Atzerrian jaiotako biztanleria (%)



Iturria: Eustat – Biztanleria. Geuk egina.

Ekonomia eta enpresa egitura

Eskualdeen ekonomia eta enpresa egiturari dagokionez, establezimenduen tamainarekin eta establezimendu edo sektore jakin batzuetako enpleguarekin lotutako alderdiak aztertu ditugu.

Tamainarekin lotutako adierazleek (**establezimenduen batez besteko tamaina, industria establezimenduen batez besteko tamaina, eta 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua**) korrelazio positiboa dute elkarren artean, hirurek neurtzen duten fenomenoak, neurri batean, gainezarri egiten baita.

Tamainari buruzko hiru adierazleak eskualde guztietan hazi dira aztertutako aldian (Txorierriko 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua izan ezik) (6., 7. eta 8. grafikoak). Joera hori positibotzat har daiteke, korrelazioak ikusten baitira adierazle horien eta emaitzen adierazleen (ongizatearen emaitzak eta ekonomia eta enpresa emaitzak) eta portaeren adierazleen (palankak) artean. Aipatzekoak dira biztanleko BPGa, enplegu tasa, I+Gko jarduerak, goi teknologiako edo erdi-goi teknologiako manufaktoretako enplegua edo hazkunde handiko enpresen ehunekoa.


Enpresen tamaina eta industria sektorearena eskualde guztietan hazi dira

Eskualde bakoitzak bere berezitasunak ditu ekonomia eta enpresa egiturari begiratuz gero, eta hori gero establezimenduen batez besteko tamainaren adierazleetan islatzen da, nolabaiteko heterogeneotasuna ikusten baita, txikiagoa industria establezimenduen kasuan. Alde horiek gora egin dute aztertzen ari garen urteetan. Bestalde, 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enpleguaren adierazlean, eskualdeen arteko sakabanatze erlatiboa ez da esanguratsua eta, gainera, behera egin du (homogeneotasun handiagoa).

Eskualde bat nabarmentzen da, establezimenduen tamaina handiagoa duelako: Txorierri. Eskualde horretako establezimenduetan, batez beste 13 langile daude eta industria establezimenduetan, 23, Zamudioko Parke Teknologikoan enpresa handiak daudelako. Bizkaiko batezbestekoa baino tamaina handiagoa duten beste eskualde batzuk Meatzaldea, Durangaldea eta Arratia dira; eta industria establezimenduei dagokienez, berriz, Lea-Artibai, Nerbioi-Ibaizabal eta Mungialdea. Beste muturrean daude Enkarterri eta Uribe-Kosta (Ezkerraldea, industria establezimenduei begiratuz gero).


50 langile edo gehiagoko establezimenduei dagokienez, berriro ere Txorierri nabarmentzen da, enpleguaren erdia baino gehiago horietan kontzentratzen baita. Haren atzetik daude Durangaldea, Ezkerraldea eta Arratia, hirurak Bizkaiko batezbestekoa gainetik. Enkarterri du horrelako establezimenduen presentzia txikiena, enplegu banaketari erreparatuz gero.

6. GRAFIKOA Establezimenduen batez besteko tamaina




Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

7. GRAFIKOA Industria establezimenduen batez besteko tamaina



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

8. GRAFIKOA 50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua (%)




Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Hurrengo adierazleek enplegua jarduera sektore bakoitzean zenbatekoa den neur-tzen dute, eta hori eskualdeetako ekonomia eta enpresa egiturarekin zuzeneko lo-tura duen beste elementu bat da. **Nekazaritza eta arrantzako enpleguak** soilik tradizioz jarduera horietara bideratutako eskualdeetan du nolabaiteko presentzia: Busturialdea, Lea-Artibai, Enkarterri eta Mungialdea (9. grafikoa). Gainerako eskual-deetan, guztizko enpleguan duten pisua oso txikia da (% 1 edo txikiagoa). Adierazle horren joera beheranzkoa da, baita aipatutako eskualdeetan ere.

Nekazaritzako eta arrantzako espezializazioak korrelazio negatiboa du lehiakorta-sun adierazleekin, zehazki, biztanleko BPGarekin eta produktibitatearekin (logikoa da hori, lehen sektoreak produktibitate txikiagoa baitu), eta, bereziki, biztanleriaren eta establezimenduen tamainarekin eta dentsitatearekin (logikoa hori ere, nekazaritzako

eta arrantzako ustiatgien tamaina txikiagoa baita). Aitzitik, korrelazio positiboa du atzerrian jaiotako biztanleriarekin (badirudi lehen sektorean atzerrian jaiotako langileen proportzio handiagoa dagoela —sektore horretako enpleguaren % 18 inguru—) eta natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguarekin (hori ere espero daiteke, lehen sektorea natur baliabideetan intentsiboa delako). Era berean, nekazaritza eta arrantza espezializazio handiagoa izateak korrelazio negatiboa du airearen kutsadurarekin.

9. GRAFIKOA Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Industria sektoreko enpleguari dagokionez, eskualde gehienetan Bizkaiko batez bestekoan baino pisu handiagoa du, Bilbok zerbitzuen sektorean duen pisuak baldintzatuta (10. grafikoa). Bizkaian, oro har, industria enpleguak pisua galdu du azken hamarkadan (ehuneko 0,8 puntu), neurri handi batean Bilboren eraginagatik eta hiri-buruak lurraldean duen garrantziagatik. Hala ere, industria enpleguak enplegu osoan duen proportzioa igo egin da tradizionalki industrialak izan diren eskualdeetan ez ezik –Durangaldea, Mungialdea eta Meatzaldea–, baita Nerbioi-Ibaizabalen eta Enkarterrin ere. Hala ere, industria enpleguak pisua galdu du eskualde batzuetan (Arratia, Busturialdea edo Uribe-Kosta).

Industria enpleguaren ehuneko handiena duten eskualdeak Durangaldea eta Lea-Artibai dira (% 35,9), eta, ondoren, Mungialdea eta Meatzaldea datoz. Horietako hiru (Mungialdea kenduta) industria sektoreko establezimenduen batez besteko tamaina handiagoagatik nabarmentzen ziren, izan ere, korrelazio positiboa dago bi aldagaien artean. Txorierri, aldiz, establezimenduen batez besteko tamaina altuena zuen, baina aipatutako eskualdeekin alderatuta, industria enpleguaren maila zertxobait txikiagoa da bertan.

Industria enpleguak garrantzi handiagoa du tamaina txikiagoa, biztanleriaren dentsitate txikiagoa, atzerrian jaiotako biztanleen presentzia txikiagoa eta lan merkatuaren egoera hobea (enplegu tasa handiagoak eta langabezia tasa txikiagoak) duten eskualdeetan. Korrelazio positiboa du bai emaitza ekonomikoen adierazleekin (biztanleko BPGa eta produktibitatea) eta bai palanken adierazleekin (I+Gko jarduerak, goi tek-


Bizkaian industria sektorearen pisuak behera egin badu ere, eskualde batzuetan gora egin du industria enpleguak

nologiako eta erdi-goi teknologiako manufaktura enplegua, natur baliabideetan intentsiboak diren industrietako enplegua edo kontsumo iraunkorreko edo ekipo ondasunetako industrietako enplegua).

Industria enpleguan eskualdeen artean dauden aldeei dagokienez, aipatzekoa da handitu egin direla, eta hori, neurri batean, eskualde bakoitzaren berezko ezaugarriekin bat datozen ekoizpen ibilbideak eta espezializazioak sendotzearen ondorio da.

Bestalde, industria establezimenduen tamaina handitzeak ez du ekarri industria sektoreak Bizkaiko ekonomian pisu handiagoa izatea. Horren atzean bi arrazoi egon daitezke: alde batetik, industria sektoreko enpleguak gainerako sektore ekonomikoetakoak baino bilakaera okerragoa izatea; edo, beste alde batetik, industria establezimenduen tamainaren hazkundera industria jarduera establezimendu gutxiagotan kontzentratzearen emaitza izatea, eta, horrela, industria sektoreko batez besteko tamainaren hazkundera doikuntzen eta unitate txikien galeraren ondorio izango litzateke, eta ez horrenbeste sektorearen hedapenaren ondorio.

10. GRAFIKOA Industria enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.


Bizkaia **merkataritza zerbitzu aurreratu**etan espezializatuta egoteak, neurri handi batean Bilboko errealitate ekonomikoaren ondorioz, sektore horretan enpleguaren proportzio handi bat kontzentratzea dakar, enplegu osoaren % 16,0 (11. grafikoa). Dagoeneko adierazi dugunez, industria enpleguan eskualdeen arteko aldeak handitu egin dira; merkataritza zerbitzu aurreratu

etako enpleguan, berriz, eskualdeen arteko aldeek bere horretan jarraitu dute aztertutako aldirian. Bizkaiko batezbestekoaren gainetik daude Txorierri (% 24,1) eta Eskuinaldea (% 18,5) eta, beste muturrean, Arratia (% 5,3). Azken hamarkadan, merkataritza zerbitzu aurreratu

Merkataritza zerbitzu aurreratuek korrelazio oso positiboa dute lehiakortasunerako funtsezko palankekin (I+Gko jarduerak, enpresen nazioartekotzea, garraio eta komunikazioetako azpiegituretara bideratutako azalera, goi mailako hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanleria), baita gizarte eta ekonomia ongizateko funtsezko adierazleekin ere (biztanleko BPGa, batez besteko errenta pertsonala, hazkunde handiko enpresak, enplegu tasa).

Merkataritza zerbitzu aurreratuen pisuak lotura positiboa du lehiakortasunerako funtsezko faktoreekin

11. GRAFIKOA Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Erakunde egitura eta balioak

Biztanle bakoitzeko batez besteko udal gastuak (eurotan) aldakuntza handiagoak edo txikiagoak ditu eskualdeen arabera, baina guztietan hazi da aldiaren hasieratik amaierara arte (12. grafikoa). Nabarmentzekoa da gastu hori 2020an eskualde guztietan murriztu zela, COVID-19aren krisiaren ondorioz aldi baterako doikuntzak egin behar izan zirelako.

Udal gastua eskualde guztietan hazi da


Adierazle horretan nolabaiteko oreka dago eskualde mailan, eta ia ez da aldatu aldiaren hasieratik amaierara. Desberdintasun horiek udalerriko jarduera ekonomikoaren ondorio den udal bilketan eragina duten beste faktore batzuen artekoak baino txikiagoak direnez (adibidez, sortutako BPGa), ziur aski udalaren diru sarreraren beste iturri batzuek, esate bateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren transferentziek, neurri batean alde horiek konpentsatuko zituzten, eta handiagoak izatea saihestu.

Txorierri, Meatzaldea, Lea-Artibai eta Arratia eskualdeetan batez besteko udal gastua Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da (1.643,9€). Beste muturrean daude Eskuinaldea, Ezkerraldea, Nerbioi-Ibaizabal edo Enkarterri.

Bestalde, aipatzekoa da adierazleak korrelazio negatiboa duela biztanleriaren tamainarekin eta dentsitate demografikoarekin, eta horrek erakusten du biztanle gutxien duten eskualdeetan beharrezkoa dela biztanleko gastu publiko handiagoa egitea. Aitzitik, biztanle bakoitzeko udal gastuak korrelazio positiboa du establezimenduen tamainarekin eta biztanleko BPGarekin, eta horrek esan nahiko luke establezimenduen

tamaina handiagoak eta biztanleko BPG handiagoak udalei aukera ematen diela diru gehiago biltzeko eta biztanleko udal gastu handiagoa egiteko, udalaren zor publikoa areagotu gabe, adierazle horren eta biztanleko udal zorraren artean korrelaziorik ez egoteak erakusten digun bezala.

12. GRAFIKOA Biztanleko batez besteko udal gastua (€)



Iturria: Eustat – Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak. Geuk egina.

3.2 Bizkaiko eskualdeetako pertsonen ongizatea

Ongizate blokearen barruan, adierazleak bost dimentsiotan sailkatzen dira: bitzitza materiala, enplegua, gizarte bitzitza, ikaskuntza, eta ingurumena.

Bizitza materiala


Errenta pertsonalaren adierazlean oreka ikusten da; gainera, adierazle hori eskualde guztietan hazi da

Batez besteko errenta pertsonalak lurralde batean bizi diren pertsonak jasotzen duten batez besteko diru sarrera neurtzen du. Beraz, biztanleriaren ongizate ekonomiko materialerako hurbilketa zehatzagoa da biztanleko BPGa baino, azken horrek pertsona bakoitzak sortutako ekoizpen ekonomikoa neurtzen baitu, eta ez ditu beti islatzen diru sarrera errealak ezta biztanleriaren artean nola banatzen diren ere. Batez besteko errenta pertsonalak korrelazio argia du ongizateko beste adierazle batzuekin: batez besteko errenta pertsonal handiena duten eskualdeetan, oro har, lan-gabezia tasak txikiagoak izaten dira eta biztanleriak hezkuntza maila handiagoa du.

Batez besteko errenta pertsonalaren mailek nolabaiteko homogeneotasuna erakusten dute eskualdeen artean. Aztertutako aldirian, adierazle horrek eskualde guztietan izan duen hazkundeak eskualdeak elkarrengana hurbiltzea ekarri du (13. grafikoa). Joera horrek lurralde kohesioa indartzen du, bertako biztanleen artean ongizate material orekatuagoa ziurtatzen baitu.

Batez besteko errenta pertsonal handiena duten eskualdeak Eskuinaldea, Mungialdea, Uribe-Kosta eta Txorierri dira. Durangaldea eta Arratia ere Bizkaiko batezbestekoaren zertxobait gaineratik daude (21.451,6 €). Bestalde, Ezkerraldeak eta Enkarterrik dituzte baliorik txikiak.

13. GRAFIKOA Batez besteko errenta pertsonala (€)



Iturria: Eustat – Pertsonen eta familien errentaren estatistika. Geuk egina.


Langabezia

Langabeziaren dimentsioan, **langabezia tasa** aztertu dugu lehenengo. Eskualdeen bilakaerak erakusten du langabeziak azken hamarkadan behera egin duela, nahiz eta 2020tik 2021era gorakada txiki bat izan, COVID-19aren pandemiak eragindako ondorio ekonomikoekin lotuta (14. grafikoa). Hala ere, hobekuntza horrek eskualdeen arteko aldeak handitzea ekarri du, eta, horrela, langabezia tasa txikienak dituzten eskualdeek jaitsiera nabarmenagoak izan dituzte maila handienak dituztenek baino. Aldeak handitu badira ere, homogeneousitasun maila nabarmena da lurralde osoan, langabeziari begiraturaz gero.

Langabezia tasak behera egin du oro har

Eskualde gehienak Bizkaiko batez besteko langabezia tasaren azpitik daude (% 8,2), eta guztien artean, Txorierri nabarmentzen da, mailarik txikiena baitu (% 5,0); haren atzetik daude Mungialdea, Lea-Artibai eta Uribe-Kosta. Aitzitik, Ezkerraldean, Enkarterrin, Meatzaldean eta Nerbioi-Ibaizabalen dituzte langabezia mailarik handienak.

14. GRAFIKOA Langabezia tasa



Iturria: Eustat – Jardueraren Udal Estatistika. Geuk egina.


Langabezia tasak lanik gabe dauden pertsonen proportzioa aztertzen du, langabezian daramaten denbora edozein izanik ere. **Iraupen luzeko langabezia tasak**, berriz, lan bila hamabi hilabete edo gehiago daramatzaten pertsonen langabezia neurtzen du, eta, beraz, hobeto islatzen du langile kalteberenen, hau da, enplegarritasun arazo handienak dituztenen egoera. Eskualdeen arteko aldeak nabarmenagoak dira iraupen luzeko langabezia tasetan une jakin bateko langabezia tasetan baino. Izan ere, iraupen luzeko langabezia tasetan egiturazko faktoreak nagusitzen dira (demografikoak edo sektore espezializazioa, adibidez), eta horiek eskualde batetik bestera aldatzen dira; koiunturazko langabeziak, berriz, lotura handiagoa du ziklo ekonomikoarekin eta haren berehalako ondorioekin, eta, horiek, oro har, modu homogeenagoan eragiten diote lurralde osoari. Hala, ondorio horien intentsitatea eskualde guztietan berdina ez bada ere, aldeak nabarmenagoak dira epe ertainean, hau da, egiturazko langabezian.

Iraupen luzeko langabezia tasaren arteko aldeak handitu egin dira eskualdeen artean

Langabeziaren adierazlean baino neurri txikiagoan bada ere, iraupen luzeko langabezian dauden aldeak ere gora egin dute aztertutako aldiaren. Ildo horretatik, azpimarratu behar da, lan merkatuan lurraldean konbergentzia handiagoa lortzeko, bereziki garrantzitsua dela iraupen luzeko langabeziaren beherakada orokorra handiagoa izatea egiturazko langabezia horren eragin handiagoa duten eskualdeetan.

Bizkaiko eskualdeetako emaitzetan ia ez da alderik ikusten bi adierazleen artean: Lea-Artibaik eta Txorierrik dituzte iraupen luzeko langabezia mailarik txikiak (% 2,1 eta % 2,2, hurrenez hurren), eta Ezkerraldea, Enkarterri eta Meatzaldea, berriz, Bizkaiko batez besteko mailaren gainetik daude (% 4,2) (15. grafikoa). Iraupen luzeko langabeziaren adierazlearen bilakaera orokorra beheranzkoa da, guztizko langabeziaren kasuan gertatzen zen bezala.

15. GRAFIKOA Iraupen luzeko langabezia tasa



Iturria: Lanbide. Geuk egina.

Enplegu tasetan dagoen genero arrakalan, gizonen enplegu tasaren eta emakumeen enplegu tasaren arteko aldeaz baliatuta neurtuta —ehuneko puntutan—, eskualde gehienak Bizkaiko batezbestekoa (6,2 puntu) baino hobeto daude. Kontuan hartu behar da lurraldeko batezbestekoa Bilboren eraginak baldintzatzen duela (16. grafikoa).

Adierazle horrek korrelazioa du lan merkatuaren egoerarekin: zenbat eta handiagoa izan langabezia tasa (eta txikiagoa enplegu tasa), handiagoa da arrakala. Halaber,


egiazatu da enplegu tasetan dagoen genero arrakalak korrelazio positiboa duela dentsitate demografikoarekin. Atzerrian jaiotako biztanleen ehuneko handiena duten eskualdeetan, aldiz, enplegu tasetan txikiagoa da genero arrakala. Bestalde, genero arrakalak oso korrelazio handia eta negatiboa du biztanleriaren hezkuntza mailarekin, eta horrek iradokitzen du genero arrakala handiagoa duten eskualdeetan, arrakala hori hezkuntza mailaren goera bultzatuta murriztu daitekeela.

Genero arrakalak korrelazio positiboa du dentsitate demografikoarekin

Eskualdeen arteko bilakaera askotarikoa izan denez, aldiaren amaieran homogeneotasun txikiagoa ikusten da eskualdeen artean, lan merkatuko genero desberdintasunei begiratuz gero.

Genero arrakala txikiena Mungialdeak du (3,4 puntu), eta Nerbioi-Ibaizabalek, Meatzaldeak, Ezkerraldeak eta Durangaldeak Bizkaiko batezbestekoa gainditzen dute. Eskualde horietan (Meatzaldean izan ezik), Busturialdean eta Eskuinaldean, genero arrakala handitu egin da azken hamarkadan, eta gainerakoetan, murriztu.

16. GRAFIKOA Genero arrakala enplegu tasetan (ehuneko puntuak)



Iturria: Eustat – Jardueraren Udal Estatistika. Geuk egina.

Gizarte bizitza


1.000 biztanleko delituen indizeak, pertsonen arteko konfiantza mailara hurbiltzeko adierazleak, korrelazio apur bat positiboa du dentsitate demografikoarekin eta langabezia tasarekin, eta hori bat dator hirien ezaugarriekin. Izan ere, hirietan, inpersonaltasun maila handiagoa da eta gizarte kontrola txikiagoa, eta langabezia tasa handiagoak premiak areagotzen ditu; horrek guztiak kriminalitate handiagoa ekar dezake. Hala ere, delituen tasaren korrelazio negatibo esanguratsuenetako bat atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoarekin duena da, eta hori immigrazioa kriminalitatearekin lotzen duen ideia zabalduaren aurka doa.

Delituen indizeak korrelazio negatiboa du atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoarekin

Adierazle horrek nolabaiteko homogeneotasuna du eskualdeen artean, eta, gainera, aztertutako aldiaren areagotu egin da. Beraz, bi ondorio nabarmendu behar ditugu: batetik, delituen indizearen joera orokorra goranzkoa izan da, eta, bestetik, ez da alde esanguratsurik ikusten herritarren segurtasunaren adierazle horretan. Joera hori kontuan hartzea funtsezkoa da gizarte kohesioa babesteko eta lurralde integratuago baten alde egiteko.

Delituen indizean, Mungialdea, Durangaldea eta Lea-Artibai nabarmentzen dira, mai-larik txikiak dituztelako; aldiz, bi eskualdek gaintzen dute Bizkaiko batez besteko indizea: Txorierri eta Meatzaldea (17. grafikoa). Hain zuzen ere, Meatzaldea eta Busturialdea dira, aldiaren hasieratik amaierara bitartean, delitu indizea murriztea lortu duten eskualde bakarrak.

17. GRAFIKOA Delituen indizea (1.000 biztanleko)



Iturria: Eusko Jaurlaritza – Udalerrietako iraunkortasun adierazleak. Geuk egina.

Ikaskuntza

Hezkuntza mailak korrelazio positiboa du biztanleko BPGarekin eta batez besteko errenta pertsonalarekin, baita enplegu tasa handiagoekin ere. Era berean, hezkuntza maila langabezia tasa txikiagoekin, enpleguan genero arrakala txikiagorekin, I+G jardueren intentsitate handiagorekin eta delitu indize txikiagorekin lotzen da. Horrek adierazten du bere horretan helburu bat izateaz gainera (ongizatearekin zuzeneko lotura duelako), beste helburu batzuk lortzeko bitarteko bat ere badela (ekonomia eta ongizate emaitzetan, zeharka bada ere, eragiten duen palanka baita). Era berean, hezkuntza mailaren korrelazio maila handiagoa da zerbitzu aurreratuek pisu handiagoa duten eskualdeetan, eta txikiagoa, aldiz, nekazaritza eta arrantzak eta industriak pisu handiagoa duten eskualdeetan.

Ikaskuntzaren eremuan, lurralde oreka dago


Eskualdeen arteko alde erlatiboak aztertuta, ikus daiteke hezkuntzaren esparruan homogeneotasun maila handia dela, eta gero eta handiagoa, gainera.

Uribe-Kostak gainerako eskualdeek baino kualifikazio maila handiagoa du, eskualde horretan **25-64 urte arteko biztanleriaren % 87,2k ditu goi mailako bigarren hezkuntzako edo hirugarren hezkuntzako ikasketak** (18. grafikoa). Bizkaiko batez bestekoaren (% 76,0) gainetik daude, halaber, Eskuinaldea, Mungialdea, Txorierri eta Busturialdea. Nerbioi-Ibaizabal eta Ezkerraldea eskualdeek dituzte mailarik txikiak adierazle horretan. Gainera, adierazle horrek gora egin du eskualde guztietan, azken lau urteetan.

Adierazle horren bilakaera positiboak eta eskualdeen arteko homogeneotasun mailak konnotazio positiboak ditu ongizateari begiratuta eta lehiakortasunaren palanka gisa.

18. GRAFIKOA

Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanleria (%)



Iturria: Eustat - Jardueraren Udal Estatistika. Geuk egina.

Ingurumena


Ingurumenaren dimentsioan bi adierazle aztertu ditugu. Alde batetik, airearen kalitatea. Adierazle horrek korrelazio positibo arina du biztanleriaren tamainarekin eta dentsitate demografikoarekin, eta faktore horiek, aldi berean, zerbitzuetako jarduerekin (industriakoeekin baino gehiago) eta biztanleko BPG handiagoarekin lotuta egon ohi dira. Eskualdeen egoerari dagokionez, kutsadura mailen beheranzko joera orokorra da, eta eskualdeen arteko aldeak ez dira oso handiak. Gainera, alde horiek behera egin dute aztertutako aldiaren. Horrek adierazten digu ingurumenaren arloan modu orekatuan ari dela aurrera egiten, lurraldeko eskualdeei begiratuta.

Ingurumenari dagokionez, aurrerapausoak orekatuak dira eskualdeen artean

Adierazleak emaitza positiboagoak ditu Lea-Artibain, Mungialdean eta Busturialdean, **airearen kutsadura** urteko $4,8\mu\text{g}/\text{m}^3$ ingurukoa baita, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa ($7,6\mu\text{g}/\text{m}^3$) (19. grafikoa). Durangaldeak du airearen kalitaterik txarrena; kontuan hartu behar dugu oso eskualde industrialak dela eta lurreko garraio linea garrantzitsuek zeharkatzen dutela. Enkarterrin ere handia da kutsadura maila, eta, gainera, eskualde horretan bakarrik igo da maila hori azken hamar urteetan.

19. GRAFIKOA

Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena. Geuk egina.

Bestalde, **hondakinen edukiontzietako gaikako bilketaren** adierazlean, korrelazioen azterketak erakusten du edukiontzietako gaikako bilketak garrantzi handiagoa duela biztanleria eta dentsitate demografiko txikiagoko eskualdeetan, eta biztanleko udal gastu, biztanleko BPG eta batez besteko errenta pertsonal handiagoa dutenetan. Ingurumenaren arloko bigarren adierazle horretan, joera orokorra positiboa izan da, baina eskualdeetan ez da hurbileko joerarik izan, batezbestekoarekin alderatuta. Horrek iradokitzen du hiri hondakin solidoen kudeaketaren hobekuntzak ez direla erritmo berean gertatzen ari eskualde guztietan, egindako ahaleginen intentsitatea-gatik edo eraginkortasunagatik.

Adierazle horretan, Lea-Artibai nabarmentzen da berriro (166,2 kg biztanleko urtean), eta nabarmen handitu du, gainera, gainerako eskualdeekiko tartea. Bigarren tokian Txorierri dago (20. grafikoa). Beste muturrean Ezkerraldea eta Enkarterri daude. Eskualde guztiek hobetu dituzte hondakinen bilketa mailak aztergai dugun aldiaren hasieratik amaierara bitartean.

20. GRAFIKOA Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)



Iturria: Eusko Jaurlaritza - Hiri hondakin solidoen estatistika. Geuk egina.

3.3 Bizkaiko eskualdeetako ekonomia eta enpresa emaitzak

Atal honetan, errendimendu ekonomiko orokorrari eta enpresen errentagarritasunari eta ekintzailtzari lotutako emaitzak aztertu ditugu.

Errendimendu ekonomikoa


Biztanleko BPGa, biztanleko ekoizpen ekonomikoaren batez besteko maila neurtzen duen adierazlea, batetik sektore egiturak eta balio erantsi handiko jardueretako espezializazioak baldintzatzen dute (ratioaren zenbakitzearekin eragiten baitute) eta, bestetik, biztanleria egoiliarak eta laneko mugikortasun geografikoak (ratioaren izendatzearekin eragiten dute). Zehazki, merkataritza zerbitzu aurreratuetan espezializatuta dauden eta establezimendu handiagoak dituzten eskualdeek (I+G jarduerak egiten dituztenak eta beste eskualde batzuetan bizi diren langileak erakartzen dituztenak) emaitza hobekiak dituzte adierazle honetan. Horrek azaltzen du eskualdeen ar-

tean desberdintasun esanguratsuak egotea. Hala ere, eskualde guztietan handitu egin da langile bakoitzeko batez besteko aberastasuna, eta, horrekin batera, eskualdeen arteko aldeak murriztu egin dira. Horrek agerian uzten du aztertutako aldiaren lurraldearen arteko konbergentzia gero eta handiagoa dela.

Errendimendu ekonomikoaren adierazle horretan, Txorierri nabarmentzen da, eskualdeko biztanleko BPGa Bizkaia osokoa halako lau baita, Zamudioko Parke Teknologia bertan dagoelako (180.629,8€ eta 43.254,3€, hurrenez hurren) (21. grafikoa). Lurraldeko batezbestekoaren gaineratik, baina tarte txikiagora, Meatzaldea, Durangaldea eta Arratia daude. Bestalde, Ezkerraldea eta Enkarterri dituzte baliorik txikiak.

Eskualde guztietan handitu da biztanleko BPGa eta, horrekin batera, eskualdeen arteko aldeak murriztu dira

21. GRAFIKOA Biztanleko BPGa (€)



Iturria: Eustat – Kontu ekonomikoak. Geuk egina.


Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatearen azterketak, balio erantsi gordinaren eta enpleguaren arteko zatiduraren bidez neurtzen denak, errendimendu ekonomikoaren analisia osatzeko aukera ematen du. Eskualde bakoitzaren produktibitate mailan eragina du bere sektore espezializazioak; izan ere, oro har, produktibitatea handiagoa da industrian eta jakintzan aurreratuak diren zerbitzuetan, txikiagoa nekazaritzan eta arrantzan, eta ertaina eraikuntzan eta gainerako zerbitzuetan.

Enplegua BEGarekin harremanetan jartzen denean, eskualdeen arteko aldeak biztanleko BPGan ikusitakoak baino askoz ere txikiagoak dira. Kontuan hartu behar da azken adierazle horrek eskualdeetan hartzen duen balioan eragin nabarmena dutela langileen eskualde arteko mugimenduek. Hala ere, aldeak handitu egin dira adierazle horretan: produktibitatearen hobekuntza orokorrak ez du eskualdeen artean oreka handiagoa ekarri, aurrerapausoak norik bere erritmo eta intentsitatean egin dituelako eta, horrekin batera, eskualde bakoitzak bere ekoizpen espezializazioa duelako.

Aztertutako aldiaren adierazleak gora egin du eskualde guztietan (22. grafikoa). Azken urteko igoera handiaren ondorioz, Meatzaldea (industrian espezializatutako eskualdea) du, aldi osoa hartuta, langile bakoitzeko itxurazko produktibitate handiena (124,6 mila €). Durangaldea (espezializazio industrial handikoa) eta Txorierri (zerbitzu aurreratuetan espezializatua) ere Bizkaiko batez besteko produktibitatearen gaineratik daude. Gainera, biztanleko BPGan ere maila handia zuten. Beste muturrean Enkarterri eta Eskuinaldea daude.

Produktibitateak gora egin du eskualde guztietan

22. GRAFIKOA Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (mila €)




Iturria: Eustat – Kontu ekonomikoak. Geuk egina.

Enpresa errentagarritasuna

Errentagarritasun ekonomikoak (ROA, *Return on Assets*) enpresak bere aktiboan inbertituta dagoen euro bakoitzeko errendimendu handiagoa lortzeko duen gaitasuna neurtzen du (inbertsioa baliabide propioekin edo besterenekin finantzatu den alde batera utzita). Adierazle horretan, eskualdeen arteko aldeak ez dira handiak, eta, gainera, murriztu egin dira azken hamarkadan.

ROAri dagokionez, Uribe-Kosta lehen tokian dago (% 9,3), lau urtez jarraian gora egin ondoren; haren atzetik, Nerbioi-Ibaizabal dago (23. grafikoa). Bizkaiko batezbestekotik (% 6,4) gorako balioak dituzten gainerako eskualdeen artean, Enkarterri nabarmentzen da. Eskualde guztietan handitu da enpresen ROA aldia hasi eta amaitu bitartean, Lea-Artibain izan ezik. Eskualde horretan eta Durangaldean ROAk behera egin du azken urtean.

23. GRAFIKOA ROA (%)




Iturria: SABI– Balantzeen Anlisi Sistema Iberiarra. Geuk egina.

Finantza errentagarritasunak (ROE, *Return on Equity*) baliabide propioen gaineko errentagarritasuna neurtzen du. ROE nahiko homoginoa da eskualdeen artean, ROA bezala, eta, aurreko adierazleak bezala, honek ere beheranzko joera izan du. Kasu honetan, ROAren konbergentzia azaltzeko aipatu ditugun mekanismoez gainera, beharrezkoa da finantza egitura eta palanka efektua ere kontuan hartzea.

Errentagarritasun ratioak nahiko homoginoak dira eskualdeen artean

Azken urteko hazkunde handiaren ondoren, Uribe-Kostak du ROE handiena (% 16,2), eta ondoren, Mungialdeak (24. grafikoa). Mailarik txikiena Lea-Artibaik du, eta, gainera, azken bi urteetan behera egin du. Gainerako eskualdeetan, enpresek finantza errentagarritasun handiagoa lortu dute, aztertutako aldian. Horietan guztietan, ROE ROA baino handiagoa da, eta hori Bizkaiko batez besteko balioan islatzen da, hori ere handiagoa baita (% 11,4). ROE ROA baino handiagoa izateak esan nahi du zorra edo kanpoko baliabideak erabiltzeak kapital propioaren gaineko errentagarritasuna handitzen duela (palanka efektu positiboa).

24. GRAFIKOA ROE (%)



Iturria: SABI- Balantzeen Anlisi Sistema Iberiarra. Geuk egina.

Ekintzaitetza

Dimentsio honetan **hazkunde handiko enpresen kopurua** aztertu dugu, 1.000 biztanleko. Adierazle horretan alde nabarmenak daude eskualdeen artean, baina aldea nabarmen murriztu da duela hamar urtetik hona.


Hazkunde handiko enpresetan, eskualdeen arteko aldea murriztu egin da

Interesgarria da adierazle hori establezimenduen batez besteko tamainarekin lotzea, elkarren artean harreman osagarria eta bi noranzkoko agertzen baita. Alde batetik, hazkunde handiko enpresen presentziak establezimenduen batez besteko tamaina handitzen lagun dezake, epe laburrean. Bestalde, tamaina handiagoko establezimenduak ezaugarri dituen enpresa egiturak enpresen hazkunde ibilbidea erraztu dezake. Hain zuzen ere, bi adierazleek korrelazio positiboa dute. Baina harremana ez da uniforme eskualde guztietan. Hala, eskualde batzuetan hazkunde handiko enpresa asko egotea establezimenduen batez besteko tamaina handia izatearekin lotuta dago (Txorierri edo Durangaldean, adibidez) eta beste batzuetan, ordea, hazkunde handiko enpresen kopuru esanguratsua izan arren, establezimenduen batez besteko tamainak txikia izaten jarraitzen du (Mungialdean edo Lea-Artibain). Desberdintasun horiek beste faktore batzuen eragina islatzen dute, horien artean, enpresa eta sek-

tore egitura, enpresen gutzizko kopurua edo mikroenpresen pisua eskualde bakoitzean. Are gehiago, korrelazio positiboa dago merkataritze zerbitzu aurreratuetako enpleguaren, I+G garatzen duten establezimenduen, I+Gko gastuaren, eta hazkunde handiko enpresen artean (horrek azaltzen du adierazleak balio handia izatea Txorierriin, bertan baitago Zamudioko Parke Teknologikoa).

Adierazle horretan, Txorierri nabarmentzen da, 2,7 enpresarekin (25. grafikoa). Gainerako eskualdeetan (eta Bizkaiko eta EAeko batezbestekoetan), adierazlea 1etik behera gelditzen da. Neurri handiagoan edo txikiagoan, hazkunde handiko enpresen kopuruak gora egin du azken hamarkadan, adierazle hori oso lotuta baitago koiuntura ekonomikoarekin (hazkunde ekonomikoko aldietan hazten da).

25. GRAFIKOA Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

3.4 Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren palanka dinamikoak


Azken atal honetan, lehiakortasunaren palanka dinamikoetako dimentsioak aztertutakoak dira: kapital naturala, kapital fisikoa, finantzaketa, jakintza, giza kapitala, eta gizarte eta erakunde kapitala.

Kapital naturala

Dimentsio honetan, alde batetik, **instalaturako energia berriztagarrien potentzia** aztertutakoa da, kW 10.000 biztanleko. Adierazle horrek korrelazio positiboa du biztanleko BPGarekin. Era berean, korrelazio negatibo samarra dago biztanleriaren dentsitatearen eta instalaturako energia berriztagarrien potentziaren artean, eta horrek logikoa dirudi: energia berriztagarri gehiago instalatzen dira biztanle gutxiagoko eremuetan. Berriztagarrietan potentzia handiena duten eskualde gehienek (Arratia, Durangaldea, Lea-Artibai eta Txorierri) Bizkaiko batezbestekoa baino biztanleria dentsitate txikiagoa dute (Bilbok eragin handia du batezbesteko horretan). Adierazle horretan heterogeneotasun maila handia dago eskualdeen artean, baina aldea nabarmen estutu da aldiaren hasieratik amaierara.

Arratia nabarmentzen da bereziki, 20.982 kW-ko potentzia baitu 10.000 biztanleko, hurrengo eskualdekoa (Durangaldea) baino bost aldiz handiagoa (26. grafiko). Bizkaiko batez besteko balioa gainditzen dute, halaber, Meatzaldea, Lea-Artibaik eta Txorierri ere, eta hazkunde esanguratsuak izan zituzten 2021ean eta 2023an. Arratian izan ezik, eskualde horretan instalatutako potentzia egonkor mantendu baita, adierazle horren joera positiboa izan da gainerako eskualde guztietan

26. GRAFIKOA Instalatutako energia berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)




Iturria: Eusko Jaurlaritzak – Udalerrietako iraunkortasun adierazleak. Geuk egina.

Bestalde, **natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguak** guztizko enpleguan hartzen duen proportzioa aztertuta, Busturialdean hartzen du ehunekorik handiena (% 17,0), eta, Enkarterriekin batera, Lea-Artibairen aurretik dago orain (azken eskualde hori nekazaritzan eta arrantzan espezializatuta dago) (27. grafiko). Beste muturrean Ezkerraldea eta Eskuinaldea daude. Beraz, adierazle hori handiagoa da hain hiritarrak ez diren eskualdeetan, eskualde horietan nekazaritza eta arrantza sektoreek pisu handiagoa baitute eta enpresa tamaina txikiagoa da. Hori horrela izanik, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren pisuak alde esanguratsuak ditu eskualdeen artean, nahiz eta aldeak pixka bat murrizten ari diren. Nabarmendu behar da, neurri handiagoan edo txikiagoan, sektore horietako enpleguaren pisuak behera egin duela eskualde guztietan, aldi hasierako balioekin alderatuta.

Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren pisuak behera egin du eskualde guztietan

27. GRAFIKOA Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)



Iturria: Eustat – Kontu Ekonomikoak. Geuk egina.


Kapital fisikoa

Nolabaiteko konbergentzia ikusten da garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera, nahiz eta eskualdeen egoera heterogeneoa izan

Dimentsio horretan, lehenik eta behin, **garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera** jasotzen da. Adierazle horrek heterogeneotasun nabarmena du eskualdeen artean, baina ez ditu nahitaez desorekak islatzen, hainbat ezaugarri lotutako desberdintasunak baizik: tamaina, kokapena, orografia, ekonomia egitura... Tamaina handieneko establezimenduak eta I+Gko jarduerak egiten dituzten enpresak dituzten eskualdeek emaitza hobeak dituzte adierazle horretan. Hala ere, azken hamar urteetan konbergentziarako joera nabaritzen da, eta horrek iradokitzen du oinarrizko azpiegiturek azpiegitura gutxiago zituzten eskualdeetara ere hedatu direla. Horrekin batera aipatzekoa da lurzorua efizientzia handiagoz erabili dela eta eskualde aurreratuenetan azpiegitura berrien nolabaiteko saturazioa dagoela.

Eskualde gehienetan, adierazlea gutxi aldatu da, eta joera orokorra positiboa izan da, Ezkerraldean, Meatzaldean, Txorierri eta Enkarterri izan ezik (28. grafikoa). Eskuinaldea, Bilboko metropolian dagoenez, azpiegitura mota horietara bideratutako azalera handiena duen eskualdea da (% 6,1), eta, ondoren, Txorierri, Meatzaldea eta Ezkerraldea daude (Ezkerraldea zen, aldiaren hasieratik 2017ra arte, ehuneko handieneko eskualdea).

28. GRAFIKOA Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Udalerrietako iraunkortasun adierazleak. Geuk egina.

Bigarren, **kontsumo ondasun iraunkorren edo ekipo ondasunen industrietako enpleguaren** ehunekoari dagokionez, kontuan hartu behar da industria horiek izaera zikliko nabarmena dutela, ondasun horiek erosketa zorpetzearen mende baitago, gainerako sektoreetan baino neurri handiagoan. 2016az geroztik, egoera ekonomikoa ona izan da, COVID-19ak eragindako urteetan izan ezik. 2022tik aurrera, bereziki, badirudi koiuntura aldeko izan dutela sektore horiek, eta enpleguan duten pisuak gora egin du.


Ekipo ondasunen industrietako enpleguaren pisua handitu egin da

Adierazle horrek lotura du goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufaktura-tako enpleguarekin eta I+Gko gastuarekin. Hau da, kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako teknologiko eta jakintzako osagai argia dute.

Eskualdeek heterogeneotasun esanguratsua dute industria mota horietako enpleguan, eta bakoitzak izan duen bilakaeraren eraginez, haien arteko aldeak handitu egin dira.

Adierazle horretan Txorierri nabarmentzen da (% 14,6) (29. grafikoa). Aldiaren amaieran, Bizkaiko batezbestekoaren (% 4,4) gainetik daude Lea-Artibai, Durangaldea, Meatzaldea, Arratia, Mungialdea eta Uribe-Kosta ere. Ezkerraldeak, Eskuinaldeak eta Busturialdeak dute espezializatorik txikiena industria mota horietan.

29. GRAFIKOA Kontsumo ondasun iraunkorren edo ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)



Iturria: Eustat - Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Finantzaketa

Dimentsio horren lehen adierazlea **enpresa ondare garbiak** pasibo osoaren gainean hartzen duen ehunekoa da. Adierazle horren balioa handia izateak finantza sendotasuna eta arrisku txikiagoa adierazten ditu. Aldakuntzen intentsitatea eskualde batzuetatik besteetara aldatzen bada ere, azken hamarkadan guztietan handitu da ondare garbiaren ehunekoa. Horrek esan nahi du enpresetako finantza egitura sendotu egin dela, oro har, funts propioak areagotu direlako. Testuinguru horretan, lurraldeen arteko aldeak pixka bat jaitsi dira, eta neurrikoak dira oraindik.


Eskualde guztietan ikusten da enpresen ondare garbia hazi dela, finantza sendotasunaren erakusle

Lea-Artibaik du baliorik handiena (% 57,6), ziurrenik enpresa kooperatiboen kontzentrazioagatik eta enpresa eredu horrek emaitza ekonomikoak eta bazkideen ekarpenak metatzea bultzatzen duelako. Haren atzetik datoz Durangaldea, Busturialdea,

Txorierri eta Uribe-Kosta, guztiak Bizkaiko batezbestekoaren (% 49,8) gainetik (30. grafikoa). Bestalde, Enkarterri eta Mungialdea dituzte baliorik txikienak.

Finantza egitura egokienari begiratu gabe, ondare garbiak % 40 eta % 60 artekoa izan beharko lukeela uste da, eta hori eskualde guztietan betetzen da.

30. GRAFIKOA Enpresen ondare garbia (mediana; pasiboaren %)




Iturria: SABI- Balantzeen Anlisi Sistema Iberiarra. Geuk egina.

Finantzaketarekin lotutako bigarren adierazlea, bestelako testuinguru batean bada ere, **tokiko administrazio publikoen biztanleko zorra** da. Tokiko administrazio publikoen zorpetze mailak korrelazio positiboa du zahartze tasarekin eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoarekin, eta korrelazio negatiboa hirugarren mailako hezkuntza duten herritarren ehunekoarekin. Adierazle horretan, eskualdeen arteko aldeak esanguratsuak dira, eta aldi amaieran, gainera, handitu egin dira.

Oro har, Bizkaiko tokiko administrazio publikoen zorraren maila orokorra txikia da (31. grafikoa). Ongien kokatuta dauden eskualdeak Uribe-Kosta eta Mungialdea dira, horietan hutsa edo hutsaren hurrengoa da biztanleko zorra. Eskualde gehienetan (Eskuinaldea, Arratia, Txorierri, Enkarterri, Durangaldea eta Nerbioi-Ibaizabalen), zorraren mailak Bizkaiko batezbestekoaren azpitik daude (65,8 €). Kontuan hartu behar da batezbesteko horretan eragin handia duela Bilboren zorpetze maila handiak. Baliorik handiena Lea-Artibaik du. 2020az geroztik, adierazle horrek behera egin du eskualde guztietan, Lea-Artibain, Meatzaldean eta Txorierri izan ezik.

31. GRAFIKOA Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)




Iturria: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa. Geuk egina.

Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoari dagokionez, eskualde gehienetako enpresen nazioartekotzean azken zazpi urteetan beheranzko joera ikusi da. Adierazle horren heterogeneotasunak behera egin du aztertutako aldiaren, eta horrek eskualdeetako enpresen nazioartekotzean konbergentzia erlatibo bat dagoela iradokitzen digu.

Enpresen nazioartekotzean konbergentzia prozesu bat ikusten da

Uribe-Kostak du baliorik handiena (% 8,8), eta eskualde gehienak Bizkaiko batezbestekoaren (% 6,0) gainetik daude (32. grafikoa). Meatzaldean, Nerbioi-Ibaizabalen eta Ezkerraldean daude nazioarteko presentzia duten enpresen ehuneko txikienak. Enkarterrin, Ezkerraldean eta Nerbioi-Ibaizabalen soilik handitu da enpresa horien ehunekoa.

32. GRAFIKOA Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)




Iturria: SABI- Balantzeen Anlisi Sistema Iberiarra. Geuk egina.

Eskualdeen artean oreka handiagoa dago atzerriko kapitala eskuratzeari dagokionez

Atzerriko akziodunak dituzten enpresen presentzia eskualde gehienetan handitu da azken zazpi urteetan, Mungialdean, Nerbioi-Ibaizabalen eta Uribe-Kostan izan ezik (33. grafikoa). Adierazle horren heterogeneotasun maila atzerrian eskumendekoak dituzten enpresena baino handiagoa da, baina behera egin du aldi horretan, nahiz eta jaitsiera txikiagoa izan. Horrek adierazten digu eskualdeen artean oreka erlatibo handiagoa dagoela atzerriko kapitala eskuratzeari dagokionez.

Adierazle horretan, Txorierri du ehunekorik handiena (% 11,7). Adierazle horrek korrelazioa du I+Gko adierazleekin (establezimendu kopurua, gastua eta pertsonala) eta horiek oso balio handiak dituzte aipatutako eskualdean. Aurreko adierazlean ez bezala, eskualde gehienak Bizkaiko batezbestekoaren (% 6,4) azpitik daude. Uribe-Kostan, Nerbioi-Ibaizabalen eta Ezkerraldean dituzte baliorik txikienak.

33. GRAFIKOA Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)




Iturria: SABI- Balantzeen Análisi Sistema Iberiarra. Geuk egina.

Eskualde hiritarrenek finantza sektoreko enpleguaren pisu handiagoa dute

Azkenik, **finantza sektoreko enpleguaren** pisuak korrelazio positiboa du biztanleriaren adierazleekin eta negatiboa, industria enpleguarekin. Beraz, ez da harritzekoa eskualde hiritarrenek eta zerbitzuetan espezializatuek izatea baliorik handienak (34. grafikoa). 2020az geroztik, finantza sektorearen enpleguak behera egin du eskualde guztietan (eta etorkizunean ere, jaisten jarraitzea espero da), Meatzaldean izan ezik, eskualde horretan pixka bat handitu baita. Adierazle horretan, eskualdeen arteko heterogeneotasuna pixka bat handitu da aztertutako aldi zehar.

Eskualde guztiek dituzte Bizkaiko batezbestekoaren azpiko balioak (% 1,9), batezbesteko hori Bilbok finantza sektorean duen enplegu kontzentrazio handiak baldintzatzen baitu. Finantza sektoreko enpleguaren ehunekorik handiena duten eskualdeak Ezkerraldea (% 1,5), Busturialdea eta Eskuinaldea (% 1,3) eta Uribe-Kosta (% 1,2) dira; Txorierri du baliorik txikiena (% 0,3).

34. GRAFIKOA Finantza sektoreko enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Jakintza

Jakintzaren dimentsioak hainbat adierazle aztertzen ditu, besteak beste, I+Gari lotuta.

Lehenengoa, Bizkaian **I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak** dira. Guztira 678 establezimendu dira, hau da, EAEko establezimendu guztien % 44,2 (35. grafikoa). Azken hamarkadan, adierazle horretan eskualdeen artean dagoen heterogeneotasun maila handia murriztu egin da. Txorierri du I+Gn aritzen diren establezimendurik gehien (137), Zamudioko Parke Teknologikoa bertan dagoelako. Horren ondoren datoz Durangaldea eta Eskuinaldea, bakoitza 99 establezimendurekin. Bizkaian (eta EAEn) I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduen kopuruak azken hamar urteetan behera egin badu ere, lurraldeko eskualde batzuetan hazi egin da enpresa horien presentzia, zehazki, Enkarterri, Ezkerraldea, Uribe-Kosta, Meatzaldea eta Eskuinaldean.

Adierazle hori biztanle kopuruarekin zatituz gero, berriz ere Txorierri da I+Gko jardueretan aritzen diren establezimendu gehien dituen eskualdea, Bizkaiko batezbestekoaren oso gaineratik (6,2 eta 0,6 **establezimendu 1.000 biztanleko**, hurrenez hurren) (36. grafikoa). Era berean, lurralde historikoaren batezbestekoaren gaineratik daude Durangaldea, Meatzaldea, Mungialdea eta Eskuinaldea. Adierazle horretan ere aldakuntza koefizienteak heterogeneotasun handia erakusten du, baina azken hamar urteetan heterogeneotasun horrek behera egin du.


Enpresen I+Gko gastuari dagokionez, BPGaren ehunekoan neurtua, adierazle horrek azken hamarkadan izan duen bilakaerak lurraldeen arteko aldeak pixka bat murrizten lagundu du, ia eskualde guztietan egin baitu gora gastu horrek. Txorierri du baliorik handiena (% 7,4), eta Durangaldea, Lea-Artibai, Mungialdea eta Busturialdea ere Bizkaiko batezbestekoaren (% 1,4) gaineratik daude I+Gko gastuaren intentsitatean (37. grafikoa).

Azkenik, **dedikazio osoko baliokidetzan (DOB) I+Gko jardueretan aritzen diren langileen** ehunekoak antzeko joera erakusten du. Aipatu berri ditugun eskualde horiek berak daude Bizkaiko batezbestekoaren (% 1,5) gaineratik, eta Txorierri du, be-

I+Gko adierazleetan eskualdeen arteko aldeak murriztu egin direla ikusten da


rriro ere, baliorik handiena (% 7,4) (38. grafikoa). Aurreko kasuan bezala, azken hamar urteetako goranzko joera orokorra nabarmendu behar da eta, horrekin batera, aldakuntza koefizientea murriztu egin dela. Horrek eskualdeen arteko heterogeneotasuna txikiagoa izatea dakar.

35. GRAFIKOA I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (kopurua)




Iturria: Eustat – I+G direktorioa. Geuk egina.


36. GRAFIKOA I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (1.000 biztanleko)



Iturria: Eustat – I+G direktorioa. Geuk egina.

37. GRAFIKOA I+Gko gastua (BPGaren %)

Iturria: Eustat – I+Gko estatistika. Geuk egina.

38. GRAFIKOA DBO*n* I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (guztizko enpleguaren %)


Iturria: Eustat – I+Gko estatistika. Geuk egina.

Dimentsio horretan, bi eremu zehatzetako enplegu adierazleak ere aztertu dira. Lehenengo, establezimenduen tamaina handia eta langabezia tasa txikia duten eskualdeetako industria enpleguarekin lotuta, **goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren** ehunekoaren adierazlea dugu. Adierazle hori nahiko heterogeneoa da eskualdeen artean. Hala ere, aldakuntza koefizienteak behera egin du, aldiaren hasierarekin alderatuta.

Epe luzera begira, adierazle horrek beheranzko joera du oro har, funtsean sektore horietan produktibitatearen hazkundera handiagoa delako, eta, horregatik, ekoizpen bera lor daitekeelako langile gutxiagorekin (beste sektore batzuetan, ordea, ez da hainbeste gertatzen). Joera orokor horren barruan, 2016tik aurrerako koituntura ekonomikoa aldekoa izan da, eta, horri esker, sektore horietako enpleguaren ehunekoa mantendu egin da 2016 eta 2025 artean (2016tik 2021era enpleguaren ehunekoa jaitsi egin zen, eta, gero, berreskuratu egin da), Ezkerraldean eta Uribe-Kostan izan ezik (39. grafikoa).

Adierazle horretan, Mungialdeak du baliorik handiena (% 14,4), eta haren atzetik daude Txorierrri, Lea-Artibai, Arratia, Durangaldea eta Meatzaldea, guztiak Bizkaiko batezbestekoa (% 4,1) baino balio handiagoekin. Beste muturrean, Ezkerraldeak du espezializazio mailarik txikiena sektore horretan.

39. GRAFIKOA Goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko enpleguko enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egin.


Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren pisuak gora egin du eskualde guztietan

Bigarren, **jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako (KIS) enpleguan**, eskualdeek ez dute heterogenotasun maila handirik, eta balioak konstante mantendu dira 2016 eta 2025 urteen artean. Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren pisuak gora egin du aldi horretan eskualde guztietan, Txorierrin izan ezik (eskualde horretan egonkor mantendu da), eta espero izatekoa da etorkizunean ere hazkunde joera horri eustea (40. grafikoa).

Adierazle horretan Uribe-Kosta nabarmentzen da, mailarik altuena baitu (% 52,2), nahiz eta aldiaren hasieran beste eskualde batzuen atzetik abiatu. Horrela, Eskuinaldea eta Ezkerraldea gainditu ditu, horiek ere jarduera horretan espezializatutako eskualdeak. Guztiak daude Bizkaiko batezbestekoaren gainetik (% 42,6). Enplegu horien kontzentrazio txikiena Nerbioi-Ibaizabalen, Meatzaldean eta Mungialdean ikusten da. Adierazle horrek korrelazio positiboa du biztanleriaren dentsitatearekin eta korrelazio negatiboa, berriz, industria enpleguarekin eta goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko enplegurekin.

Jakintzaren palankaren adierazleek, elkarren artean ez ezik, korrelazio positiboa dute errendimendu ekonomikoaren adierazleekin, bereziki biztanleko BPGarekin eta ekin-tzailatzarekin (hazkunde handiko enpresak). Ekoizpen egiturari dagokionez, korrelazio positiboa du tamaina handieneko establezimenduekin eta merkataritza zerbitzu aurreratuetan espezializatuekin edo kontsumo iraunkorreko eta ekipo ondasunetako industriekin. Era berean, korrelazio positiboa dute atzerriko akziodunak dituzten enprekin, eta horrek berrikuntzaren literaturaren argudioak berresten ditu, atzerriko kapitalaren jakintza ekarpena azpimarratzen baitute. Azkenik, jakintzaren adierazleek korrelazio negatiboa dute langabezia tasekin.

40. GRAFIKOA Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako (KIS) enplegua (%)



Iturria: Eustat – Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. Geuk egina.

Giza kapitala


Giza kapitalarekin lotutako lehen adierazlea **enplegu maila** da. Enplegu tasaren gozko joerak eskualdeen arteko aldeak murriztea eragin du, nahiz eta alde horiek berez ere ez ziren oso esanguratsuak. Ildo horretatik, eskualdeen artean lan merkaturako sarbide nahiko orekatua ikusten da.

Lan merkaturako sarbidea orekatua da eskualdeen artean

Enplegu tasak erlazio negatiboa du zahartze tasarekin. Biztanleriaren zahartzeak lan egin dezakeen lan indarra murrizten du, eta, ondorioz, landunen tasa globalaren gainean beheranzko presioa egiten du. Hala ere, zahartze tasak gora egin duen arren, enplegu tasak ere gora egin du, langabe asko zegoelako, eta horiek pixkanaka lanean hasi direlako. Langabezia tasak langabezia tasa naturaletara hurbiltzen ari direla kontuan hartuta, biztanleriaren zahartze progresiboak (biztanleria aktiboaren hazkuntza konpentsatu ezean) etorkizun hurbilean enplegu tasak gutxitzea ekarriko duela espero da. Era berean, enplegu tasak korrelazio positiboa du goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufakturatuko enpleguarekin, I+Gko adierazleekin eta establezimenduen batez besteko tamainarekin, baita batez besteko errenta erabilgarriarekin ere.

Eskualde gehienek Bizkaiko batezbestekoa (% 69,9) baino enplegu tasa handiagoak dituzte, eta nabarmentzekoak dira Txorierri, Arratia eta Uribe-Kosta, % 73-74 inguruko mailak baitituzte (41. grafikoa). Beste muturrean, Busturialdea, Meatzaldea, Ezkerraldea eta Enkarterri ez dira Bizkaiko batezbestekora iristen.

41. GRAFIKOA Enplegu tasa




Iturria: Eustat – Jardueraren Udal Estatistika. Geuk egina.

Gazteen hezkuntza mailetan bilakaera positiboa ikusten da eskualde guztietan

Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urteko biztanleen adierazlean, eskualdeek nolabaiteko homogeneotasuna dute (adierazle berarekin 25-64 urteko adin tarterako gertatzen zen bezala). Gainera, adierazle hori ia ez da aldatu. Adierazle horrek korrelazio positiboa du merkataritza zerbitzu aurreratuetako espezializazioarekin eta enpresen nazioartekotzearekin (atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak).

Uribe-Kostak du adierazle horretan baliorik handiena (% 73,5), eta, ondoren, Mungialdea, Eskuinaldea, Txorierri, Arratia, Durangaldea eta Busturialdea daude, guztiak Bizkaiko batezbestekoaren (% 61,4) gainetik (42. grafikoa). Aldiz, mailarik txikienak (% 54-55 inguru) Enkarterrin eta Ezkerraldean daude. Eskualde guztietan izan du bilakaera positiboa adierazle horrek.

42. GRAFIKOA Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (%)




Iturria: Eustat – Jardueraren Udal Estatistika. Geuk egina.

Gizarte eta erakunde kapitala

Dimentsio honetan, alde batetik, **udal hauteskundeetako parte hartze tasa** aztertutako dugu. Adierazle horren aldakuntza koefizienteak homogeneotasun maila handia erakusten du, 2023an 2019an baino pixka bat txikiagoa bada ere.

Eskualde gehienak Bizkaiko batezbestekoaren (% 60,2) gainetik daude, eta Enkarterri du tasarik handiena (% 72,4). Haren ondoren daude Busturialdea, Lea-Artibai, Txorierri, Arratia, Mungialdea, Durangaldea, Meatzaldea eta Uribe-Kosta (43. grafikoa). Parte hartze tasarik txikiena Ezkerraldea du, eta, horren atzetik, Nerbioi-Ibaizabalek eta Eskuinaldeak. Adierazle horrek korrelazio negatiboa du biztanleriarekin: zenbat eta txikiagoa izan eskualdea, handiagoa da udal hauteskundeetako parte hartze maila. Aipatzekoa da adierazle horren 2023ko emaitzak 2019koak baino txikiagoak izan zirela eskualde guztietan.


43. GRAFIKOA Udal hauteskundeetako parte hartze tasa

Iturria: Eusko Jaurlaritza – Udalerrietako iraunkortasun adierazleak. Geuk egina.

Bestalde, **alkate emakumeen** adierazlean, bost eskualdek % 50eko edo hortik gorako ehunekoak dituzte: Ezkerraldea, Eskuinaldea, Uribe-Kosta, Durangaldea, Lea-Artibai eta Txorierri (44. grafikoa). Horietan guztietan, balio hori mantendu edo handitu egin da 2019tik 2023ra. Alkate emakume gutxiago daude Nerbioi-Ibaizabalen.

Azken adierazle horrek nolabaiteko heterogeneotasuna islatzen du eskualdeen artean, nahiz eta 2019 eta 2023 artean heterogeneotasun hori murriztu egin den.

44. GRAFIKOA Alkate emakumeak (%)



Iturria: Lurralde Politikako Ministerioa. Geuk egina.

3.5 Bizkaiko eskualdeetako lehiakortasunaren bilakaeraren ondorioak

Bizkaiko eskualdearen analisisian, alde batetik eskualdeen kokapena eta bilakaera aztertu dugu, lehiakortasunaren eta ongizatearen dimentsioetan, eta, beste alde batekin, eskualde horien konbergentziari begiratu diogu, lurralde orekan aurrerapausorik izan den jakiteko, horixe baita Bizkaiko Foru Aldundiaren *Bizkaia Orekan Sakonduz* estrategiaren helburua. Gainera, Esparruko adierazleen arteko erlazioak ere agerian jarri nahi izan ditugu, nahiz eta kausa-ondorio motakoak ez izan, lurralde historikoko eskualdeen portaeran sakontzeko.

Lurralde orekaren analisiari dagokionez, lehen ondorio esanguratsua da, pertsonen ongizatearen ikuspegitik, eta hori izanik lurralde lehiakortasunaren azken xedea, Bizkaia nahiko lurralde orekatua dela, nahiz eta eskualdeek ingurune geo-demografiko eta enpresa eta ekonomia egiturako ingurune heterogeneoa duten. Aniztasun hori, berez, ez da negatiboa ongizaterako eta lehiakortasunerako; aitzitik, eskualde bakoitzaren lehiakortasun estrategiak haren ingurune zehatzera egokitu beharra garrantzi handikoa dela azpimarratzen du. Hala, eskualde bakoitzak bere indargune zehatzetan oinarritu beharko du estrategia horiek garatzeko. Ildo horretatik, eta ekonomia eta enpresa emaitzei dagokienez, nahiz eta eskualdeen artean aldeak egon, alde horiek murriztu egin dira, bai enpresa errentagarritasunari dagokionez, bai berrikuntzari eta ekintzailtzari dagokionez. Lehiakortasunaren palankei dagokienez, giza kapitalean eta erakunde kapitalean, kokapen orokor ona izateaz gainera, konbergentziarako joera ere antzematen da. Joera hori bera ikusten da gainerako palanketan ere, baina aldeak esanguratsuak dira oraindik.

Dimentsioen araberako lurralde orekaren ikuspegi orokorra eskuratzeaz gainera, lurralde historiko osorako egindako lurralde diagnostikotik atera ditugun indargunetan eta erronketan **eskualdeek zein kokapen eta bilakaera** duten ere ondoriozta dezakegu:

Bizkaia lurralde orekatua da pertsonen ongizatearen ikuspegitik

Enpresa errentagarritasunaren, berrikuntzaren eta ekintzailtzaren inguruko aldeak murriztu egin dira

- **Ongizate materialari** dagokionez, azken hamar urteetan bilakaera positiboa izan da eskualde guztietan, eta, gainera, eskualdeen arteko aldeak murriztu egin dira.
- Era berean, lurralde azterketatik atera dugu **ekonomia eta finantza emaitzen bilakaera positiboa** izan dela eskualde guztietan, nahiz eta desberdintasunak egon, eskualde bakoitzaren ekoizpen egituraren arabera.
- Azkenik, Bizkaiak, lurralde osoa hartuta, duen beste indargune batek, **finantzaketarekin** lotutakoak, bilakaera positiboa izan du Bizkaiko eskualde ia guztietan, nahiz eta adierazleetan aldeak ikusten diren eskualdeko ekoizpen egituraren edo egitura demografikoaren arabera.

Bizkaia osorako identifikatutako bi erronka nagusiak (demografia trantsizioa eta energia eta klima trantsizioa) eskualdeen ikuspegitik ere azter daitezke. Alde batetik, **zahartze tasaren** hazkundera orokorra da eskualde guztietan. Bestalde, **ingurumen** arloko aurrerapenak modu orekatuan gertatzen ari dira lurraldeko eskualdeetan.

4

Ondorioak

Bizkaiko erresilientzia ekonomikoa sendotu egin da, ongizateari eta lurralde orekari kalterik egin gabe

Txosten honek Bizkaiko lehiakortasunaren diagnostikoan eta Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostena argitaratu zenetik izan duen bilakaeran sakontzen du. Gainera, eskualde mailako analisia ere eskaintzen du, eskualdeen ezaugarri bereizgarri erantzuteko, beti ere lurralde oreka xede izanik, ongizateari eta lehiakortasunari dagokionez. Orain dela bi urte, Bizkaiak erakutsi zuen 2020ko krisiaren ondoren epe laburreko erresilientzia bazuela; erresilientzia hori, ekonomiari dagokionez, mantendu eta sendotu egin da, eta, gainera, ongizate mailari eta lurralde orekari kalterik egin gabe.

Bizkaiak lurralde aurreratu eta helduaren profila du, pausoz pauso zerbitzuen sektorerara bideratzen ari da. Ongizate maila handia du, hainbat aldagaitan ikus daitekeen bezala: bizi itxaropen eta ongizate subjektibo handia du, pobrezia eta desberdintasun nahiko txikiak, giza kapital handia, eta langabezia tasa gero eta txikiagoa. Gainera, lurraldearen produktibitatea onargarria da, eta enpresa kaudimendunak eta errentagarriak ditu. Hala ere, ahultasun batzuk ditu industria sektorean, baita erronkak ere, demografiaren eta ingurumenaren arloan.

Industria sektoreak hainbat erronkari egin behar dio aurre, jarduerak enpresa gutxitan kontzentratzearekin eta batez besteko enpresa tamaina txikiarekin lotuta

Industria sektorearen erronketako batzuek bi ezaugarriekin lotuta egon daitezke: batetik, jarduera jakin batzuk, esportazioak esate baterako, enpresa kopuru txiki batean kontzentratzea; eta, bestetik, enpresen batez besteko tamaina txikia. Oinarri horretatik abiatuta, politika publikoak enpresa handien garapenera bideratzean edo bultzatzean baino gehiago, enpresa txiki eta ertainen eskala handitzean eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzean jarri behar dira indarrak, besteak beste, honako tresnak eta neurriak erabiliz: zerga arloko neurriak, enpresa txiki eta ertainen bat egite prozesuak bultzatzeko araudiak, erosketaren publiko berritzailea... Enpresa txiki eta ertainen pisu handiagoa dela eta, I+G handitzen laguntzeko politika orokorrak erabili beharrez, berrikuntza politika modu espezifikokoan landu behar da, eta haren ardatza DUI ereduari dagozkion politikak izan beharko lukete (eginez, erabiliz eta elkarreraginez ikastea eta berritzea), horien artean, hedapen teknologikoa, enpresa kudeaketa hobetzea, giza kapitalaren garapen aplikatua, hurbiltasuneko ekoizpen sareen eta bitarteko eragileen babes... Industria enpresen batez besteko tamaina handitzea lortzen bada, espero izatekoa da Bizkaiko I+Gko maila txikiak modu naturalean zuzentzea.

Industria ardatz duen garapen ekonomikoko politikak, industria sektoreko enpresa txiki eta ertainen tamaina eta enpresa horien arteko lankidetzaren areagotzeaz eta DUI

berrikuntza laguntzeaz gainera, industria berdera bideratzea bultzatu beharko luke. Horrela, bi erronkari batera erantzuteko aukera izango luke Bizkaiak: industria lehiakortasunaren erronka eta ingurumen erronka, are gehiago bere espezializazioa eta energiaren balio kateekiko mendekotasuna kontuan hartuta. Enpresek eta sektore publikoak finantza egoera ona dute, eta horrek aipatutako eraldaketa horiei ekitea errazten du.

Lurralde kohesioari dagokionez, Bizkaia lurralde sendoa da osotasunean, gizarte hausturarik gabea, baina egiturazko heterogenotasun argia du, hiriburuaren eta gainerako eskualdeen arteko logikatik haratago. Portaeretan eta ekonomia eta enpresa emaitzetan ikusten diren desberdintasunak lurralde bakoitzeko egiturazko oinarri desberdinen ondorio dira (geo-demografikoak, enpresakoak eta sektorekoak). Baina alde horiek ez dituzte ongizate adierazleetan desberdintasun handiak ekarri, eta hori oso positiboa da. Horregatik esan dezakegu Bizkaia gizarte ikuspegitik nahiko kohesioatuta dagoen lurraldea dela.

Nolanahi ere, Bizkaiko eskualdeak askotarikoak dira. Batzuk eskualde eragileak eta efizienteak dira; beste batzuk zaurgarriagoak dira, enpresa oinarri ahula dutelako. Batzuek, palanketan ahalegin handia eginda ere, oraindik ekonomia eta enpresa emaitza kaskarrak dituzte (biztanleko BPGa, produktibitatea, errentagarritasuna); beste batzuek, ordea, palanketan oso sendoak izan ez arren, emaitza nahiko onak lortzen dituzte. Beraz, lurralde sistema heterogeneoa bada, politika uniformeen ordez eraginkorrak izango dira eskualde mota bakoitzerako politika bereziak, *Bizkaia Orekan Sakonduz* estrategiak sustatzen duen bezala. Eskualde batzuek beren indarguneak babesteko eta dagoeneko funtzionatzen duena ez galtzeko politikak behar dituzte (hazkunde handiko enpresak sustatzea, azpiegitura adimendunak indartzea...); beste batzuetan, berriz, egiturazko ahultasunak zuzentzeko politikak behar dira (adibidez, gazteentzako zerga pizgarriak eta etxebizitza eskuratzekoak, immigrazioaren erakarpen selektiboa, zerbitzu publikoak sendotzea..., despokatze eta zahartze joera irauli ahal izateko). Gainera, beharrezkoa da teknologia hedatzeko eta enpresak sendotzeko eskualdeko nodoak bultzatzen jarraitzea, besteak beste, Lanbide Heziketa aurreratuko ikasketeen eta garapen agentzien laguntzaz. Laburbilduz, politikek eta estrategiek eskualde eragileak indartzera, atzeratuak bultzatzera eta horien guztien arteko loturan lan egitera bideratuta egon behar dute.

Azkenik, beharrezkoa da azpimarratzea estrategia publikoek zein pribatuek iraunkorrak izan behar dutela denboran. Bizkaiko lurralde orekan hainbat ekimen eta estrategiaren ondorioz lortutako aurrerapenak ezin dira berehala neurtu; aitzitik, atzera begiratu behar da, txosten honetan egin dugun bezala, emaitzak azalertzeko.

Bizkaiko inguruneak heterogeneoak dira, baina gizarte kohesioa handia da

Lurralde errealitate bakoitzera egokitutako estrategiak eta politikak, Bizkaia Orekan Sakonduz egitasmoak proposatzen dituenak bezalakoak, eraginkorrak dira epe luzera

I. eranskina

Aldakuntza koefizienteak

Blokea	Dimentsioa	Adierazlea	Aldakuntza koefizienteak (%)	
			2024. urtea (edo hurbilena)	2015. urtea (edo hurbilena)
Egiturazko ingurunea	Geo-demografia	Biztanleria	103	104
		Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	20	25
		Dentsitate demografikoa (biztanleak/km ²)	164	164
		Zahartze tasa	9	11
		10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	80	82
	Ekonomia eta enpresa egitura	Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (enplegu guztiaren %)	57	57
		50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	16	20
		Industria establezimenduen batez besteko tamaina	35	32
		Establezimenduen batez besteko tamaina	39	37
		Nekazaritza eta arrantzako enplegua (enplegu guztiaren %)	126	116
	Erakunde egitura eta balioak	Industria enplegua (enplegu guztiaren %)	51	47
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)		11	11	
Ongizatearen dimentsioak	Bizitza materiala	Batez besteko errenta pertsonala (€)	10	10
		Enplegu tasetako genero arrakala (ehuneko puntuak)	25	18
	Enplegua	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	24	12
		Iraupen luze langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	30	28
	Gizarte bizitza	Delituen indizea (1.000 biztanleko)	18	22
	Ikaskuntza	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	7	7
Ingurumena	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	21	24	
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	23	16	
Ekonomia eta enpresa emaitzak	Errendimendu ekonomikoa	Biztanleko BPGa (€)	77	80
		Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (mila euro)	16	10
	Enpresa errentagarritasuna	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	22	29
		Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	26	33
Berrikuntza eta ekintzailtza	Hazkunde handiko enpresak (mila biztanleko)	115	132	
Palanka dinamikoak	Kapital naturala	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	68	70
		Instalaturako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	183	226
	Kapital fisikoa	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	67	62
		Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	69	85
	Finantzaketa	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	32	47
		Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	40	46
		Finantza sektoreko enplegua (enplegu guztiaren %)	60	59
		Enpresen ondare garbia (mediana, pasiboaren %)	6	9
		Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	76	65
	Jakintza	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (kopurua)	98	106
		I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak (mila biztanleko)	162	173
		Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	125	123
		Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	111	123
		Goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko enplegua (enpleguaren %)	78	84
		Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (enpleguaren %)	31	30
	Giza kapitala	Enplegu tasa (okupazioa) (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	3	4
		Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (%)	9	9
		Udal hauteskundeetako parte hartze tasa	7	6
	Gizarte eta erakunde kapitala	Alkate emakumeak (%)	39	51

Koloretako zutabeetan, horiak < % 30eko aldakuntza koefizienteak adierazten ditu (homogeneotasun handiagoa), eta laranja, ≥ % 30eko aldakuntza koefizienteak (heterogeneotasun handiagoa).

II. eranskina

Eskualdeetako fitxak

Eranskin honetan Bizkaiko hamabi eskualdeen ongizatea helburu duen lehiakortasunaren diagnostikoaren emaitzak jaso ditugu. Fitxa bakoitzak eskualde baten azterketa aurkezten du, taula formatuan, adierazle guztiak eta lortutako emaitzen deskribapena barne hartuta.

Koloretako zutabeetan, berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta laranja, emaitza negatiboa.

- Koloretako lehen zutabeetan, adierazleak eskualdean izan duen bilakaera aztertzen da, 2015etik datuak eskuragarri dauden azken urtera. Ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela.
- Koloretako bigarren zutabeetan, adierazleak eskualdean duen balioa agertzen da, Bizkaiko balioarekin alderatuta, datuak eskuragarri dauden azken urterako. Kasu honetan ere, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artean dagoela, eta bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela.
- Azkenik, koloretako azken zutabeetan, adierazleak eskualdean izan duen bilakaera eta lurralde historikoan izan duena alderatzen dira. Kolore berdeak aldakuntza erlatibo positiboagoa adierazten du eta kolore laranja, aldakuntza negatiboagoa (gutxienez, ehuneko puntu 1eko aldeak).

Arratia

Arratia eskualdeko biztanleria Bizkaiko biztanleriaren % 3,8 da. Lurralde historikoko batezbestekoa baino hazkunde demografiko handiagoa izan du, baina dentsitate txikiagoa du oraindik. Atzerrian jaiotako pertsonen ehunekoak eta zahartze tasak batezbestekoaren azpitik jarraitzen duten arren, biak handitu dira. Zahartze tasa-
ren hazkundera nabarmendu behar dugu, eskualde guztien artean hazkunderik handiena izan baitu. Ekonomiaren eta enpresaren eremuan, industriak pisu nabarmena du enpleguan, murriztu egin den arren, eta establezimenduak, oro har, Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoak dira. Ongizateari dagokionez, egoera ona du, eta hori batez besteko errenta pertsonal altuan eta langabezia eta genero arrakalan islatzen da, azken bi horien balioak lurraldeko batezbestekoaren azpitik daude. Ekonomiaren ikuspegitik, biztanleko BPGa lurralde historikoan baino gutxiago hazi da, eta produktibitatea eta enpresa errentagarritasuna, berriz, lurralde osoan baino gehiago. Ekin-tzailtzak ere gora egin du, erritmo mantsoagoan bada ere. Palanka dinamikoari begiratuz gero, energia berriztagarrien aldeko apustua nabarmentzen da; eskualdea liderra da aldagai horretan, eta natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren ehuneko handi eta gorakorrean ere islatzen da hori. Era berean, aipagarriak dira goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufakturetako espezializazioa eta giza kapital sendoa. Aitzitik, azpiegiturekin, enpresen nazioartekotzearekin edo I+Gekin lotutako beste eremu batzuetan egoera ez da hain ona.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira¹⁰:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia*: Arratiak 43.773 biztanle ditu eta Bizkaiko batezbestekoa baino hazkunde demografiko handixeagoa izan du, nahiz eta dentsitate demografikoa (184,2 biztanle/km²) txikiagoa izan. Herritarren % 43,4 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. Zahartze tasa (% 24,4) eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoak (% 10,0) lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoak dira, baina hazkunde handiagoak izan dituzte (eskualdeen artean handiena, zahartze tasari dagokionez).
- *Ekonomia eta enpresa egitura*: Industriak enpleguan duen pisua (% 26,3) lurralde historikokoa baino handiagoa da, nahiz eta jaitsiera nabarmenagoa izan den. Era berean, merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguak (% 5,3) behera egin du, eta eskualdeen artean txikiena da. Nekazaritzako enplegua (% 1,0) jaitsi egin da azken bost urteetan, baina, hala ere, batezbestekoaren gaineratik jarraitzen du. Establezimenduen batez besteko tamainaren adierazleak (6 pertsona orokorrean eta 19 industrian) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoak dira. Gainera, establezimenduen batez besteko tamainak lurraldekoak baino hazkunde handiagoa izan du. Bestalde, 50 langile baino gehiagoko establezimenduetako enplegua (% 42,9) batezbestekoaren gaineratik dago, eta gora egin du azken hiru urteetan.

¹⁰ Honako adierazle hauentzat serie historikoa laburragoa da, eskualdeketa aldatu delako: 50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua, Nekazaritzako eta arrantzako enplegua, Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua, Tokiko administrazio publikoaren zorra, Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak, Atzerriko akziodunak dituzten enpresak, Finantza sektoreko enplegua, Goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufakturetako enplegua, Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua, Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua, Langabezia tasa, Enplegu tasa.

- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.655,6 €, Bizkaiko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da, eta hazkunderik handiena izan du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak (21.738,4€) lurralde osokoak baino hazkunde handixeagoa izan du, eta Bizkaiko batezbestekoaren gaineratik dago.
- *Langabezia:* Lan merkatuaren egoera ona da. Bai langabezia tasa (% 6,2), bai iraupen luzeko langabezia tasa (% 3,6) Bizkaiko batezbestekoen azpitik daude. Bestalde, enplegu tasetan dagoen genero arrakala (5,6 puntu) ere batezbestekoa baino txikiagoa da, eta, gainera, murriztu egin da, lurralde osoan ez bezala.
- *Gizarte bizitza:* Delituen indizea (47,2 1.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino gehiago hazi da, baina haren azpitik jarraitzen du.
- *Ikaskuntza:* Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa (% 75,7) eta horien bilakaera lurralde osokoaren antzekoak dira (igoera pixka bat handiagoa izan bada ere).
- *Ingurumena:* Eskualdearen egoera ez da homogenea, ingurumen adierazleei begiraturaz gero. Alde batetik, airearen kutsadura mailak (urtean 8,3 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ batez beste) Bizkaiko batezbestekoaren gaineratik daude, baina pixka bat gehiago murriztea lortu da. Bestalde, edukiontzietako gaikako bilketaren bilakaerak (97,0 kg biztanleko eta urteko) ez dio lurralde historiko osoaren hazkunde erritmoari eutsi, nahiz eta lurraldeko batezbestekoaren gaineratik jarraitzen duen.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa:* Biztanleko BPGa (43.502,1 €), lurralde historikoko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da, baina hazkunde txikiagoa izan du. Langile bakoitzeko produktibitatea (81,7 mila €), aldiz, batezbestekoaren azpitik dago, baina igoera handiagoa izan du.
- *Enpresa errentagarritasuna:* Enpresa arloko errendimendu positiboak lurralde historikoko hazkundeak baino handiagoak ekarri ditu. Mailari dagokionez, errentagarritasun ekonomikoa (% 6,8) batezbestekoa baino handiagoa da, eta finantza errentagarritasuna (% 10,5), berriz, txikiagoa.
- *Ekintzailtza:* Hazkunde handiko enpresen kopurua (0,57 1.000 biztanleko), Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa, proportzio handiagan hazi da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala:* Alde batetik, instalatutako energia berriztagarrien potentzia (20.982 kW 10.000 biztanleko) eskualde guztietako handiena da, nahiz eta pixka bat atzera egin duen. Bestalde, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren ehunekoak (% 6,1) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, baina azken hiru urteetan behera egin du.
- *Kapital fisikoa:* Bi adierazleen joera lurralde historikokoaz bestelakoa izan da. Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekoak (% 0,9) lurraldeko batezbestekoaren azpitik jarraitzen du, nahiz eta bilakaera positiboa

izan duen. Bestalde, kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren proportzioa (% 6,8) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, baina beheranzko bilakaera izan du azken bost urteetan.

- *Finantzaketa*: Arratiako enpresen ondareak pasibo osoan duen proportzioak (% 50,5) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, eta, gainerako eskualdeak ere kontuan hartuta, hazkunderik handiena izan du. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 23,9 €), batezbestekoaren azpitik dago, baina lurralde historikoan baino gutxiago egin du behera. Nazioartekotze adierazleak Bizkaiko batezbestekoaren azpitik daude. Azken lau urteetan, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoa (% 5,2) hazi egin da, eta atzerriko akziodunak dituzten enpresena (% 4,2), berriz, jaitsi. Bestalde, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 0,8) lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta behera egin du azken hiru urteetan.
- *Jakintza*: Arratian 16 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,4. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta jaitsi egin da, gainera. Bai I+Gko gastua (BPGaren % 0,6), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 0,6) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira. Bilakaerari dagokionez, lehena hazi egin da eta bigarrena, jaitsi. Enplegu adierazleei begiratuta, bilakaera positiboa izan dute azken bost urteetan, baina balioak aldatu egiten dira adierazle batetik bestera. Hala, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren pisua (% 10,3) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago, eta jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren proportzioak (% 34,4), ordea, batezbestekoaren azpitik jarraitzen du.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasa (% 73,7) eta goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoa (% 64,9) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik daude. Hala ere, enplegu tasak behera egin du azken hiru urteetan. Goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoak, berriz, lurralde historikoan baino hazkunde handixeagoa izan du.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 65,1) lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa da, eta jaitsiera txikiagoa izan du. Bestalde, alkate emakumeen ehunekoa (% 30) igo egin da, baina, hala ere, lurraldeko batezbestekoaren azpitik dago.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	43.773	+	++	=	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	184,2	+	--	=	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	43,4	++	++	++	
	Zahartze tasa (%)	2025	24,4	++	-	++	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	10,0	++	--	++	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	6,4	++	++	+	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	19,4	++	++	--	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	42,9	++	+	e.e.	
	Industria enplegua (%)	2024	26,3	--	++	-	
	Merkataritza zerbitzu aurreratuetakoko enplegua (%)	2025	5,3	-	--	--	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	1,0	--	++	e.e.	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.655,6	++	=	++		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	21.738,4	++	+	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	6,2	--	--	e.e.	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	5,6	--	--	--	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	3,6	--	--	++	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	47,2	++	--	++	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	75,7	+	=	=	
	Ingurumena						
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	8,3	--	++	=		
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	97,0	++	=	--		
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	43.502,1	++	=	-	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	81,7	++	=	++	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	6,8	++	++	++	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	10,5	++	--	++	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,57	++	++	++		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	20.982,0	=	++	--
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	6,1	--	++	e.e.
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)	2024	0,9	+	--	+
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	6,8	-	++	e.e.
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	50,5	++	+	++
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	23,9	--	-	+
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	5,2	++	--	e.e.
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	4,2	--	--	e.e.
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,8	--	--	e.e.
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	16	=	e.e.	e.e.
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,4	--	--	e.e.
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,6	+	--	e.e.
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,6	--	--	e.e.
	Goi teknologjako eta erdi-goi teknologjako manufakturetako enplegua (%)	2025	10,3	++	++	e.e.
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	34,4	++	--	e.e.
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	73,7	+	++	e.e.
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	64,9	+	++	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	65,1	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	30,0	++	--	++

Busturialdea

Busturialdea dentsitate demografiko txikiko eskualdea da eta zahartze maila nabarmena du. Atzerriko biztanleriaren pisu esanguratsua du, baina, hala ere, atzerriko biztanleria lurralde osoan baino erritmo txikiagoan ari da hazten. Bizkaiko biztanleria osoaren % 4 da. Eskualdeko ekoizpen egituraren ezaugarria da industriak eta, bereziki, nekazaritzak eta arrantzak, pisu erlatibo handiagoa dutela. Hain zuzen ere, azken jarduera horrek eskualde honetan du pisu handiena, eta eskualde guztietan joera beherakorra bada ere, Busturialdean ez da hain nabaria. Lurraldeko batezbestekotik behera daude biztanleko errenta eta BPGa, baina nabarmentzekoa da langabezian, gizarte kohesioan eta segurtasunean egoera ona duela, eta, ingurumenari dagokionez ere, emaitzak onak direla. Ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik, produktibitate handia eta errentagarritasunaren hobekuntza azpimarratu behar dira, baina ekintzaitzaren arloan zailtasunak daude oraindik. Lehiakortasunaren palankek aztertuz gero, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren pisua nabarmentzen da, enpresen ondare egoera onarekin eta jakintzaren esparruko aurrerapausoekin batera. Egoera ez da hain ona azpiegituretan (bilakaera positiboa izan den arren), enpresen nazioartekotzeari lotutako zenbait alderditan eta erakunde kapitalean.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Busturialdeak 46.668 biztanle ditu. 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren herritarren proportzioa esanguratsua da (% 27,2). Zahartze tasa (% 25,3) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, baina hazkunde txikiagoa izan du. Atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa nabarmentzen da (% 13,3), eskualdeen artean, bigarren handiena da. Dentsitate demografikoa (167,3 biztanle/km²) lurralde historiko osoarena baino txikiagoa da, eta Bizkaiko batezbestekoa baino zertxobait gutxiago hazi da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Nekazaritzaren eta arrantzaren pisu handiena duen eskualdea da (enpleguaren % 8,2), eta, murriztu den arren, eskualde honetan izan du jaitsierarik txikiena. Industria enpleguaren ehunekoa ere (% 19,9) Bizkaikoa baino handiagoa da, baina jaitsiera nabarmenagoa izan du. Bestalde, merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren ehunekoa (% 8,4) lurralde osokoa baino txikiagoa da, eta, gainera, jaitsi egin da. Era berean, establezimenduen batez besteko tamaina (4 pertsona batez beste, eta 15 industrian) eta 50 langile baino gehiagoko establezimenduetako enplegua (% 38,9) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik daude, eta hazkundeak txikiagoak izan dira.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastuak, 1.547,5€, Bizkaiko batezbestekoaren antzeko hazkundeak izan du aldi horretan (zertxobait handiagoa), baina txikiagoa izaten jarraitzen du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak (21.113,2€) gora egin du, baina Bizkaiko batezbestekoaren azpitik jarraitzen du.
- *Langabezia:* Busturialdeak egoera ona du langabeziari dagokionez. Horren adierazgarri dira langabezia tasak (% 7 eta % 3,1 iraupen luzeak) eta genero arrakala

enplegu tasetan (3,9 puntu), biak ala biak Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoak. Gainera, lurralde historiko osokoez baino bilakaera hobea izan dute (jaitsiera handiagoak langabezia eta hazkunde txikiagoa genero arrakalan).

- *Gizarte bizitza*: Eremu horretan, berriz ere, eskualdearen egoera erlatiboa hobea da, 1.000 biztanleko delitu indizea (38,2) Bizkaiko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa baita. Azpimarratzekoa da, gainera, aldi zehar izandako beherakada, lurralde historikoan ez bezala.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 76,8 da, Bizkaiko batezbestekoaren zertxobait gaineratik. Gainera, bietan antzeko bilakaera positiboa izan du.
- *Ingurumena*: Busturialdeak ingurumen baldintza egokiak ditu, airearen kutsadura mailak (urtean 4,8 µg/m³ batez beste) Bizkaiko batezbestekoak baino txikiagoak baitira, eta edukiontzietako gaikako bilketa, handiagoa (101,2 kg biztanleko urtean). Ziur aski, abiapuntua hobea izanik, nahiz eta bilakaera positiboa izan, ez da lurralde osoaren erritmora iritsi.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Biztanleko BPGa (35.604,7 €) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eta horrek baino hazkunde txikiagoa izan du. Aldiz, langile bakoitzeko produktibitatea (91,7 mila €) batezbestekoa baino handiagoa da, eta, gainera, neurri handiagoan handitu da.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Errentagarritasun ekonomikoa (% 5,6) eta finantza errentagarritasuna (% 8,6) Bizkaiko batez besteko balioen azpitik daude. Hala ere, biek lurralde osoan baino bilakaera positibo nabarmenagoa erakutsi dute.
- *Ekintzaitzeta*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,13koa da, Bizkaiko batezbestekoaren azpitik, nabarmen. Baina hazkundera lurralde osokoa baino handiagoa izan da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Busturialdean instalatutako energia berriztagarrien potentzia (484 kW 10.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino askoz txikiagoa da, baina azken urteetako igoera nabarmen handiagoa izan da. Aitzitik, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoretako enpleguari begiratuta, eskualdeak du lurraldeko proportzio handiena (% 17,0). Proportzio hori batez beste lurralde osoan jaitsi da, eta eskualdean jaitsiera nabarmenagoa izan da.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegiturara bideratutako azaleraren ehuneko (% 1,4) ez da iristen Bizkaiko batezbestekora, baina handitu egin da, lurralde historikoan ez bezala. Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren pisuari dagokionez (% 2,5), Bizkaia osokoa baino txikiagoa da, eta gehiago murriztu da, gainera.
- *Finantzaketa*: Nabarmenezkoa da Busturialdeko enpresetan ondareak pasibo osoaren gainean hartzen duen ehuneko (% 53,3), nahiz eta haren hazkundera Bizkaiko batezbestekoarena baino txikiagoa izan den. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 70,8 €), batezbestekotik zertxobait gora egon arren, jaitsiera handiagoa izan du. Nazioartekotzearen esparruan, enpresek lurralde historikoaren batez besteko emaitza baino hobea dute atzerriko eskumendekoen

- proportzioan (% 6,3), nahiz eta behera egin, eta okerragoa atzerriko akziodunen presentzian (% 6,3), hazkunde nabarmena izan duen arren. Bestalde, finantza sektoreko enpleguak (% 1,3) lurralde historiko osokoan baino pisu txikiagoa du, eta neurri txikiagoan jaitsi da.
- *Jakintza*: Eskualdean 11 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,2. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta lurralde osoan baino gehiago jaitsi da, gainera. Hala ere, bai I+Gko gastua (BPGaren % 1,5), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 2,4) Bizkaiko batez besteko balioak baino handiagoak dira, eta erritmo handiagoan hazi dira. Dimentsio horretan enpleguarekin lotuta dauden bi adierazleen egoera antzekoa da; bai goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren ehunekoa (% 3,0) eta bai jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (% 34,4) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoak dira. Hala ere, igoerak pixka bat handiagoak izan dira.
 - *Giza kapitala*: Busturialdeko enplegu maila (% 69,9) Bizkaiko batez besteko enplegu mailaren antzekoa da, eta lurralde historikoan hazi denaren pare hazi da eskualdean ere. Hezkuntzari dagokionez ere, egoera positiboa da; izan ere, goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoak (% 63,1) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, eta lurralde osoko goranzko erritmoari jarraitzen dio, zertxobait gorago, gainera.
 - *Gizarte eta erakunde kapitala*: Dimentsio horretako bi adierazleek behera egin dute. Lehenengo, udal hauteskundeetako parte hartze tasak (% 68,5) behera egin du, baina lurralde osoan baino gutxiago, eta, horri esker, batezbestekoaren gaintetik jarraitzen du. Bigarren, alkate emakumeen ehunekoa (% 25,0) eskualde guztien artean txikienetako bat da, eta, gainera, behera egin du.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	46.668	+	e.e.	=	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	167,3	+	--	=	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	27,2	=	++	-	
	Zahartze tasa (%)	2025	25,3	++	+	-	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	13,3	++	-	--	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	4,4	++	--	--	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	14,9	++	--	--	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	38,9	+	--	=	
	Industria enplegua (%)	2024	19,9	--	++	-	
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	8,4	--	--	--	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	8,2	--	++	++	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.547,5	++	--	=		
ONGIZATEAREN DIMENTSIORAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	21.113,2	++	-	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	7,0	--	--	--	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	3,9	=	--	-	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	3,1	--	--	-	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	38,2	--	--	--	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	76,8	+	=	=	
	Ingurumena						
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	4,8	--	--	++		
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	101,2	++	++	--		
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	35.604,7	++	--	--	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	91,7	++	++	++	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	5,6	++	--	++	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	8,6	++	--	++	
	Ekintzailletza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,13	++	--	++		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	484,0	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	17,0	--	++	-
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	1,4	++	--	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	2,5	--	--	--
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	53,3	++	++	-
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	70,8	--	++	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	6,3	--	++	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	6,3	++	-	++
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,3	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	11	--	e.e.	--
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,2	--	--	--
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	1,5	++	++	+
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	2,4	++	++	++
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	3,0	+	--	=
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	34,4	++	--	=
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	69,9	++	=	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	63,1	+	+	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	68,5	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	25,0	--	--	--

Durungaldea

Durungaldeak tamaina handiko biztanleria du (Bizkaiko biztanleria osoaren % 8,3), eta hazten ari da. Hala ere, Bizkaiko batez besteko dentsitatearen azpitik dago. Eskualdeko zahartze mailak eta atzerriko biztanleriaren ehunekoak batezbestekoaren azpitik daude, bi adierazleek goranzko joera izan arren. Eskualdean industriak ezarpen handia du, eskualde guztien artean, industria enpleguaren pisu handiena du. Enpresen batez besteko tamaina ere handiagoa da. Era berean, nabarmentzekoa da merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren hazkundea. Ekoizpenaren profil horrek biztanleko BPG handia eta produktibitate handia dakartza, biak ala biak lurralde osoan baino gehiago hazi dira eskualdean. Errendimendu ekonomikoa ona izan den arren, enpresen errentagarritasuna Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago. Ongizateari dagokionez, eskualdeak emaitza onak ditu errentan eta langabezian, langabezia maila txikia baita. Genero arrakalan, ordea, ez da aurrerapausorik izan. Ikaskuntzan aurrerapenak ikusten dira, baina batezbestekoaren azpitik jarraitzen du. Ingurumen arloan, bilakaera ez da nahikoa izan: kutsadura mailak handiak dira oraindik, eta hobekuntza erritmoa lurralde osoan baino motelagoa da. Azkenik, palanka dinamikoetan, indarguneak ikus daitezke kapital naturalean, kapital fisikoan, giza eta gizarte kapitalean, eta goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufaktoretan. Egoerarik kaskarrena jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguak du. Enpresen nazioartekotzeari dagokionez, egoera sendoa da, baina aurrerapen erritmoa lurralde osoan baino motelagoa da.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira¹¹:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia*: Durungaldeko biztanleria 96.467 biztanlekoa da, eta horrek tamaina handia ematen dio, nahiz eta dentsitate demografikoa (324,8 biztanle/km²) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dagoen. Bi adierazleek batezbestekoak baino hazkunde handixeagoa izan dute. Herritarren % 32,7 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. Era berean, zahartze tasa (% 23,2) eta atzerrian jaiotako biztanleen proportzioa (% 12,3) batezbestekoaren azpitik daude. Baina biek egin dute gora: lehenak, lurralde historikoan baino erritmo handiagoan eta bigarrenak, berri, erritmo txikiagoan.
- *Ekonomia eta enpresa egitura*: Industriak eskualdean duen ezarpen handia sektoreak enpleguan duen ehunekoan islatzen da (% 35,9), lurralde historikoko ehunekorik handiena, Lea-Artibaikoarekin batera. Gainera, pisuak pixka bat gora egin du, lurralde historikoan ez bezala. Aitzitik, merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (% 11,2) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, baina igoera handiagoa izan du. Bestalde, nekazaritza eta arrantzako enplegua (% 0,9) batezbestekoa baino zertxobait handiagoa da, eta azken bost urteetan hazi egin da. Eskualdea establezimenduen tamainagatik nabarmentzen da (7 pertsona, 22 industriako establezimenduetan), baita 50 langile edo gehiagoko enpresetako enpleguagatik ere

¹¹ Honako adierazle hauentzat serie historikoa laburragoa da, eskualdeketa aldatu delako: 50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua, Nekazaritzako eta arrantzako enplegua, Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua, Tokiko administrazio publikoaren zorra, Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak, Atzerriko akziodunak dituzten enpresak, Finantza sektoreko enplegua, Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufaktoretako enplegua, Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua, Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoretako enplegua, Langabezia tasa, Enplegu tasa.

(% 45,0). Horiek guztiak lurraldekoak baino balio handiagoak dira, eta, establezimenduen tamainak igoera handiagoa izan du.

- *Erakunde egitura eta balioak*: Biztanleko batez besteko gastuak, 1.587,6€, lurralde osoko antzeko erritmoan hazi bada ere, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala*: Batez besteko errenta pertsonala (22.078,5€) Bizkaiko batez besteko errentaren gainetik dago, eta lurralde historiko osoan baino hazkunde handiagoa izan du.
- *Langabezia*: Langabezia mailari begiratuz gero, Durangaldearen egoera ona da (% 5,7 eta % 2,8 iraupen luzeko langabezia tasaren kasuan), biak ere lurralde osokoak baino txikiagoak dira. Enplegu tasetako genero arrakala (6,8 puntu), ordea, handiagoa da, nahiz eta murriztu egin den. Hiru adierazleek hobekuntzak izan dituzte aldiaren hasierarekin alderatuta, lurralde historikoan izandakoak baino handiagoak, gainera (azken hiru urteetako bilakaera, langabezia tasaren kasuan).
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea 1.000 biztanleko 37,1 da, lurralde osokoa baino txikiagoa. Hala ere, batez beste Bizkaian baino nabarmen gehiago hazi da.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren ehunekoa % 74,8 da, eta, lurralde historikoan baino pixka bat gehiago hazi bada ere, batezbestekoaren azpitik dago.
- *Ingurumena*: Eskualdeak behar baino bilakaera txikiagoa izan du ingurumen adierazleetan, ez baita iritsi lurralde osoak lortutako erritmorara. Lehenengo, atmosferaren kutsadura (urteko 9,3 µg/m³ batez beste) eskualde guztietako handiena da, eta proportzio txikian jaitsi da, gainera. Bigarren, edukiontzietako gaikako bilketak (103,7 kg biztanle bakoitzeko urtean) gutxiago egin du gora, nahiz eta Bizkaiko batezbestekoaren gainetik egon.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Esparru horretan, Durangaldeak egoera ona du, nabarmen; izan ere, biztanleko BPGa (58.441,5€) eta langile bakoitzeko produktibitatea (100,0 mila €) handienen artean daude, eta lurralde historikokoak baino hazkunde handiagoak izan dituzte.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Bai errentagarritasun ekonomikoa (% 5,5) eta bai finantza errentagarritasuna (% 9,8) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoak dira, eta horien hazkunde erritmoa ere txikiagoa izan da.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,53 da, lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa. Eta, gainera, neurri handiagoan hazi da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Instalaturako energia berriztagarrien potentzia (3.727,1 kW 10.000 biztanleko) eskualdeen artean bigarren handiena da, nahiz eta hazkundera txikiagoa izan den. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari

dagokionez ere (% 5,1), lurralde osoan baino pisu handiagoa du, azken hiru urteetan behera egin badu ere.

- *Kapital fisikoa*: Durangaldeak egoera positiboa du palanka honetan; izan ere, garraio eta komunikazioko azpiegiturretara bideratutako azaleraren ehunekoak (% 2,4) eta kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguak (% 10,5) Bizkaiko balioak gainditzen dituzte. Lurralde historikoan ez bezala, lehen adierazlea gehiago hazi da, eta, bigarrena ere igo egin da, azken bost urteetan.
- *Finantzaketa*: Eskualdeko enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 53,9 da, Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa. Hala ere, gutxiago hazi da. Tokiko administrazio publikoaren zorrak nabarmen egin du behera, 39,1 eurora iritsi arte, batez besteko balioaren azpitik. Nazioartekotzeari dagokionez, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen proportzioa (% 7,6) eta atzerriko akziodunak dituztenena (% 7,1) lurralde osokoak baino handiagoak dira, azken lau urteetan behera egin duten arren. Azkenik, finantza sektoreko enplegua (% 1,0) lurralde historiko osoa baino txikiagoa da, baina azken hiru urteetan gora egin du.
- *Jakintza*: Eskualdean 99 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, 1.000 biztanleko 1,0. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, baina azken hiru urteetan behera egin du. Bai I+Gko gastua (BPGaren % 2,3), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 2,1) Bizkaiko batez besteko balioak baino handiagoak dira, eta gora egin dute, gainera. Enpleguaren adierazleetan, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren ehunekoak (% 9,6) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago, eta hazi egin da azken bost urteetan. Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (% 27,8), ordea, batezbestekoa baino txikiagoa da, eta pixka bat behera egin du aztertutako aldian.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasa (% 72,5) eta goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoak (% 63,7) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik daude. Enplegu tasak gora egin du azken hiru urteetan, eta gazteen hezkuntza mailari dagokionez, hazkundera eskualde guztietako handiena izan da.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 64,6) eta alkate emakumeen ehunekoak (% 57,1) batezbestekoa baino handiagoak dira. Lehen adierazlean, beherakada lurralde osoan baino txikiagoa izan da; bigarrenean, emakumeen proportzioa gehiago hazi da.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	96.467	+	++	=	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	324,8	+	--	=	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	32,7	-	++	-	
	Zahartze tasa (%)	2025	23,2	++	--	+	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	12,3	++	--	--	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	7,0	++	++	=	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	22,3	++	++	+	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	45,0	=	++	e.e.	
	Industria enplegua (%)	2024	35,9	=	++	++	
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	11,2	++	--	+	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,9	+	++	e.e.	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.587,6	++	-	=		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	22.078,5	++	+	+	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	5,7	--	--	e.e.	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	6,8	--	++	--	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	2,8	--	--	-	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	37,1	++	--	++	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	74,8	++	-	=	
	Ingurumena						
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	9,3	--	++	+	
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	103,7	++	++	--	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	58.441,5	++	++	++	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	100,0	++	++	++	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	5,5	++	--	--	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	9,8	++	--	--	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,53	++	++	++		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	3.727,1	++	++	--
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	5,1	--	++	e.e.
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)	2024	2,4	++	++	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	10,5	++	++	e.e.
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	53,9	++	++	--
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	39,1	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	7,6	-	++	e.e.
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	7,1	--	++	e.e.
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,0	++	--	e.e.
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	99	--	e.e.	e.e.
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	1,0	--	++	e.e.
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	2,3	++	++	e.e.
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	2,1	++	++	e.e.
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	9,6	+	++	e.e.
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	27,8	=	--	e.e.
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	72,5	+	+	e.e.
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	63,7	++	+	+
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	64,6	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	57,1	++	++	++

Enkarterri

Enkarterrik Bizkaiko biztanleria osoaren % 3,1 hartzen du, eta dentsitate demografiko txikia eta udalerri txikien nagusitasuna ditu ezaugarri. Eskualdeko ekoizpen ehunean pisu esanguratsua dute industriak eta nekazaritzak. Sektore horien dinamikak oso desberdinak dira, eta azpimarratzekoa da industria enpleguaren eta merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren hazkunde nabarmena. Enpresen tamaina eta dimentsio handieneko establezimenduetako enplegua lurralde osoan baino gehiago hazi badira ere, horien mailak txikiak dira oraindik. Ongizateari dagokionez, eskualdeak aurrerapen garrantzitsuak izan ditu errentan eta langabezian, iraupen luzeko langabezia lurralde historikoko batezbestekoa baino gehiago murriztea eta genero arrakala gutxitzea lortu baitu. Aitzitik, ingurumenaren erronkan asko dago oraindik egiteko. Ekonomia eta enpresaren ikuspegitik, eskualdeak hainbat erronka ditu aurrean. Zehazki, biztanleko BPGa eta produktibitatea Bizkaia osokoa baino txikiagoak dira, nahiz eta enpresa errentagarritasuna sendoa izan. Garapenerako palankei dagokienez, ahultasun handienak energia berriztagarrietan, azpiegiturretan eta, bereziki, giza kapitalean antzeman ditzakegu. Egoera positiboa da, ordea, enpresen nazioartekotzean, kapital naturalean (natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari lotuta) eta erakunde kapitalean, herritarren parte hartzea handia baita hauteskundeetan. Nabarmentzekoa da jakintzaren eremu guztietan izandako aurrerapena, gainerako eskualdeetan baino emaitza hobekak lortu baitira.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Enkarterrin, biztanleria guztia (35.392 pertsona) 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi da. Lurralde osoa hartuta, dentsitate demografiko txikiena duen eskualdea da, gainera (79,4 biztanle/km²). Zahartze tasa (% 24,1) Bizkaiko batezbestekora hurbiltzen da, eta haren antzeko hazkundera izan du; atzerrian jaiotakoen proportzioa (% 11,0), berriz, txikiagoa da, eta, gainera, lurralde historikoan baino gutxiago hazi da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Industria eta nekazaritza sektoreek (enpleguaren % 18,3 eta % 5,1, hurrenez hurren) pisu handiagoa dute enpleguan lurralde historiko osoan ikusten denarekin alderatuta. Industria enpleguak gora egin du eta nekazaritzakoak, berriz, behera. Establezimenduen batez besteko tamaina (4 pertsona batez beste eta 10 industrian), 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (% 26,2) eta merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (% 7,0) lurralde historikoko batez besteko balioen azpitik daude. Hala ere, adierazle horiek guztiek gora egin dute, eta Bizkaia osoan baino gehiago, gainera. Hain zuzen ere, eskualde honetan izan dute hazkunderik handiena establezimendu handienetako enpleguak, industria enpleguak eta merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguak.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.483,1 €, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa bada ere, igo egin da aldi horretan.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak nabarmen egin du gora Enkarterrin, eta 19.109,4€ izatera iritsi da. Hazkunderik handiena Bizkaiko batez besteko

errentaren hazkundera gairitu duen arren, oraindik lurralde osoko errentaren azpitik geratzen da.

- *Langabezia*: Lan merkatuak bilakaera positiboa izan du: erregistratutako langabezia tasa % 9,6 izan da, eta iraupen luzeko langabezia tasa, % 4,8. Bi adierazleek jaitiera esanguratsuak izan dituzte, eta bereziki nabarmena da iraupen luzeko langabeziarena, jaitiera handiagoa izan baita lurralde osoan izandakoa baino. Langabezia mailak Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dauden arren, aldeak murriztu egin dira. Enplegu tasetako genero arrakalari dagokionez, lurralde historikoa (6,1 puntu) baino txikiagoa izateaz gain, murriztu egin da, lurralde osoan ez bezala.
- *Gizarte bizitza*: Delitu indizea 1.000 biztanleko 41,2 da, eta kriminalitate tasak nabarmen egin du gora, Bizkaiko batezbestekoaren gainetik. Hala ere, lurralde osoa baino txikiagoa da.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 72,2 da, Bizkaiko batezbestekoaren azpitik. Bietan antzeko bilakaera positiboa izan du.
- *Ingurumena*: Ingurumen adierazleen egoera ez da ona eskualdean. Alde batetik, airearen kutsadura urteko $8,3 \mu\text{g}/\text{m}^3$ da batez beste, eta lurralde historikoa baino handiagoa izateaz gain, handitu egin da. Bestalde, edukiontzietako gaikako bilketaren bolumena (76,4 kg biztanleko urtean) hobetu egin den arren, lurralde osoan baino neurri txikiagoan hobetu da, eta Bizkaiko batezbestekoaren oso azpitik dago.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Errendimendu ekonomikoari lotutako adierazleetan islatzen dira Enkarterriren erroka nagusietako batzuk. Biztanleko BPGa (24.964,5 €) lurralde historikoa baino gutxiago hazi da; langile bakoitzeko produktibitatea (73,1 mila €), berriz, gehiago handitu da. Azpimarratzekoa da eskualdeak lurralde historiko osoko mailarik txikiak dituela bi adierazle horietan.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Enpresen errentagarritasun mailak oso onak dira (% 7,3 errentagarritasun ekonomikoari dagokionez eta % 14,2 finantza errentagarritasunari dagokionez), eta Bizkaia osoaren gainetik daude, nahiz eta hazkunde txikiagoa izan duten.
- *Ekintzaitetza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,37 da, lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoa. Hala ere, eskualde guztiak kontuan izanda, hazkunderik handiena izan du.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Enkarterrin instalatutako energia berriztagarrien potentzia (1.328 kW 10.000 biztanleko) ez da iristen Bizkaiko batezbestekora, eta aldi horretan igoera txikiagoa izan du. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari dagokionez (% 15,7), pisu handiena duen bigarren eskualdea eta jaitsierarik txikiakoa da.
- *Kapital fisikoa*: Enkarterrik du garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekorik txikiena (% 0,9), eta lurralde historikoan ikusitako beherakadaren antzeko bilakaera izan du. Bestalde, kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren ehunekoak (% 4,2) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago eta proportzio handiagoan jaitsi da.

- *Finantzaketa*: Enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 46,8 da, eta lurralde historikoko batez besteko mailara ez iristeaz gainera, gutxiago hazi da. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 39,0€), egoera ona du, lurralde historiko osokoa baino nabarmen txikiagoa delako eta proportzio handiagoan murriztu delako. Nazioartekotzearen esparruan, eskualdeko enpresek oso emaitza onak dituzte, bai atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoan (% 6,2), bai atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoan (% 8,6), biak ere Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoak baitira, eta eskumendekoei dagokienez, hazkunde nabarmenarekin, gainera. Azkenik, finantza sektoreko enpleguaren ehuneko (% 0,9) lurralde osoko batezbestekoa baino txikiagoa izan da eskualdean, eta jaitsiera handiagoa izan du.
- *Jakintza*: Enkarterrin 10 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,3. Balio hori Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, baina goranzko bilakaera izan du. I+Gko gastua (BPGaren % 0,5) etai DBOen I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 0,4) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira. Hala ere, haien hazkundearen erritmoa handiagoa izan da. Hain zuzen ere, I+Gko adierazleetan hazkunde handienak izan dituen eskualdea da. Era berean, enpleguari buruzko adierazleek bilakaera ona izan dute: mailak Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dauden arren (goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua % 3,0 da eta jakintzan intentsiboak diren zerbitzueta-koa, % 34,5), lurralde historikoko balioek baino igoera handiagoak izan dituzte, bereziki manufakturako enpleguak (lurralde historikoko hazkunderik handiena).
- *Giza kapitala*: Enkarterrik giza kapitalean duen egoera erlatiboa ez da ona. Enplegu tasarik txikiena duen eskualdea da (% 67,8), baita goi mailako hezkuntza duten gazteen proportziorik txikiena duena ere (% 53,8). Adierazle horien bilakaera lurralde historikoko bilakaeraren antzekoa izan da; hala ere, hezkuntzan bilakaera zertxobait hobea izan da.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Nabarmenezkoa da udal hauteskundeetako parte hartze tasa handia (% 72,4), eskualde guztietako handiena, nahiz eta behera egin duen aurreko hauteskundeekin alderatuta. Alkate emakumeen ehunekoari dagokionez (% 27,3), lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina handitu egin da eta neurri handiagoan, gainera.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia					
	Biztanleria	2025	35.392	+	e.e.	=
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	79,4	+	--	=
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	100	=	++	-
	Zahartze tasa (%)	2025	24,1	++	-	=
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	11,0	++	--	--
	Ekonomia eta enpresa egitura					
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	3,6	++	--	=
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	9,6	++	--	++
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	26,2	++	--	++
	Industria enplegua (%)	2024	18,3	++	++	++
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	7,0	++	--	++
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	5,1	--	++	--
Erakunde egitura eta balioak						
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.483,1	++	--	--	
ONGIZATEAREN DIMENTSIORAK	Bizitza materiala					
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	19.109,4	++	--	+
	Langabezia					
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	9,6	--	++	+
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	6,1	--	-	--
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	4,8	--	++	--
	Gizarte bizitza					
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	41,2	++	--	++
	Ikaskuntza					
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	72,2	+	-	=
	Ingurumena					
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	8,3	++	++	++
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	76,4	++	--	--
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa					
	Biztanleko BPGa (€)	2024	24.964,5	++	--	--
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	73,1	++	--	+
	Enpresa errentagarritasuna					
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	7,3	++	++	--
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	14,2	++	++	--
	Ekintzailtza					
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,37	++	--	++	

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	1.328,0	++	--	-
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	15,7	--	++	++
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)	2024	0,9	-	--	=
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	4,2	--	-	--
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	46,8	++	--	-
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	39,0	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	6,2	++	+	++
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	8,6	+	++	-
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,9	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	10	++	e.e.	++
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,3	++	--	++
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,5	++	--	++
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,4	++	--	++
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	3,0	++	--	++
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	34,5	++	--	++
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	67,8	++	-	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	53,8	+	--	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	72,4	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	27,3	++	--	++

Eskuinaldea

Eskuinaldea dentsitate handiko eskualdea da, eta Bizkaiko biztanleria osoaren % 11,4 hartzen du. Hiri izaera argia du, eta lurraldeko batezbestekoa baino zahartze prozesu nabarmenagoa. Era berean, azken hamarkadan izandako beherakada demografiko txikia eta jatorri atzerritarreko biztanleriaren presentzia erlatibo txikiagoa aipatu behar dira. Eskualdearen egitura ekonomikoa merkataritza zerbitzu aurreratuetako espezializazioan oinarritzen da. Industriak eta lehen sektoreak pisu txikia eta beherakorra dute, eta enplegua tamaina handieneko establezimenduetan kontzentratzen da nabarmen. Ongizatearen dimentsioari dagokionez, egoera ona du: eskualde guztien artean, batez besteko errenta pertsonal handiena du, eta langabezia tasa txikiak. Gainera, biztanleriaren hezkuntza maila handia da, eta ingurumen egoera ona du. Hala ere, genero arrakalaren eta gizarte kohesioaren arloko erronkei egin behar die aurre. Ekonomiaren ikuspegitik, enpresa errentagarritasunaren eta ekintzailtzaren mailak onak dira, baina produktibitatearen eta biztanleko BPGaren hazkundeak ez dira hain handiak. Garapenerako palankei dagokienez, indargune nagusiak giza kapitalean, jakintzan eta azpiegiturretan kontzentratzen dira, eta egoera kaskarragoa da kapital naturalean.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Eskuinaldea bigarren eskualde jendetsuena da, guztira 131.719 biztanle baititu. Azken urteetan beherakada demografiko txiki bat izan du, eta, horri lotuta, biztanleriaren dentsitatea ere (3.380,3 biztanle/km²) pixka bat jaitsi da. Eskualdeen artean, zahartze tasarik handiena du (% 26,5), eta, gainera, gainerako eskualdeetan baino gehiago handitu da. Bestalde, atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoak (% 12,5) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eta hazkunde apalagoa izan du.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Merkataritza zerbitzu aurreratuek pisu nabarmena dute eskualdeko enpleguan (% 18,5, bigarren altuena), baina pisu horrek behera egin du. Aitzitik, industriako enpleguak (% 7,8) eta nekazaritzakoak (% 0,1) lurralde historikoan baino balio txikiagoak dituzte, eta behera egin dute, gehiago industrian nekazaritzan baino. Era berean, 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enpleguaren ehunekoak (% 42,5) Bizkaiko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da, eta hazkunde ere handiagoa izan da. Aldiz, establezimenduen batez besteko tamaina (5 pertsona, 12 industria sektorean) txikiagoa da, eta gutxiago hazi da.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua (1.427,4€) txikia da gainerako eskualdeekin alderatuta, eta hazkunderik txikiena izan du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Eskuinaldeak du batez besteko errenta pertsonal handiena (25.092,9€), eta bere hazkundeak lurraldeko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa izan da.
- *Langabezia:* Lan merkatuak oso egoera ona du, erregistratutako langabezia % 6,4koa baita; iraupen luzeko langabezia tasa, % 3,2koa; eta enplegu tasetako genero arrakala, 5,4 puntukoa. Horiek guztiek lurralde osoko balioek baino maila erlatibo hobek erakusten dituzte. Hala ere, genero arrakala Bizkaiko batezbestekoa

baino pixka bat gehiago hazi da, eta iraupen luzeko langabezia gutxiago murriztu da.

- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea 1.000 biztanleko 40,0 da, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da. Hala ere, kriminalitate tasa hori lurralde historikoan baino gehiago hazi da eskualdean.
- *Ikaskuntza*: Eskuinaldeak goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren proportzio handia du (% 83,4), eta, aldagai horri dagokionez, bigarren eskualdea da. Ehuneko horrek Bizkaiko batezbestekoak baino hazkunde txikiagoa izan du.
- *Ingurumena*: Airearen kutsadura (urteko 7,8 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ batez beste) lurralde historikoa-rena baino handiagoa da, baina gehiago murriztea lortu da. Edukiontzietako gairako bilketaren bolumenari dagokionez (95,6 kg biztanleko urtean), lurralde oso-koa baino pixka bat txikiagoa da, nahiz eta gehiago hazi den.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Biztanleko BPGa (41.547,1 €) eta langile bakoitzeko produktibitatea (73,5 mila €) ez dira Bizkaiko batezbestekora iristen. Bi aldagai horien hazkundeak lurralde historikokoak baino txikiagoak izan dira, batez ere produktibitatearen kasuan.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Eskuinaldeko enpresek errentagarritasun maila onak dituzte: % 6,4ko errentagarritasun ekonomikoa eta % 12,3ko finantza errentagarritasuna. Balio horiek Bizkaiko batezbestekoaren parekoak edo hura baino handiagoak dira. Finantza errentagarritasunaren hazkundeak lurralde osoan ikusitakoa baino handiagoa izan da.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,40koa da, lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa. Hala ere, neurri txikiagoan hazi da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Eskuinaldean instalatutako energia berriztagarrien potentzia du (104,5 kW 10.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino askoz txikiagoa da. Hala ere, nabarmentzekoa da hazkunde esanguratsua izan duela, batez ere azken urtean. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari dagokio-nez ere (% 2,3), batezbestekoaren azpitik dago, baina lurralde historikoan baino gutxiago murriztu da.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azaleraren ehuneko handiena duen eskualdea da (% 6,1), eta, gainera, ehuneko hori hazi egin da, Bizkaiko batezbestekoa ez bezala, behera egin baitu. Aitzitik, kontsumo ond- sun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren pisua (% 2,1) txi- kien artean dago, eta lurralde historiko osoak baino jaitsiera handiagoa izan du.
- *Finantzaketa*: Eskuinaldeko enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 49,7 da, eta lurralde historikoko batez besteko mailara ez iristeaz gainera, gutxiago hazi da. Bestalde, tokiko administrazio publikoen zorra (biztanleko 22,4 €) Bizkaiko batez- bestekoaren nahiko azpitik dago, eta, gainera, jaitsiera handiagoa izan du. Nazioar- tekotzearen esparruan, enpresek lurralde historikoaren batez besteko emaitza baino hobea dute atzerriko eskumendekoen proportzioan (% 6,4), eta okerragoa

atzerriko akziodunen presentzian (% 6,3). Lehen adierazlean, eskualdeak behera egin du, eta bigarreanean, lurralde osoak baino hazkunde txikiagoa izan du. Azkenik, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 1,3) batezbestekoaren azpitik dago, eta atzerakada handiagoa izan du lurralde historiko osoan baino.

- *Jakintza*: Eskualdean 99 establezimenduk egiten dituzte I+Gko jarduerak, hau da, 1.000 biztanleko 0,8k. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta gora egin du, gainera. Bai I+Gko gastua (BPGaren % 1,4), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 1,4) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira, baina erritmo handiagoan egin dute gora. Enpleguari buruzko bi adierazleei dagokienez, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako enpleguko enplegua (% 2,2) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina hazkunde nabarmen handiagoa izan du. Bestalde, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren proportzioa (% 48,2) eskualde guztien artean bigarren handiena da, nahiz eta hazkunde txikiagoa izan duen.
- *Giza kapitala*: Eskualdeak egoera sendoa du esparru honetan, eta lurralde historikoko batez besteko mailetatik gora dago bai enplegu tasan (% 70,9), bai goi mailako hezkuntza duten gazteen proportzioan (% 66,8). Adierazle horien bilakaera lurralde historikoko bilakaeraren antzekoa izan da, nahiz eta hezkuntzari dagokion adierazlean zertxobait txikiagoa izan.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasaren maila (% 60,2) eta tasa horren bilakaera negatiboa lurralde historikoko emaitzen parekoak dira. Alkate emakumeen ehunekoari dagokionez (% 66,7), ez da aldatu, eta eskualde guztien artean bigarren handiena da.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	131.719	=	e.e.	-	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	3.380,3	=	++	-	
	Zahartze tasa (%)	2025	26,5	++	++	++	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	12,5	++	--	--	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	5,1	++	--	-	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	12,1	++	--	--	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	42,5	++	=	++	
	Industria enplegua (%)	2024	7,8	--	--	--	
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	18,5	-	++	--	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,1	--	--	=	
	Erakunde egitura eta balioak						
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.427,4	++	--	--		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	25.092,9	++	++	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	6,4	--	--	--	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	5,4	+	--	=	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	3,2	--	--	+	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	40,0	++	--	++	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	83,4	+	++	=	
	Ingurumena						
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	7,8	--	+	-		
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	95,6	++	=	++		
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	41.547,1	++	-	-	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	73,5	++	--	--	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	6,4	++	=	-	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	12,3	++	++	++	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,40	++	+	--		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	104,5	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	2,3	--	--	+
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	6,1	++	++	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	2,1	--	--	--
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	49,7	++	=	--
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	22,4	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	6,4	-	++	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	6,2	++	-	-
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,3	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	99	++	e.e.	++
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,8	++	++	++
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	1,4	++	-	++
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	1,4	++	--	++
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	2,2	++	--	++
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	48,2	++	++	-
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	70,9	++	+	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	66,8	+	++	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	60,2	--	=	=
	Alkate emakumeak (%)	2023	66,7	=	++	--

Ezkerraldea

Ezkerraldea Bizkaiko eskualde jendetsuena da, Bizkaiko biztanleria osoaren % 19,0 bizi da bertan. Egitura demografiko zahartua du, baita atzerrian jaiotako biztanleen proportzio handia ere. Enpresa ehunari begiratuz gero, batez besteko tamaina txikia azpimarratu behar da, baina hala eta guztiz ere, portaera nahiko dinamikoa erakusten du. Nahiz eta errendimendu ekonomikoa, biztanleko BPGan neurtua, lurraldeko batezbestekoaren azpitik egon, aurrerapen esanguratsuak ikusten dira enpresen errentagarritasunean eta produktibitatean. Ongizatearen arloan, oraindik ere zailtasunak daude errentan eta, bereziki, langabezian, langabezia tasa eta iraupen luzeko langabezia tasa handiak baitira, nahiz eta hobekuntzak ikusten diren. Arreta berezia eskatzen du genero arrakalak, handia baita oraindik. Ingurumenarekin eta hezkuntzarekin lotutako adierazle batzuek ere bilakaera positiboa izan dute, nahiz eta, mailari begiratuta, erronkak argiak diren. Garapenerako palankei dagokienez, zailtasun handiagoak identifikatzen dira kapital naturalean, kapital fisikoan eta giza kapitalean. Baina aurrerapen esanguratsuak izan dira energia berriztagarrietan, biztanleria gaztearen hezkuntza mailetan, nazioartekotzean eta I+Gko gastuaren intentsitatean. Era berean, eskualdean pisu handia du jakintzan intentsiboak diren sektoreetako enpleguak (% 44,8), eta horixe da, hain zuzen ere, haren indargune nagusietako bat.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Ezkerraldeak 219.480 biztanle ditu, eta eskualderik jendetsuena da; hala ere, dentsitate demografikoa zertxobait jaitsi da (5.356,1 biztanle/km²). Zahartze tasa (% 25,7) Bizkaiko batezbestekoaren gaineratik dago, nahiz eta hazkunde apalagoa izan duen. Bestalde, atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoak (% 13,5), eskualdeen artean handienak, lurralde osoan baino hazkunde handiagoa izan du.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Industriako enpleguaren pisua (% 6,0), nekazaritzakoa (% 0,1) eta merkataritza zerbitzu aurreratuena (% 8,4) lurralde historikokoak baino txikiagoak dira, eta sektore horietan guztietan beheranzko bilakaera ikusten da. Bestalde, establezimenduen batez besteko tamaina (5 pertsona, 9 industrian) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago. Aldiz, 50 langile baino gehiagoko establezimenduetako enplegua (% 43,7) handiagoa da, eta neurri handiagoan hazi da eskualdean.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.449,6 €, ez da Bizkaiko batezbestekora iristen, eta hazkunde txikiagoa izan du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak (18.790,4 €) lurralde osoaren antzeko hazkunde izan du, baina Bizkaiko batezbestekoaren azpitik egoten jarraitzen du.
- *Langabezia:* Bai langabezia tasak, bai iraupen luzeko langabezia tasak (% 9,7 eta % 5,2, hurrenez hurren) jaitsiera esanguratsuak izan dituzte, eta jaitsiera hori lurralde historiko osoan izandakoa baino pixka bat handiagoa izan da iraupen luzeko langabeziaren kasuan. Hala ere, bi tasek eskualdeen artean altuenak izaten jarraitzen dute. Bestalde, enplegu tasan dagoen genero arrakala ere (7,4 puntu) Bizkaiko batezbestekoaren gaineratik dago, eta, gainera, handitu egin da.

- *Gizarte bizitza*: Egoera erlatibo hobea ikusten da kriminalitateari dagokionez, delituen indizea (48,3 1.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik baitago. Indize horrek gora egin badu ere, igoera lurralde historikokoa baino txikiagoa izan da.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 70,6 da, eta hazkundera lurralde osokoa baino pixka bat handiagoa izan bada ere, batezbestekoaren azpitik jarraitzen du.
- *Ingurumena*: Eskualdeak ez du egoera ona ingurumen arloan, emaitzak okerragoak dira bai airearen kutsaduran (urteko 7,8 $\mu\text{g}/\text{m}^3$ batez beste), bai edukiontzietako gaikako bilketan (73,8 kg biztanleko urtean). Nolanahi ere, nabarmendu behar da lehen adierazlean lurralde historikoak baino bilakaera hobea izan duela, airearen kutsaduraren mailak Bizkaia osoan baino gehiago murriztu baitira.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Ezkerraldeko biztanleko BPGa (26.739,5 €) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago nabarmen, eta horrek baino hazkunde txikiagoa izan du. Langile bakoitzeko produktibitateak (83,5 mila €), aldiz, batezbestekoa gainditzea lortu du, lurralde historikoan baino gehiago hazi baita.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Enpresa errentagarritasunaren adierazleak lurraldeko batezbestekoaren azpitik daude. Errentagarritasun ekonomikoa (% 6,1) gehiago hazi da, eta finantza errentagarritasuna (% 10,4), berriz, erritmo txikiagoan.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua (0,13 1.000 biztanleko) txikia da, eta beherakada txiki bat izan du aldi horretan.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Bi adierazleak lurralde historikoko batezbestekoaren azpitik daude, baina bilakaerak joera positiboagoa erakusten du. Alde batetik, instalatutako energia berriztagarrien potentziak (143 kW 10.000 biztanleko) hazkunde handia izan du, batez ere azken urtean. Bestalde, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren ehunekoak (% 1,5) Bizkaiko batezbestekoak baino beherakada txikiagoa izan du.
- *Kapital fisikoa*: Aldiaren hasieran, Ezkerraldea zen garraio eta komunikazio azpiegituretarako azaleraren ehunekorik handiena zuen eskualdea (% 3,9). Balio horrek nabarmen egin du behera, baina Bizkaiko batezbestekoaren gainetik egoten jarraitzen du. Ildo beretik, kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren ehunekoa (% 1,7) lurralde historikokoa baino gehiago murriztu da, eta Bizkaiko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa da.
- *Finantzaketa*: Ezkerraldeko enpresen ondareak pasibo osoan duen proportzioa (% 49,1) ez da Bizkaiko batezbestekora iristen; hala ere, hazkundera handiagoa izan da. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 77,7 €), lurralde historikoan baino gehiago murriztea lortu da, baina oraindik ere batezbestekoaren gainetik egoten jarraitzen du. Bestalde, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoak (% 3,5) eta atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoak (% 2,7) joera positiboa erakusten dute, hazkunde nabarmenekin, nahiz eta haien mailek Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoak izaten jarraitzen duten. Azkenik, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 1,5) eskualdeen artean handiena da, nahiz eta lurralde historikokoak baino jaitsiera handiagoa izan.

- *Jakintza*: Eskualdean 35 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,2. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina gora egin du. I+Gko gastua (BPGaren % 0,2) eta DBO_n I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 0,3) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira. Lehenengoa batezbestekoa baino gehiago hazi da; bigarrena, ordea, jaitzi egin da. Enpleguari buruzko adierazleei dagokienez, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren ehunekoa (% 0,9) nahiko txikia da, eta, gainera, behera egin du. Bestalde, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren ehunekoa (% 44,9) eskualdeetako altuenen artean dago, eta lurralde historikoan baino pixka bat gutxiago hazi da.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasa (% 68,5) eta goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoa (% 54,9) ez dira Bizkaiko batezbestekora iristen. Hala ere, joera gorakorra dela azpimarratu behar da, batez ere hezkuntzari lotutako adierazlean.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 57,0) lurraldekoa baino pixka bat gehiago jaitzi da batez beste, eta haren azpitik dago. Alkate emakumeen ehunekoari dagokionez (% 75,0), ez da aldatu, eta Bizkaiko eskualde guztien artean handiena da.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia					
	Biztanleria	2025	219.480	=	e.e.	-
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	5.356,1	=	++	-
	Zahartze tasa (%)	2025	25,7	++	+	-
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	13,5	++	=	++
	Ekonomia eta enpresa egitura					
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	5,0	++	--	+
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	9,4	++	--	--
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	43,7	++	+	+
	Industria enplegua (%)	2024	6,0	--	--	--
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	8,4	--	--	--
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,1	--	--	--
	Erakunde egitura eta balioak					
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.449,6	++	--	-	
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala					
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	18.790,4	++	--	=
	Langabezia					
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	9,7	--	++	+
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	7,4	++	++	++
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	5,2	--	++	=
	Gizarte bizitza					
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	48,3	++	-	-
	Ikaskuntza					
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	70,6	+	--	=
	Ingurumena					
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	7,8	--	+	-	
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	73,8	++	--	--	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa					
	Biztanleko BPGa (€)	2024	26.739,5	++	--	--
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	83,5	++	+	++
	Enpresa errentagarritasuna					
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	6,1	++	-	++
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	10,4	++	--	--
	Ekintzailtza					
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,13	-	--	--	

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	143,0	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	1,5	--	--	++
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	3,9	--	++	--
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	1,7	--	--	--
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	49,1	++	-	++
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	77,7	--	++	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	3,5	++	--	++
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	2,7	++	--	++
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,5	--	--	-
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	35	+	e.e.	++
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,2	+	--	++
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,2	++	--	++
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,3	--	--	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	0,9	--	--	--
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	44,9	++	++	-
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	68,5	++	-	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	54,9	+	--	+
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	57,0	--	--	-
	Alkate emakumeak (%)	2023	75,0	=	++	--

Lea-Artibai

Lea-Artibai eskala demografiko txikiko eskualdea da (Bizkaiko biztanleria osoaren % 2,2 hartzen du), eta biztanleriak beheranzko joera du. Lurralde egiturari dagokionez, tamaina txikiko udalerrriak ditu. Zahartze tasa nabarmena eta atzerriar jatorriko biztanleriaren presentzia txikia ditu. Industria profil argia du (nahiz eta lehen sektoreak ere pisua baduen), eta tamaina handi samarreko industria establezimenduetan oinarritzen da. Ongizateari dagokionez, lan merkatuak bilakaera positiboa izan du, eta horrek langabezia tasa nabarmen murriztea eta genero arrakala txikitzea ekarri ditu. Era berean, emaitza oso positiboak ditu ingurumenaren arloan, eta lurralde osoan baino segurtasun maila handiagoak ditu. Hala ere, errentak eta hezkuntza mailak Bizkaia osoaren azpitik jarraitzen dute, bilakaera positiboa izan duten arren. Ekonomiaren ikuspegitik, eskualdearen erronka nagusiak biztanleko BPGari, produktibitateari eta enpresen errentagarritasunari lotuta daude, aldagai horietan lurralde osokoak baino hazkunde txikiagoak baititu. Dinamismo ekintzailan, ostera, kontrakoa gertatzen da. Palankei dagokienez, enpresen finantza sendotasunari, kapital naturalari, giza kapitalari, eta jakintzaren arlo jakin batzuei lotutako indarguneak aipatu behar dira (nahiz eta behera egin duen I+Gko gastuaren intentsitateak). Bestalde, nazioartekotzean eta azpiegiturretan erronka nabarmenak ditu.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Lea-Artibaiko biztanleria 25.608 pertsonakoa da guztira, eta behera egin du, dentsitate demografikoak bezala (124,4 biztanle/km²). Biztanleria osoa udalerrri txikietan bizi da (10.000 biztanle baino gutxiagokoetan). Zahartze tasa (% 26,1) lurralde historikoko bigarren handiena da, eta batezbestekoa baino zertxobait gehiago hazi da. Atzerrian jaiotako biztanleriaren ehunekoa (% 12,9) batezbestekoa baino txikiagoa da, eta gutxiago hazi da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Eskualdeko industria profila sektoreko enpleguaren ehunekoan islatzen da (% 35,9), lurralde historikoko handiena baita, Durangaldekoarekin batera. Nekazaritzak eta arrantzak ere garrantzia dute, gainerako eskualdeekin alderatuta (% 7,1, bigarren handiena). Bi kasuetan, jaitsierak lurralde osokoak baino txikiagoak izan dira. Aitzitik, merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (% 5,7) Bizkaiko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa da, eta gutxiago hazi da. Industriaren garrantzia establezimenduen batez besteko tamainan ere ikus daiteke, lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa baita (23 pertsona) eta, gainera, eskualdeen artean hazkunderik handiena izan du. Ekonomia osoko establezimenduen batez besteko tamaina (5 pertsona) eta 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enpleguaren ehunekoa (% 35,9), aldiz, lurralde osoaren azpitik daude, eta hazkundeak txikiagoak izan dira.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua (1.717,2€) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa izateaz gain, proportzio handiagan hazi da.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Eskualdeko batez besteko errenta pertsonala (20.730,3€) ez da lurraldeko batezbestekora iristen, nahiz eta igoera nabarmenagoa izan den.

- *Langabezia*: Lea-Artibaiko lan merkatuaren egoera ona da. Langabezia tasa (% 5,6) eta iraupen luzeko langabezia tasa (% 2,1) Bizkaiko batezbestekoak baino txikiagoak dira (iraupen luzeko langabezia tasa eskualdeen artean txikiena da). Gauza bera gertatzen da enplegu tasen genero arrakalarekin ere (4,4 puntu). Gainera, langabezia tasa neurri handiagoan jaitsi da eskualdean, eta, Bizkaian ez bezala, genero arrakala murriztu egin da.
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea (37,7 1.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da. Hala ere, kriminalitate tasa hori lurralde historikoan baino gehiago hazi da eskualdean.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa (% 71,2) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eskualde guztiak hartuta, hazkunderik handiena izan duen arren.
- *Ingurumena*: Lea-Artibaik arlo horretan izan duen errendimendua bereziki azpimarratzekoa da. Eskualdeak aire kutsadura mailarik txikiena du (urteko 4,8 µg/m³ batez bestekoa), Mungialdearekin batera, baita edukiontzietako gaikako bilketaren bolumen handiena ere (166,2 kg biztanleko urtean). Horrez gain, bilketaren adierazlearen bilakaeran emaitzarik onena izan du. Airearen kutsaduran, ordea, murrizketa Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa izan da.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Biztanleko BPGa (32.707,0€) eta langile bakoitzeko produktibitatea (75,4 mila €) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik daude, eta bi adierazlearen hazkundeak lurralde historikokoetatik urrun daude, batez ere produktibitatearen kasuan.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Enpresen errentagarritasunak ez du emaitza onik, balioak Bizkaiko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoak baitira (% 4,2 errentagarritasun ekonomikoa eta % 4,9 finantza errentagarritasuna). Gainera, behera egin dute bi kasuetan.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,39 izan da, lurralde historikoko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa. Nolanahi ere, erritmo txikiagoan hazi da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Lea-Artibain instalatutako energia berriztagarrien potentzia (3.151,2 kW 10.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino nabarmen handiagoa da, nahiz eta hazkundearen erritmoa txikiagoa izan. Natur baliabideetan diren sektoreetako enpleguaren pisua (% 15,1) handien artean dago, baina lurralde osoan baino proportzio handiagoan jaitsi da.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera % 1,1 da, lurralde historikoaren batezbestekoa baino txikiagoa. Ehuneko horrek gora egin du, Bizkaiko batezbestekoak ez bezala. Gauza bera gertatu da kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen enpleguarekin ere (% 12,9), eta, gainera, batezbesteko balioa baino handiagoa da.
- *Finantzaketa*: Lea-Artibaiko enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 57,6 da; eskualdeen artean mailarik handiena da hori, nahiz eta hazkundea zertxobait txikiagoa izan. Aitzitik, tokiko administrazio publikoen zorra (biztanleko 139,0€) Bizkaiko

batezbestekoaren bikoitza da, eta, lurralde historikoan ez bezala, aztertutako al-dian handitu egin da. Nazioartekotzean askotariko egoerak ikus daitezke. Alde batetik, atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoa (% 4,7) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina gora egin du. Bestalde, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoa (% 6,3) batezbestekoa baino handiagoa da, behera egin badu ere. Azkenik, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 0,9) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta gehiago jaitsi da.

- *Jakintza*: Lea-Artibain 12 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,5. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta lurralde osoan baino gehiago jaitsi da, gainera. Hala ere, bai I+Gko gastua (BPGaren % 1,7), bai DBOn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 2,2) Bizkaiko batez besteko balioak baino handiagoak dira. Bilakaerari dagokionez, I+Gko gastuaren intentsitateak behera egin du eta I+Gn aritzen den langileriak gora egin du, baina erritmo txikiagoan. Bestalde, goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufakturetako enpleguaren pisuak (% 10,4) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, eta hark baino hazkunde handiagoa izan du. Azkenik, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua ere (% 26,8) handitu egin da, baina lurraldean baino mantsoago, eta batezbestekoaren azpitik jarraitzen du.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasak (% 71,6) lurralde historikoko batezbestekoa gainditzen du, eta eskualde guztiak kontuan hartuta, hazkunderik handiena izan du. Goi mailako hezkuntza duten gazteen proportzioari dagokionez (% 60,8), batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da, baina hura baino erritmo handiagoan hazi da.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Alde batetik, udal hauteskundeetako parte hartze tasaren maila (% 67,9) lurralde historikoko batez besteko maila baino handiagoa da, eta jaitsiera ez da hain nabarmena izan. Bestalde, alkate emakumeen ehunekoa (% 50,0) ere lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa da, eta, gainera, gehiago hazi da.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	25.608	-	e.e.	-	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	124,4	-	--	-	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	100	=	++	-	
	Zahartze tasa (%)	2025	26,1	++	++	=	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	12,9	++	--	--	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	5,2	++	--	-	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	23,5	++	++	++	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	34,1	+	--	-	
	Industria enplegua (%)	2024	35,9	-	++	+	
	Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (%)	2025	5,7	=	--	-	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	7,1	--	++	++	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.717,2	++	+	++		
ONGIZATEAREN DIMENTSIORAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	20.730,3	++	-	+	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	5,6	--	--	--	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	4,4	--	--	--	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	2,1	--	--	++	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	37,7	++	--	++	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	71,2	+	--	+	
	Ingurumena						
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	4,8	--	--	++	
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	166,2	++	++	++	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	32.707,0	++	--	--	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	75,4	++	--	--	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	4,2	-	--	--	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	4,9	--	--	--	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,39	++	=	--		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	3.151,2	++	++	--
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	15,1	--	++	--
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	1,1	++	--	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	12,9	++	++	++
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	57,6	++	++	-
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	139,0	++	++	++
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	6,3	--	+	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	4,7	++	--	++
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,9	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	12	--	e.e.	--
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,5	--	--	--
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	1,7	--	++	--
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	2,2	++	++	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	10,4	++	++	++
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	26,8	++	--	=
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	71,6	++	+	+
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	60,8	++	=	+
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	67,9	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	50,0	++	++	++

Meatzaldea

Meatzaldea tamaina txikiko eskualdea da, Bizkaiko biztanleria osoaren % 3,3 hartzen du. Biztanle gehienak udalerrri txikietan bizi dira, eta dentsitate demografiko handia du. Bizkaiko batezbestekoarekin alderatuta, zahartze tasa eta atzerriko biztanleriaren ehunekoa txikiagoak dira, nahiz eta biek goranzko joera duten. Industria profil nabarmena du, eta, horren ondorioz, errendimendu ekonomikoa oso sendoa da. Zehazki, biztanleko BPGari eta produktibitateari begiratuta, lurraldeko baliorik handienetakoak ditu, baita enpresen errentagarritasun handia eta hazkunde handiko enpresen dinamismo nabarmena ere. Hala ere, emaitza ekonomiko on horiekin batera, ahultasun batzuk ageri dira gizarte ongizatean. Izan ere, batez besteko errenta pertsonala Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, langabezia tasa (eta iraupen luzeko langabezia tasa) lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa da eta ingurumen adierazleak ez dira onak. Palanka dinamikoek dagokienez, eskualdeak kapital naturalean eta kapital fisikoan indarguneak ditu, baita espezializazio esanguratsua ere goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko manufacturatan. Enpresen nazioartekotzearen emaitzak hobeak dira atzerriko akziodunak dituzten enpresei begiraturaz gero, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresei begiraturaz gero baino. Zailtasun nagusiak gazteen goi mailako hezkuntzan eta enpresa finantzaketaren eta I+Garen zenbait eremutan nabari dira.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Meatzaldeak 38.418 biztanle ditu. 10.000 biztanletik beherako udalerrietan kontzentratzen da biztanleria (% 69,7), eta dentsitate demografikoa (544,6 biztanle/km²) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da. Zahartze tasa (% 24,1) eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa (% 7,6) lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoak dira, batez ere bigarrenaren kasuan. Hala ere, bi adierazle horiek lurralde historikoan baino proportzio handiagoan hazi dira.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Industria sektoreak pisu handiena duen eskualdeetako bat da (enpleguaren % 33,9), eta, gainera, pisu hori handitu egin da. Nekazaritza eta arrantza, aldiz, enpleguaren % 0,4 baino ez dira, eta proportzio handiagoan jaitsi dira. Merkataritza zerbitzu aurreratuetakoa enpleguari dagokionez (% 6,4), hazkundera izan du, baina lurralde osoan erregistratutako ehunekoaren azpitik jarraitzen du. Establezimenduen batez besteko tamaina (8 pertsona, 22 industrian) lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa da; hala ere, industriaren kasuan, gutxiago hazi da. Bestalde, 50 langiletik gorako establezimenduetako enpleguak (% 44,1) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, nahiz eta igoera hori ere txikiagoa izan.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.795,1 €, Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta hazkunde txikiagoa izan du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak (19.540,5 €) Bizkaiko batez besteko errentaren azpitik jarraitzen du, baina, eskualde guztiak kontuan hartuta, igoerarik handiena izan du.
- *Langabezia:* Langabeziari dagokionez, Meatzaldearen egoera ez da ona. Langabezia tasak (% 9,2 eta % 4,6 iraupen luzekoa) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoak

dira eta, jaitsi diren arren, ez dira lurralde osoan bezainbeste jaitsi. Nabarmentze-koa da enplegu tasen genero arrakalak izan duen bilakaera positiboa (7,4 puntu); izan ere, batezbestekoaren gainetik dagoen arren, murriztea lortu da, lurralde historikoan ez bezala.

- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea 1.000 biztanleko 51,3koa da, eskualdeen artean bigarren handiena. Hala ere, beheranzko bilakaera du, Bizkaian ez bezala.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 71,7 da, eta, bilakaera positiboa izan bada ere, ez da iristen Bizkaiko batezbestekora.
- *Ingurumena*: Meatzaldean, ingurumen adierazleak ez dira positiboak: airearen kutsadura maila (urtean $7,8 \mu\text{g}/\text{m}^3$ batez beste) eta edukiontzietako gaikako bilketa (81,2 kg urtean biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino okerragoak dira. Hala ere, bilakaera positiboa izan da kutsaduraren adierazlean, lurralde osoan baino emaitza hobea lortu baita.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Arlo honetan, eskualdeak emaitza onak ditu, bai mailari begiratuz gero, bai bilakaerari erreparatuta. Biztanleko BPGa 84.565,6 € da, eskualdeen artean bigarren handiena, eta langile bakoitzeko produktibitatea 124,6 mila € da, lurralde historikoko handiena. Aztertutako aldian, bi adierazleak lurralde historikokoak baino erritmo handiagoan hazi dira.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Emaitza ekonomiko sendoak enpresen errentagarritasunean ere islatzen dira. Errentagarritasun ekonomikoak (% 7,1) eta finantza errentagarritasunak (% 12,1) Bizkaia osoko mailak gainditzen dituzte, eta lurralde historikokoak baino hazkunde handiagoak izan dituzte, gainera.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,60 da, eskualde guztietako bigarren baliorik handiena. Hala ere, lurralde osoan izandako hazkundera baino txikiagoa izan du eskualdean.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Meatzaldean instalatutako energia berriztagarrien potentzia (3.195,4 kW 10.000 biztanleko) lurraldeko altuenen artean dago, nahiz eta lurralde historikoko batezbestekoak baino hazkunde txikiagoa izan. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren proportzioa (% 10,6) batezbestekoa baino handiagoa da, eta gutxiago jaitsi da eskualdean.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegituretarako azaleraren ehunekoa (% 5,2) eta kontsumo iraunkorreko eta ekipoko ondasunen industrietako enpleguarena (% 7,3) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik daude. Hala ere, biek neurri handiagoan egin dute atzera.
- *Finantzaketa*: Meatzaldeako enpresen ondareak pasibo osoaren gainean hartzen duen ehunekoa (% 48,3) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, nahiz eta lurraldean batez beste hazi dena baino pixka bat gehiago igo den. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 66,3 €), Bizkaiko batez besteko balioaren antzekoa da, baina lurralde historikoan behera egin du eta eskualdean, ordea, gora. Enpresen nazioartekotzeari dagokionez, atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoa (% 8,0) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta gora egin du, gainera. Bestalde, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehu-

nekoa (% 3,0) lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta jaitsi egin da. Azkenik, finantza sektoreko enpleguak (% 0,9) gora egin du, Bizkaian ez bezala.

- *Jakintza*: Eskualdean 36 establezimendu ari dira I+Gko jarduerak garatzen, hau da, 1.000 biztanleko 0,9. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta gora egin du, gainera. Bai I+Gko gastua (BPGaren % 0,3), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 0,5) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira, eta, gainera, behera egin dute. Bestalde, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren pisuak (% 8,6) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, eta hark baino hazkunde handiagoa izan du. Aitzitik, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren ehunekoak (% 18,4) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta askoz gutxiago hazi da.
- *Giza kapitala*: Meatzaldea Bizkaiko batez besteko enplegu tasara hurbiltzen da (% 69,8), eta batezbestekoak baino hazkunde handiagoa izan du. Hala ere, hezkuntzari dagokionez, egoera ez da hain positiboa; izan ere, hezkuntza maila altua duten gazteen ehunekoak (% 56,2) hazkunde erritmo txikiagoa izan du, eta lurraldeko batezbestekoaren azpitik egoten jarraitzen du.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 62,8) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta lurralde historikoaren erritmo be-rean egin du behera.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia					
	Biztanleria	2025	38.418	-	e.e.	-
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	544,6	-	+	-
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	69,7	=	++	-
	Zahartze tasa (%)	2025	24,1	++	-	++
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	7,6	++	--	++
	Ekonomia eta enpresa egitura					
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	7,9	++	++	++
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	22,4	++	++	-
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	44,1	+	+	-
	Industria enplegua (%)	2024	33,9	+	++	++
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	6,4	++	--	+
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,4	--	--	--
Erakunde egitura eta balioak						
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.795,1	++	++	--	
ONGIZATEAREN DIMENTSIORAK	Bizitza materiala					
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	19.540,5	++	--	+
	Langabezia					
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	9,2	--	++	+
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	7,4	-	++	--
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	4,6	--	++	+
	Gizarte bizitza					
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	51,3	-	+	--
	Ikaskuntza					
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	71,7	+	--	=
	Ingurumena					
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	7,8	--	+	-
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	81,2	++	--	-
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa					
	Biztanleko BPGa (€)	2024	84.565,6	++	++	++
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	124,6	++	++	++
	Enpresa errentagarritasuna					
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	7,1	++	++	++
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	12,1	++	++	++
	Ekintzailtza					
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,60	++	++	--	

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	3.195,4	++	++	-
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	10,6	--	++	++
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	5,2	--	++	--
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	7,3	--	++	--
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	48,3	++	-	=
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	66,3	++	=	++
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	3,0	--	--	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	8,0	++	++	++
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,9	++	--	++
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	36	++	e.e.	++
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,9	++	++	++
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,3	--	--	--
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,5	--	--	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	8,6	++	++	++
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	18,4	=	--	--
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	69,8	++	=	+
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	56,2	=	--	-
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	62,8	--	+	=
	Alkate emakumeak (%)	2023	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.

Mungialdea

Mungialdea biztanle gutxiko eskualdea da (Bizkaiko biztanleria osoaren % 2,4 hartzen du). Batezbestekoak baino hazkunde demografiko handiagoa izan du, eta zahartze tasa eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa txikiak dira. Bere egitura ekonomikoan industriak garrantzi handia du; hala, industriako enpleguaren pisua eta goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren pisua Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoak dira. Hala ere, tamaina txikiko enpresa sarea da nagusi, eta produktibitatearen eta biztanleko BPGaren mailak lurralde osokoak baino txikiagoak dira. Ongizate maila onak ditu, horien artean nabarmentzekoak dira batez besteko errenta pertsonal handia eta langabezia txikia. Emaitzarik onenak genero arrakalan, delituen indizean eta airearen kutsaduran ditu. Palanka dinamikoetan, eskualdeak aurrerapausoak egin ditu kapital naturalean eta kapital fisikoan. Era berean, azpimarratzekoak dira giza kapital sendoa, enplegu tasa handian oinarritutakoa, gazteen hezkuntza maila altua, eta goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguan gainerako eskualdeek baino pisu handiagoa. Oraindik ere erronkak daude enpresen finantzaketan, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuen garapenean, eta erakundeetako emakumeen lidergoan.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Mungialdeak 27.976 biztanle ditu. Bizkaiko batezbestekoak baino hazkunde handiagoa izan du. Dentsitate demografikoari dagokionez (185,3 biztanle/km²), lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina hura baino gehiago hazi da. Biztanleriaren proportzio esanguratsu bat (% 36,5) 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. Eskualdeak du lurralde historikoko bigarren zahartze tasarik txikiena (% 20,4), eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa (% 11,9) lurralde historikoko batezbestekoaren azpitik dago. Zahartze tasa Bizkaikoa baino erritmo handiagoan hazi da; atzerritarren hazkundera, berriz, neurrikoagoa izan da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Ekonomia egituraren ezaugarri nagusia industriaren garrantzia da: industriaren pisua handia da (% 34,0), lurraldeko ehunekorik handien artean dago, eta, gainera, goranzko joera du. Nekazaritza eta arrantzako enplegua ere (% 2,6) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago, nahiz eta behera egin duen. Bestalde, merkataritza zerbitzu aurreratuetakoko enplegua (% 8,7) batezbestekoa baino txikiagoa da, eta behera egin du. Industria sektorearen garrantzia establezimenduen batez besteko tamainan ere ikus daiteke (17 pertsona), tamaina horrek lurralde historikoko batezbestekoa gainditzen baitu. Aitzitik, ekonomia osoko establezimenduen batez besteko tamaina (5 pertsona) eta 50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enpleguaren ehunekoa (% 35,2) lurraldeko batezbestekoaren azpitik daude, nahiz eta biek hazkunde handiagoa izan duten.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua (1.519,5€) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta hark baino hazkunde txikiagoa izan du.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Mungialdea ongi kokatuta dago batez besteko errenta pertsonalari begiratuta (24.871,6€, bigarren altuena), eta errenta horren hazkundera lurraldeko batezbestekoaren antzekoa izan da.

- *Langabezia*: Lan merkatuaren egoera ona da, bai langabezia maila txikiagoa delako (% 5,4, bigarren txikiena, eta % 2,4, iraupen luzeko langabezia), bai beheranzko bilakaera duelako. Hain zuzen ere, iraupen luzeko langabezian jaitsiera handiena izan duen eskualdea da. Era berean, enplegu tasetan dagoen genero arrakala (3,4 puntu) eskualde guztietako txikiena da, eta, gainera, behera egin du, Bizkaiko batezbestekoak ez bezala.
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea (34,9 1.000 biztanleko) eskualde guztien artean txikiena da, eta, handitu den arren, lurraldean baino proportzio txikiagoan egin du gora.
- *Ikaskuntza*: Mungialdean Bizkaiko batezbestekoan baino handiagoa da goi mailako hezkuntza duten herritarren proportzioa (% 81,3), nahiz eta ehuneko horrek hazkunde txikixeagoa izan duen.
- *Ingurumena*: Airearen kutsadura (urteko 4,8 µg/m³ batez beste), Lea-Artibaikoarekin batera, lurralde historikoko txikiena da, baina jaitsiera Bizkaiko batezbestekoarena baino txikiagoa izan da. Edukiontzietako gaikako bilketaren bolumenari dagokionez (102,9 kg biztanleko urtean), lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa izateaz gain, erritmo handiagoan hazi da.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Biztanleko BPGa (39.579,6 €) eta langile bakoitzeko produktibitatea (79,5 mila €) ez dira Bizkaiko batezbestekora iristen. Gainera, bi alda gai horien hazkundeak lurralde osoan baino txikiagoak izan dira.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Enpresen errentagarritasun ekonomikoak (% 7,0) eta finantza errentagarritasunak (% 14,9) Bizkaiko batez besteko balioak gainditzen dituzte. Azpimarratzekoa da biek izan dituztela bilakaera positibo handienak, eskualde guztiak kontuan hartuta.
- *Ekintzailletza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,46 da, lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa. Hura baino neurri handiagoan hazi da, gainera.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Eskualdean instalatutako energia berriztagarrien potentzia (1.176,3 kW 10.000 biztanleko) Bizkaiko batezbestekoa baino askoz txikiagoa da. Hala ere, nabarmentzekoa da hazkunde esanguratsua izan duela, batez ere azken urtean. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari dagokionez (% 10,6), batezbestekoa baino handiagoa da, eta lurralde historikoko ehunekoaren antzeko proportzioan jaitsi da.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azaleraren ehuneko (% 1,4) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da. Hala ere, gorakada izan du, lurralde historikokoak ez bezala. Gauza bera gertatu da kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen enpleguarekin ere (% 6,4) Gainera, ehuneko hori batezbestekoa baino handiagoa da.
- *Finantzaketa*: Mungialdeko enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 47,5 da, eta lurralde historikoko batez besteko mailara ez iristeaz gainera, gutxiago hazi da. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 1,2 €), oso txikia da, eta, gainera, Bizkaiko batezbestekoa baino gehiago jaitsi da. Nazioartekotzearen

esparruan, enpresek lurralde historikoaren batez besteko emaitza baino hobea dute atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen proportzioan (% 7,3), eta okerragoa atzerriko akziodunak dituzten enpresetan (% 5,5). Gainera, bietan behera egin du ehunekoak. Azkenik, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 0,9) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eta atzerakada handiagoa izan du lurralde historiko osoan baino.

- *Jakintza*: Eskualdean 23 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,8. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, baina lurralde osoan baino gehiago jaitsi da. I+Gko gastua (BPGaren % 1,5) eta DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 2,2) Bizkaiko batez besteko balioak baino handiagoak dira; langileetan, batezbestekoak baino hazkunde handiagoa izan da, eta gastuan, berriz, txikiagoa. Enpleguari buruzko adierazleak aztertuta, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufacturetako enpleguaren ehunekoa (% 14,4) eskualdeen artean handiena da, nahiz eta haren hazkundera Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa izan den. Bestalde, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren proportzioak ere (% 25,7) hazkunde txikiagoa izan du eta, kasu honetan, lurralde historikoko batezbestekoaren azpitik dago.
- *Giza kapitala*: Eskualdeak egoera ona du, eta lurralde historikoko batez besteko mailetatik gora dago bai enplegu tasan (% 73,3), bai goi mailako hezkuntza duten gazteen proportzioan (% 68,2). Hala ere, hezkuntza mailaren bilakaera lurralde historikokoarenaren antzekoa izan bada ere, enplegu tasaren kasuan okerragoa izan da.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 64,9) lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa da, eta jaitsiera txikiagoa izan du. Bestalde, alkate emakumeen ehunekoa (% 33,3) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta, gainera, behera egin du.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	27.976	++	e.e.	+	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	185,3	+	--	+	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	36,5	+	++	=	
	Zahartze tasa (%)	2025	20,4	++	--	++	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	11,9	++	--	--	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	4,7	++	--	+	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	17,0	++	++	--	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	35,2	++	--	++	
	Industria enplegua (%)	2024	34,0	+	++	++	
	Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (%)	2025	8,7	--	--	--	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	2,6	--	++	++	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.519,5	++	--	--		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	24.871,6	++	++	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	5,4	--	--	--	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	3,4	--	--	--	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	2,4	--	--	--	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	34,9	+	--	--	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	81,3	+	++	-	
	Ingurumena						
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	4,8	--	--	++	
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	102,9	++	++	++	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	39.579,6	++	--	--	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	79,5	++	-	--	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	7,0	++	++	++	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	14,9	++	++	++	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,46	++	++	++		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	1.176,3	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	10,6	--	++	=
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)	2024	1,4	++	--	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	6,4	++	++	++
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	47,5	+	-	--
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	1,2	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	7,3	--	++	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	5,5	--	--	--
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,9	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	23	--	e.e.	--
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,8	--	++	--
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	1,5	+	++	--
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	2,2	++	++	++
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	14,4	+	++	-
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	25,7	++	--	-
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	73,3	++	+	-
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	68,2	+	++	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	64,9	--	++	+	
Alkate emakumeak (%)	2023	33,3	--	--	--	

Nerbioi-Ibaizabal

Nerbioi-Ibaizabal eskualdeak tamaina ertain-handia du, Bizkaiko biztanleria osoaren % 6,8 hartzen baitu. Lurralde osokoa baino hazkunde demografiko txikiagoa du. Lurralde historikoak baino zahartze tasa eta atzerriko biztanleriaren tasa txikiagoak ditu, baina azken horrek hazkunde nabarmena izan du azken hamar urteetan. Bere egitura ekonomikoaren ezaugarria industriaren pisu handia da, sektoreko enpleguaren hazkundearekin batera (gauza bera gertatzen da merkataritza zerbitzu aurreratuetan ere). Establezimenduen batez besteko tamaina ere beste eskualde batzuetan baino handiagoa da. Ongizateari dagokionez, batez besteko errenta pertsonala Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago. Lan merkatuak iraupen luzeko langabezia tasan soilik ditu emaitza positiboak; izan ere, langabezia tasa orokorrak eta genero arrakalak lurraldeko batezbestekoa gainditzen dute. Ingurumenaren arloan, adierazleek hobekuntza erritmoa bizkortu behar dela adierazten dute. Ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik, biztanleko BPGa lurraldeko batezbestekoaren azpitik dago. Hala ere, langile bakoitzeko produktibitateak eta enpresaren errentagarritasunak emaitza positiboak dituzte, eta, gainera, dinamismo ekintzailea handiagoa da. Azkenik, palanka dinamikoek aurrerapenak erakusten dituzte giza kapitalean, jakintzarekin lotutako adierazle batzuetan eta energia berriztagarrietan, baina egoera okerragoa da azpiegituretan, finantzaketan, I+Gn, eta gizarte eta erakunde kapitalean.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturezko ingurunea

- *Geo-demografia:* Nerbioi-Ibaizabalek 78.960 biztanle ditu, eta Bizkaiko batezbestekoa baino hazkunde demografiko txikiagoa izan du. Era berean, 10.000 biztanlelik beherako udalerrietan bizi diren pertsonen ehunekoa (% 19,1) eta dentsitate demografikoa (315,1 biztanle/km²) lurralde historikoan baino proportzio txikiagoan hazi dira. Zahartze tasa (% 24,3) eta atzerrian jaiotako biztanleen proportzioa (% 11,1) batezbestekoaren azpitik daude. Lehenengoa zertxobait gutxiago hazi da; bigarrenak, berriz, hazkunde nabarmen handiagoa izan du.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Industria sektoreko enpleguak (% 24,5) lurralde historikoko batezbestekoak baino balio handiagoa du, eta, gainera, bilakaera positiboa izan du. Aitzitik, nekazaritzako enpleguak (% 0,6) balio txikiagoa du, eta jaitiera lurralde osokoa baino nabarmenagoa izan da. Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguari dagokionez (% 6,0), batezbestekoaren azpitik badago ere, hazkunde handiagoa izan du. Establezimenduen batez besteko tamaina (5 pertsona, 17 industrian) lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa da, industria sektoreko establezimenduak hartzen baditugu. Bestalde, 50 langile baino gehiagoko establezimenduetako enplegua (% 33,9) batezbestekoaren azpitik dago. Adierazle hori eta batez besteko tamainarena lurralde osokoa baino erritmo txikiagoan hazi dira.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.481,5 €, Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eta hura baino gutxiago hazi da.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonala 19.644,6 eurokoa da. Lurralde osoko batezbestekoaren antzeko hazkundera izan du, eta Bizkaiko batezbestekoaren azpitik egoten jarraitzen du.

- *Langabezia*: Bai langabezia tasa, bai iraupen luzeko langabezia tasa (% 8,3 eta % 4,1, hurrenez hurren) Bizkaiko balioetatik hurbil daude, baina bilakaera hobea da lehen adierazlean eta okerragoa, bigarrenean. Enplegu tasetan dagoen genero arrakalari begiratzuz gero (7,4 puntu), eskualdeen artean handiena da, eta, gainera, lurralde historikoan baino proportzio handiagoan hazi da.
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea 1.000 biztanleko 43,1 da, eta lurralde osoan baino gehiago hazi bada ere, Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 70,7 da, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa, nahiz eta eskualdean lurralde historikoan baino pixka bat gehiago hazi den.
- *Ingurumena*: Ingurumen adierazleen arabera, eskualdearen egoera, beste eskualdeekin alderatuta, okerragoa da, bai airearen kutsadurari dagokionez (urteko 8µg/m³ batez beste), bai edukiontzietako gaikako bilketari dagokionez (92,8 kg biztanleko urtean). Gainera, bi adierazleetan izan den bilakaera ez da nahikoa izan, lurralde osoarekin alderatuta.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Nerbioi-lbaizabaleko biztanleko BPGa (38.263,0 €) Bizkaiko batezbestekoaren azpitik dago, eta horrek baino hazkunde txikiagoa izan du. Aldiz, langile bakoitzeko produktibitatea (84,7 mila €) batezbestekoa baino handiagoa da eta, gainera, neurri handiagoan handitu da.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Enpresen errentagarritasuna lurraldeko batezbestekoaren gainetik dago errentagarritasun ekonomikoaari begiratzuz badiogu (% 7,0), eta batezbestekoaren azpitik, berriz, finantza errentagarritasunari begiratuta (% 10,7). Biek bilakaera positiboa izan dute, eta finantza errentagarritasunaren hazkundera lurralde historikoarena baino handiagoa izan da.
- *Ekintzaitzeta*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,32 da. Bizkaiko batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa da, eta, gainera, proportzio txikiagoan hazi da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Alde batetik, instalatutako energia berriztagarrien potentzia (405,9 kW 10.000 biztanleko) lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoa da, nahiz eta goranzko joera nabarmena duen. Bestalde, natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren ehunekoak (% 7,4) Bizkaiko batezbestekoa gainditzen du, baina balio horrek baino gehiago egin du behera.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekoak (% 1,7) lurraldeko batezbestekoaren azpitik dago, bilakaera positiboa izan duen arren. Bestalde, kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguaren proportzioak (% 4,2) behera egin du, eta hori ere Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da.
- *Finantzaketa*: Nerbioi-lbaizabaleko enpresen ondareak pasibo osoan duen proportzioa (% 48,1) ez da Bizkaiko batezbestekora iristen, eta hark baino hazkunde txikiagoa izan du. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 46,6 €), lurralde historikoan baino gehiago murriztea lortu da, eta batezbestekoaren azpitik dago. Nazioartekotzeari lotutako adierazleetan, Bizkaiko batez besteko

balioen azpitik daude eskualdekoak. Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen ehunekoa (% 3,3) gehiago hazi da nabarmen, eta atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoa (% 2,6), berriz, jaitsi egin da. Bestalde, finantza sektoreko enpleguaren ehunekoa (% 1,0) lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta lurralde historikoan baino gehiago egin du behera.

- *Jakintza*: Eskualdean 25 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 0,3. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina lurralde osoan baino gutxiago jaitsi da. Bai I+Gko gastua (BPGaren % 0,4), bai DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enplegu osoaren % 0,5) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira, eta, gainera, behera egin dute. Enpleguaren bi adierazleak Bizkaiko batezbestekoaren azpitik daude, nahiz eta bilakaera positiboa den. Bereziki, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren ehunekoa (% 2,5) lurraldeko batezbestekoaren gainetik hazi da. Bestalde, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (% 24,5) lurralde historikoko batezbestekoaren proportzio berean hazi da, eta, orain, hura baino zertxobait handiagoa da.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasa (% 70,8) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago, eta lurralde osoko antzeko hazkundera izan du. Hezkuntza maila handiko gazteen ehunekoari dagokionez (% 55,4), ez da lurraldeko batezbestekora iristen, nahiz eta hark baino hazkunde handiagoa izan.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 60,2) lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa da, baina jaitsiera pixka bat handiagoa izan du. Bestalde, alkate emakumeen ehunekoari dagokionez (% 20,0), ez da aldatu, eta Bizkaiko eskualde guztien artean txikiena da.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	78.960	=	e.e.	-	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	315,1	=	--	=	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	19,1	+	=	=	
	Zahartze tasa (%)	2025	24,3	++	-	=	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	11,1	++	--	++	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	5,4	++	-	--	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	17,4	++	++	--	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	33,9	+	--	=	
	Industria enplegua (%)	2024	24,5	+	++	++	
	Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (%)	2025	6,0	++	--	++	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,6	--	--	--	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.481,5	++	--	--		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	19.644,6	++	--	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	8,3	--	+	+	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	7,4	++	++	++	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	4,1	--	-	-	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	43,1	++	--	++	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	70,7	+	--	=	
	Ingurumena						
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	8,0	--	+	++		
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	92,8	++	-	--		
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	38.263,0	++	--	-	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	84,7	++	+	+	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	7,0	++	++	--	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	10,7	++	--	++	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,32	++	--	--		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	405,9	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	7,4	--	++	--
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azalera (%)	2024	1,7	++	--	++
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	4,2	-	-	-
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	48,1	=	-	--
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	46,6	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	3,3	++	--	++
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	2,6	--	--	--
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,0	--	--	-
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	25	-	e.e.	=
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,3	-	--	+
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,4	--	--	--
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,5	--	--	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	2,5	++	--	+
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	24,5	++	--	=
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	70,8	++	+	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	55,4	+	--	+
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	60,2	--	=	=
	Alkate emakumeak (%)	2023	20,0	=	--	--

Txorierri

Txorierri Bizkaian biztanle gutxien dituen eskualdea da, lurralde historikoko biztanleria osoaren % 1,9 hartzen du. Eskualdea udalerri txikiek osatzen dute gehienbat. Lurraldeko batezbestekoa baino zahartze tasa txikiagoa eta atzerritar biztanleriaren proportzio txikiagoa du. Ekonomia eta enpresa egiturari dagokionez, Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologiaren presentziak baldintzatzen du nabarmen, eta horrek azaltzen du industriako enpleguaren eta merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren pisu handia, nahiz eta bi kasuetan beheranzko bilakaera izan. Nabarmenezkoa da, halaber, establezimenduen batez besteko tamaina handiagoa eta enpleguaren kontzentrazio handia tamaina handiko enpresetan. Ongizateari dagokionez, batez besteko errenta Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta langabezia maila apala da. Gainera, lurralde osoan baino jaitsiera handiagoak izan ditu. Enplegu tasetako genero arrakala ere txikia da. Hala ere, gizarte arloan delituen indizea handi samarra da. Ingurumenari begiratzuz gero, adierazleek aurreapenak izan dituzte, baina ez dira nahikoak airearen kalitatearen kasuan. Ekonomiaren ikuspegitik, biztanleko BPG eta produktibitatea eskualdeetako handien artean daude, nahiz eta hazkunde erritmoa lurralde historikokoa baino txikiagoa izan den. Eskualdea liderra da hazkunde handiko enpresen eta I+Gko jarduerak garatzen duten establezimenduen kopuruan. Palanka dinamikoek dagokienez, aurreapen esanguratsuak izan dira kapital fisikoan eta giza kapitalean, bai eta energia berriztagarrietan, enpresa finantzaketan eta I+Gko jardueretan ere. Aitzitik, enpresa finantzaketan edo jakintzan intentsiboak diren sektoreetako enpleguan, nahiz eta maila handia izan, atzera egin da.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Txorierri biztanle gutxien dituen Bizkaiko eskualdea da, guztira 22.229 pertsona bizi dira bertan. Dentsitate demografikoa (250,7 biztanle/km²) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da. Biztanleria osoa 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi da. Zahartze tasa (% 21,6) eta atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa (% 10,8) lurraldeko batezbestekoa baino txikiagoak dira, batez ere bigarrena. Atzerritarren tasa batezbestekoa baino gehiago hazi da; zahartze tasaren hazkundea, berriz, eskualde guztien artean apalena izan da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Eskualdeak du merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren ehunekorik handiena (% 24,1), eta industriako enpleguan ere (% 27,3) batezbestekoaren gainetik dago. Bestela gertatzen da nekazaritza eta arrantza sektoreko enpleguan (% 0,7). Aipatzekoa da hiru kasuetan behera egin dutela sektore bakoitzak enplegu osoan duen pisua. Establezimenduen batez besteko tamainari dagokionez (13 pertsona, 25 industrian), berriz ere lurralde historikoko mailarik handienak ditu, eta hura baino erritmo handiagoan hazi dira, gainera. 50 langile baino gehiagoko establezimenduetako enplegua ere (% 53,8) handiena da, nahiz eta kasu honetan jaitsi egin den.
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua 2.008,7 eurokoa da, lurraldeko handiena, eta erritmo handiagoan hazi da.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala*: Batez besteko errenta pertsonala (22.995,8€) Bizkaiko batez besteko errenta baino handiagoa da, eta igoera erritmoa lurralde osokoaren parekoa izan da.
- *Langabezia*: Enpleguari dagokionez, Txorierriren egoera positiboa da, argi eta garbi. Langabezia adierazle guztiak Bizkaiko batezbestekoen azpitik daude, eta bereziki nabarmentzen da langabezia tasa orokorra (% 5,0), lurraldeko txikiena baita. Iraupen luzeko langabezia tasa (% 2,2) bigarren txikiena da. Gainera, tasa horietan izandako jaitsierak Bizkaia osokoak baino handiagoak izan dira. Azkenik, enplegu tasetan dagoen genero arrakala (5,0 puntu) ere batezbestekoa baino txikiagoa da eta, gainera, behera egin du, lurralde osoan ez bezala.
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea (1.000 biztanleko 53,5) Bizkaia osoan baino gutxiago hazi da, baina eskualde guztien artean handiena da.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioa % 80,8 da, eta, bilakaera positiboa izan bada ere, ez da iristen Bizkaiko batezbestekora.
- *Ingurumena*: Txorierrin, ingurumen adierazleek bilakaera positiboa izan dute. Alde batetik, airearen kutsadura mailak (urtean 7,8 µg/m³ batez beste) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik daude, baina bilakaera hobea izan dute. Era berean, edukiontzietako gaikako bilketak (138,4 kg biztanleko eta urteko), lurraldeko batezbestekoa gainditzeaz gainera, beherakada handiagoa izan du.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Eskualdearen emaitzak oso nabarmenak dira esparru honetan, eta Bizkaiko batez besteko balioen oso gainetik daude. Hala, biztanleko BPGa (180.629,8€) eskualdeen artean handiena da, eta alde handia dago hurrengoekin. Bestalde, langile bakoitzeko produktibitatea 88,0 mila eurokoa da. Hala ere, bi adierazleek lurralde osoan izandako hazkundera baino txikiagoa izan dute eskualdean.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Errentagarritasun ekonomikoa (% 6,6) lurralde osokoaren gainetik dago, eta finantza errentagarritasuna (% 11,4) lurraldekoaren parekoa da. Biek izan dituzte Bizkaian baino igoera handiagoak, batez beste.
- *Ekintzailletza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 2,65 da, eskualde guztien artean baliorik handiena, alde handiarekin. Hala ere, kopuru horren hazkundera lurralde osokoarena baino txikiagoa izan da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Txorierrin instalatutako energia berriztagarrien potentzia (3.099,2 kW 10.000 biztanleko) lurraldeko handien artean dago, eta haren hazkundera lurralde historikoko batezbestekoarena baino handiagoa izan da. Azken urtean, bikoiztu egin da. Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enpleguaren proportzioa (% 4,0), ordea, batezbestekoa baino txikiagoa da, eta gehiago jaitsi da eskualdean.
- *Kapital fisikoa*: Garraio eta komunikazio azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekoak (% 5,4) lurralde historiko osoan baino gehiago jaitsi da, baina batezbestekoaren gainetik egoten jarraitzen du. Bestalde, kontsumo ondasun iraunkorren

eta ekipo ondasunen industrietako enpleguak (% 14,6) eskualde honetan izan du hazkunderik handiena, eta eskualde guztien artean baliorik handiena izaten jarraitzen du. Lurralde osoan, balio horrek behera egin du.

- *Finantzaketa*: Txorierriko enpresen ondareak pasibo osoan duen proportzioa (% 50,8) Bizkaiko batezbestekoaren gaineratik dago, baina hazkunde txikiagoa izan du. Tokiko administrazio publikoen zorrari dagokionez (biztanleko 31,4€), lurralde historikoan izandako bilakaeraren kontrakoa du, eta, batezbestekoaren azpitik geratzen bada ere, hazkunderik handiena izan du. Enpresen nazioartekotzeak emaitza positiboak izan ditu; izan ere, atzerriko akziodunak dituzten enpresen ehunekoa (% 11,7) eta atzerrian eskumendekoak dituzten enpresenak (% 7,0) Bizkaiko batez besteko balioak gaintuzten dituzte. Hala ere, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen proportzioak behera egin du, eta atzerriko akziodunak dituzten enpresena lurralde historikoan baino gutxiago hazi da. Azkenik, finantza sektoreko enplegua (% 0,3) eskualdeen artean txikiena da, eta, gainera, beherakada nabarmenagoa izan du.
- *Jakintza*: Txorierrin 137 establezimendu ari dira I+Gko jardueretan, hau da, 1.000 biztanleko 6,2. Balio hori eskualdeen artean handiena da, nahiz eta Bizkaiko batezbestekoa baino gehiago jaitsi den. I+Gko gastuan (BPGaren % 7,4) eta DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileen ehunekoan (enplegu osoaren % 7,4) eskualdeko balioak Bizkaiko handienak dira, eta bilakaera positiboa izan dute, baina Bizkaiko batez besteko balioena baino erritmo txikiagoan. Goi teknologiako eta erdigo teknologiako manufakturetako enpleguaren bilakaera aztertuz gero (% 13,4), eskualdeen artean bigarren handiena eta, eta batezbestekoa baino gehiago hazi da. Aitzitik, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enpleguaren ehunekoa (% 34,2) Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta behera egin du, gainera.
- *Giza kapitala*: Eskualde guztiak kontuan hartuta, Txorierrik du enplegu tasarik handiena (% 74,3). Era berean, hezkuntzari dagokionez, mailarik onena du, goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoa (% 66,4) lurraldeko batezbestekoaren gaineratik baitago eta, gainera, lurralde osoak baino hazkunde erritmo pixka bat handiagoa izan du.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (% 67,6) Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa da, eta lurralde historikoan baino gutxiago egin du behera. Alkate emakumeen proportzioari dagokionez (% 50,0), lurralde historikoan baino hazkunde handiagoa izan du, eta, horrela, lurraldeko batezbestekoaren gaineratik dago.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea		
					Maila	Aldaketa	
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia						
	Biztanleria	2025	22.229	++	e.e.	++	
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	250,7	++	--	+	
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	100	=	++	-	
	Zahartze tasa (%)	2025	21,6	++	--	-	
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	10,8	++	--	++	
	Ekonomia eta enpresa egitura						
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	13,0	++	++	++	
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	24,7	++	++	++	
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	53,8	-	++	-	
	Industria enplegua (%)	2024	27,3	--	++	-	
	Merkataritza zerbitzu aurreratuetako enplegua (%)	2025	24,1	-	++	--	
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,7	--	--	++	
Erakunde egitura eta balioak							
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	2.008,7	++	++	++		
ONGIZATEAREN DIMENTSIOAK	Bizitza materiala						
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	22.995,8	++	++	=	
	Langabezia						
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	5,0	--	--	--	
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	5,0	--	--	--	
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	2,2	--	--	-	
	Gizarte bizitza						
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	53,5	++	++	-	
	Ikaskuntza						
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	80,8	+	++	=	
	Ingurumena						
	Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	7,8	--	+	-	
	Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	138,4	++	++	++	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa						
	Biztanleko BPGa (€)	2024	180.629,8	++	++	--	
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	88,0	++	++	--	
	Enpresa errentagarritasuna						
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	6,6	++	+	++	
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	11,4	++	=	++	
	Ekintzailtza						
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	2,65	++	++	--		

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	3.099,2	++	++	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	4,0	--	--	--
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	5,4	--	++	--
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	14,6	++	++	++
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	50,8	++	+	--
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	31,4	++	--	++
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	7,0	--	++	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	11,7	+	++	-
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	0,3	--	--	--
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	137	-	e.e.	+
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	6,2	--	++	-
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	7,4	++	++	-
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	7,4	+	++	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	13,4	++	++	=
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	34,2	=	--	--
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	74,3	++	++	-
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	66,4	+	++	=
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	67,6	--	++	+
	Alkate emakumeak (%)	2023	50,0	++	++	++

Uribe-Kosta

Uribe-Kostak Bizkaiko biztanleria osoaren % 3,6 hartzen du eta eskualdean, biztanleria nabarmen ari da hazten. Eskualdeen artean zahartze tasarik txikiena du, eta atzeritarren proportzioa ere txikia da. Haren enpresa egitura aztertuz gero, nekazaritza eta arrantzako enpleguaren pisua lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa dela ikusiko dugu, eta industriako eta merkataritza zerbitzu aurreratuetako enpleguaren pisua, berriz, txikiagoa da. Establezimenduak, oro har, txikiak dira. Hala ere, ikusten da enplegatuen batez besteko kopuruak eta enpresa handienetako enpleguaren kontzentrazioak gora egin dutela. Ongizateari dagokionez, eskualdeak batez besteko errenta pertsonal handia du, lan merkatuaren egoera oso ona da, eta eskualdeen artean hezkuntza maila handienak ditu. Ingurumen adierazleetan ere, hobera egin du. Ekonomiaren arloan, biztanleko BPGa lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoa da, eta hazkunde apalagoa izan du. Hala ere, produktibitatea eta enpresen errentagarritasuna altuenen artean daude. Azkenik, palanka dinamikoek kapital fisikoaren eta giza kapitalaren sendotasuna erakusten dute, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako espezializazio nabarmenarekin batera. Finantzaketan, nabarmentzekoa da tokiko zor publikorik ez dagoela, eta enpresen nazioartekotzean, berriz, atzera egin da, atzerrian eskumendekoak dituzten enpresen proportzioak lurralde osoko handiena izaten jarraitzen badu ere. Ahultasun nagusiak kapital naturalean, goi teknologiko eta erdi-goi teknologiko enpleguaren eta I+Dgko jardueretan daude.

Jarraian, emaitzak dimentsioaren arabera aurkezten dira:

Egiturazko ingurunea

- *Geo-demografia:* Uribe-Kostak 42.110 biztanle ditu, eta biztanleria handitzen ari da. Dentsitate demografiko handia du (619,9 biztanle/km²), Bizkaiko batezbestekoa baino handiagoa. Herritarren % 66,7 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. Zahartze tasa (% 19,3) eskualde guztien artean txikiena da, nahiz eta igoera lurraldeko batezbestekoa baino handiagoa izan den. Bestalde, atzerrian jaiotako biztanleen proportzioa (% 8,8) eskualdeen artean bigarren txikiena da, eta lurralde historikokoa baino erritmo txikiagoan hazi da.
- *Ekonomia eta enpresa egitura:* Industria sektoreak enpleguan duen pisua (% 13,7) eta merkataritza zerbitzu aurreratuek enpleguan duten pisua (% 13,0) Bizkaiko batezbestekoen azpitik daude; nekazaritza eta arrantzako enpleguak (% 0,9), berriz, batezbestekoa gainditzen du. Oro har, sektore horiek enplegu osoan duten parte hartzeak behera egin du, eta lurralde historikoan baino gehiago, gainera. Establezimenduen batez besteko tamaina (4 pertsona, 14 industrian) eta 50 langile edo gehiagoko enpresetako enplegua (% 37,8) lurraldeko balioen azpitik daude, nahiz eta hazkundeak handiagoak izan diren (industria establezimenduen kasuan izan ezik).
- *Erakunde egitura eta balioak:* Biztanleko batez besteko gastua, 1.525,9 eurokoa, Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, nahiz eta erritmo handiagoan hazi.

Ongizatearen dimentsioak

- *Bizitza materiala:* Batez besteko errenta pertsonalak (24.281,5€) lurralde historiko osoan baino hazkunde txikixeagoa izan du, baina haren gaintetik egoten jarraitzen du.

- *Langabezia*: Uribe-Kostak egoera ona du lan merkatuari begiratuz gero: erregistra-tutako langabezia tasa (% 5,7), iraupen luzeko langabezia tasa (% 2,9) eta enplegu tasetako genero arrakala (3,7 puntu) lurralde osokoak baino txikiagoak dira. Adie-razle horiek guztiek hobekuntzak izan dituzte aldiaren hasierarekin alderatuta; guztien artean, bereziki nabarmentzekoa da genero arrakalan izan den jaitsiera, eskualdeen artean handiena izan baita.
- *Gizarte bizitza*: Delituen indizea 1.000 biztanleko 41,0 da, lurralde osokoa baino txi-kiagoa. Gora egin badu ere, Bizkaiko batezbestekoa baino proportzio txikiagoan hazi da.
- *Ikaskuntza*: Goi mailako hezkuntza duen biztanleriaren ehunekoa (% 87,2) lurralde historikoko handiena da, nahiz eta batezbestekoa baino pixka bat gutxiago hazi.
- *Ingurumena*: Alde batetik, atmosferaren kutsadura (urteko 5,4 µg/m³ batez beste) lurralde historikokoa baino txikiagoa da, nahiz eta beherakada txikiagoa izan den. Bestalde, edukiontzietako gaikako bilketak (107,2 kg biztanleko eta urteko) lurralde osoan baino hobekuntza handiagoa izan du, eta batezbestekoa gainditu du.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- *Errendimendu ekonomikoa*: Uribe-Kostako biztanleko BPGa (28.519,8€) Bizkaiko ba-tezbestekoaren azpitik dago, eta lurralde osoan baino erritmo motelagoan hazi da. Bestalde, langile bakoitzeko produktibitatea (89,0 mila €) altuenen artean dago, baina igoera ere txikiagoa izan da.
- *Enpresa errentagarritasuna*: Eskualdeak emaitzarik onenak izan ditu arlo honetan: % 9,3ko errentagarritasun ekonomikoa izan du eta % 16,2ko finantza errentagarri-tasuna. Bi adierazleek batezbestekoak baino hazkunde txikiagoak izan dituzte.
- *Ekintzailtza*: Hazkunde handiko enpresen kopurua 1.000 biztanleko 0,14koa da, lurralde historikoko batezbestekoa baino txikiagoa. Baina hazkundera azpimarra-tzeko modukoa izan da.

Palanka dinamikoak

- *Kapital naturala*: Uribe-Kostan instalatutako energia berriztagarrien potentzia (370,6 kW 10.000 biztanleko) ez da iristen Bizkaiko batezbestekora, baina haz-kunde handiagoa izan du. Baliabide naturaletan intentsiboak diren sektoreetako enpleguari dagokionez (% 3,3), lurralde osokoak baino pisu txikiagoa du, eta behe-rakada nabarmenena izan du.
- *Kapital fisikoa*: Uribe-Kostak egoera positiboa du palanka honetan; izan ere, garraio eta komunikazioko azpiegiturretara bideratutako azaleraren ehunekoak (% 2,3) eta kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enpleguak (% 6,2) Bizkaiko batez besteko balioak gainditzen dituzte. Lurralde historikoan ez bezala, bilakaera positiboak izan dira aldi horretan.
- *Finantzaketa*: Eskualdeko enpresen ondare garbia pasibo osoaren % 50,6 da, Biz-kaiko batezbestekoa baino balio handiagoa. Hala ere, gutxiago hazi da. Eskualdeak tokiko administrazio publikoen zorra zerora murriztea lortu du, eta egoera horre-tan dagoen eskualde bakarra da. Nazioartekotzeari dagokionez, atzerrian esku-mendekoak dituzten enpresen proportzioak (% 8,8) eta atzerriko akziodunak dituz-ten enpresenak (% 1,8) behera egin dute, baina lehenak eskualde guztien artean handiena izaten jarraitzen du. Azkenik, finantza sektoreko enplegua (% 1,2) lu-

rralde historiko osokoa baino txikiagoa da, eta hark baino jaitsiera handiagoa izan du.

- *Jakintza*: Eskualdean 12 establezimendu ari dira I+Gko jarduerak garatzen, hau da, 1.000 biztanleko 0,3. Balio hori Bizkaiko batezbestekoa baino txikiagoa da, baina, lurralde osoan ez bezala, gora egin du. I+Gko gastua (BPGaren % 0,4) eta DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileen proportzioa (enplegu osoaren % 0,6) Bizkaiko batez besteko balioak baino txikiagoak dira, eta, gainera, behera egin dute. Bestalde, goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enpleguaren ehunekoa (% 1,9) lurraldeko batezbestekoaren azpitik dago, eta behera egin du. Aitzitik, jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua enplegu guztiaren erdia baino gehiago da (% 52,2), beste edozein eskualdetakoa baino handiagoa. Gainera, eskualde guztien artean erritmorik handiengan hazi da.
- *Giza kapitala*: Enplegu tasa (% 73,1) Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago, baita goi mailako hezkuntza duten gazteen ehunekoa ere (% 73,5). Berriro ere, ehuneko hori eskualde guztien artean handiena da. Bi adierazleek gora egin dute, eta hezkuntza mailaren igoera lurralde historikoan izandakoa baino handiagoa izan da.
- *Gizarte eta erakunde kapitala*: Udal hauteskundeetako parte hartze tasak (% 62,3) beherakadarik handiena izan du, baina, hala ere, batezbestekoaren gainetik dago. Alkate emakumeen ehunekoari dagokionez (% 57,1), lurralde historikoko batezbestekoa baino handiagoa da, eta, gainera, gora egin du eta neurri handiagoan.

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
EGITURAZKO INGURUNEA	Geo-demografia					
	Biztanleria	2025	42.110	++	e.e.	++
	Dentsitate demografikoa (biztanleak km ² bakoitzeko)	2024	619,9	++	++	++
	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2025	66,7	+	++	=
	Zahartze tasa (%)	2025	19,3	++	--	++
	Atzerrian jaiotako biztanleria (%)	2025	8,8	++	--	--
	Ekonomia eta enpresa egitura					
	Establezimenduen batez besteko tamaina	2025	4,0	++	--	++
	Industria establezimenduen batez besteko tamaina	2024	14,0	++	--	-
	50 langile edo gehiagoko establezimenduetako enplegua (%)	2025	37,8	++	--	++
	Industria enplegua (%)	2024	13,7	--	--	--
	Merkataritza zerbitzu aurreratueta enplegua (%)	2025	13,0	--	--	--
	Nekazaritza eta arrantzako enplegua (%)	2025	0,9	--	++	--
Erakunde egitura eta balioak						
Biztanleko batez besteko udal gastua (€)	2023	1.525,9	++	--	++	
ONGIZATEAREN DIMENTSIOK	Bizitza materiala					
	Batez besteko errenta pertsonala (€)	2023	24.281,5	++	++	-
	Langabezia					
	Langabezia tasa (16-74 urte arteko biztanleria aktiboaren %)	2024	5,7	--	--	--
	Enplegu tasen genero arrakala (ehuneko puntuak)	2024	3,7	--	--	--
	Iraupen luzeko langabezia tasa erregistratua (16-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	2,9	--	--	+
	Gizarte bizitza					
	Delituen indizea 1.000 biztanleko	2023	41,0	++	--	-
	Ikaskuntza					
	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duen 25-64 urte arteko bizt. (%)	2024	87,2	++	++	=
	Ingurumena					
Airearen kutsadura (PM 2,5 mikropartikulak)	2024	5,4	--	--	+	
Edukiontzietako gaikako bilketa (kg biztanleko urtean)	2024	107,2	++	++	++	
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK	Errendimendu ekonomikoa					
	Biztanleko BPGa (€)	2024	28.519,8	++	--	--
	Langile bakoitzeko itxurazko produktibitatea (€)	2023	89,0	=	++	--
	Enpresa errentagarritasuna					
	Enpresen ekonomia errentagarritasuna (mediana, %)	2024	9,3	++	++	--
	Enpresen finantza errentagarritasuna (mediana, %)	2024	16,2	++	++	--
	Ekintzailtza					
Hazkunde handiko enpresak (1.000 biztanleko)	2025	0,14	++	--	++	

	Adierazlea	Azken datuak	Balioa	Bilakaera (azken 10 urteak)	Bizkaiarekiko aldea	
					Maila	Aldaketa
PALANKA DINAMIKOAK	Kapital naturala					
	Instalatutako berriztagarrien potentzia (kW 10.000 biztanleko)	2023	370,6	++	--	++
	Natur baliabideetan intentsiboak diren sektoreetako enplegua (%)	2023	3,3	--	--	--
	Kapital fisikoa					
	Garraio eta komunikazio azpiegiturretara bideratutako azalera (%)	2024	2,3	+	++	+
	Kontsumo ondasun iraunkorren eta ekipo ondasunen industrietako enplegua (%)	2025	6,2	++	++	++
	Finantzaketa					
	Enpresen ondare garbia (mediana, pasibo guztiaren %)	2024	50,6	++	+	-
	Tokiko administrazio publikoaren biztanleko zorra (€)	2024	0,0	--	--	--
	Atzerrian eskumendekoak dituzten enpresak (%)	2025	8,8	--	++	--
	Atzerriko akziodunak dituzten enpresak (%)	2025	1,8	--	--	--
	Finantza sektoreko enplegua (%)	2025	1,2	--	--	-
	Jakintza					
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak	2024	12	++	e.e.	++
	I+Gko jardueretan aritzen diren establezimenduak 1.000 biztanleko	2024	0,3	++	--	++
	Enpresen I+Gko gastua (BPGaren %)	2024	0,4	--	--	--
	Enpresetan DOBn I+Gko jardueretan aritzen diren langileak (enpleguaren %)	2024	0,6	--	--	--
	Goi teknologiako eta erdi-goi teknologiako manufakturetako enplegua (%)	2025	1,9	--	--	--
	Jakintzan intentsiboak diren zerbitzuetako enplegua (%)	2025	52,2	++	++	++
	Giza kapitala					
	Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2024	73,1	++	+	=
	Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa duen 25-34 urte arteko bizt. (%)	2024	73,5	+	++	+
	Gizarte eta erakunde kapitala					
	Udal hauteskundeetako parte hartze tasa (%)	2023	62,3	--	+	-
	Alkate emakumeak (%)	2023	57,1	++	++	++



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA